



'Kakux' auziaren gainerako erreportajea

Sakabanaketaren eragina bailarako senideengan

Gizateriaren kontrako krimenak

Astelehenean zabalduko dute Elgetan testigantzen bulegoa. Bertako Udalak lekukotasunak eta dokumentazioa behar ditu frankismoaren aurkako auzian kereilatzaile gisa aurkezteko / 32



Monge (Intxorta, 1937), Agirre (Elgetako alkatea), Bernabe (bulegoko teknikaria) eta Ibagutxi (frankismoaren krimenen aurkako kereilaren plataformako kidea), Elgetako biktimen oroimenezko monumentuan. UBANE MADERA

Bost ziklista profesional ditu Debagoienak

Oñatiko Aloña Mendiren ziklismo saileko eta Bergarako Lokatzako harrobietan hazitakoak dira txirrindulari profesional horiek / 39

Hautsak harrotu ditu eskualdean ere Juan Kruz Mendizabalen auziak, Bergaran bereziki / 2

Apirilaren 8an ibiliko da Korrika, euskararen aldeko lasterketa, Debagoienean / 3

Sentsibiltate askotariko herritarrek bat egingo dute bihar, zapatua, Bilbon / 4

Jai Zale: bi urte Arrasateko euskalgintzaren erreferentziako gune izaten / 25

SINADURAK

| | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  IÑAKI ETXEBESTE / 8 |  MAIDER ALDAI / 23 |
|  GAIZKA ERAÑA / 11 |  ANDRES OSA 'SAKONA' / 25 |
|  JULEN ABASOLO / 19 |  MIKEL IRIZAR / 48 |

Bailara ere, harrituta 'Kakux'-en kondenarekin

Bergarako parroko izandako Juan Kruz Mendizabal 'Kakux' abadea bi adingaberi sexu-abusuak egiteagatik zigortu eta kondenatu egin du Eliza Katolikoak, eta albiste horrek hautsak harrotu ditu Euskal Herri osoan; tartean, Bergaran

Leire Kortabarría BERGARA

Donostiako gotzainak atzo, egue- na, prentsaurrekoa egin zuen *Kakux* auziaren gainean. Besteak beste, Jose Ignacio Munillak jakinarazi zuen 1994an gertatutako beste eraso baten salaketa jaso zuela atzo goizean bertan, eta "esandakoari egiantzekotasun handia ageri zaiola". Gehitu zuen "salatzaileak gogoa" adierazi duela bere kasua "bai zibilki bai elizaren aurrean aurkezteko" eta horregatik atzo bertan fiskal nagusiarekin harremanetan jarri zela, "hurrengo pausoak nola eman elkarrekin adosteko". Halaber, Munillak sexu-abusuak jasan dituen biktima gehiago baldin badaude, gertakariak salatzeke dei egin zuen. Eta horrekin batera, jakinarazi zuen "neurri prebentibo" batzuk hartu dituztela Mendizabalen kontra: "bere ministeritza era publikoan gauzatzeko debekua. Monasterio batean bizitzeko obligazioa, gotzainari baimena eskatu behar-ko diolarik bertatik atera ahal izateko", eta besteak beste "persona heldu bat aurrean ez bada adingabeekin edonolako kontaktua izateko debekua".

Juan Kruz Mendizabal *Kakux* sexu-abusuak egiteagatik errudun aitortu duten lehen euskal elizgizona da.

Bergarako Santa Marina eta San Pedro parroketako eta Elosuko parroko izan zen 2006 eta 2010 artean; gero, Antzuolako parroko ere izan zen. Donostiako gotzain Munillak bikario nagusi izendatu zuen orduan. Orain jakin denez, Munillak 2016ko martxoan izan zuen abusuen berri. Handik hilabetera, kargutik kendu zuen *Kakux*; arrazoia orain jakin da.

Bergararrek harridura handiz hartu dute albistea. GOIENARI esandakoak dira honako hauek: "Gaizki, oso gaizki hartu dut"; "Ezagutzen nuen eta asko harritu naiz; oso jatorra ematen zuen,



'Puntua' aldizkariak gaur argitaratu duen erreportajea. GOIENA

oso dinamikoa, oso arrunta". Albistearekin mesfidati azaldu denik ere badago: "Beharbada Munilla horren atzetik ibiliko da, izan ere, familiarek ez dute ikertu, Elizak ikertu du".

"Denok berdinak gara"

Herritarren iritziz, bestalde, zuzenbide zibilak epaitu beharko luke Mendizabal: "Elizak esatea Mendizabalek egin zuena ondo ez dagoela ondo iruditzen zait, baina ez da hor bakarrik geratu behar"; "Denok berdin epaitu behar gaituzte, bestela gaizki gabiltza"; "Apaiza da, bai, baina baita pertsona ere".

Felix Garitano: "Mingarria da"

Felix Garitano bergararra parroko zen Donostiako San Vicente parrokan, eta Mendizabalen lankide sexu-abusuak gertatu ziren urteetan. "Mingarria da, lur jota gaude, baina ondo jokatzen du Elizak emandako pausoe- tan", adierazi du Felix Garitanok. Honako hau gaineratu du: "Besarkada bero bat bidali nahi nieke bai kaltetuei, baita euren familiei ere. Barka ditzatela gure Elizako apaiz batek egin dieten gaitzak eta ziur egon beti aurkituko dutela nigan betiko adiskidea eta behar duten laguntza. Eta baita ere *Kakux*-ek. Ask

maite izan dugu, baina, noski, hau salatu beharra zegoen eta behar ziren erabakiak hartu beharra. Honetan dudarik ez. Baina nigan beti aurkituko du Jesusengan momentu honetan aurkituko lukeen harrera, errukitasuna eta behar duen laguntza".

Eguaztenean, Gipuzkoako Fiskaltzak esan zuen ofizioz jardungo duela eta informazio guztia batuko duela erabaki ahal izateko ea kereila ipini behar duen Mendizabalen aurka.

Ezker Batuak eskatu du Fiskaltzak azter dezala ere ea Elizak "ezkutapen delituri egin zuen". Gainera, eskatu du Mendizabal zuzenbide orokorraren arabera epai dezaten.

Adierazpenak 'Puntua'-n

Puntua aldizkaria gaur zen Mendizabali 2016 bukaeran egindako elkarrizketa argitaratzeko. Bikarriotza Nagusia uzteko arrazoiez eta ordutik ezkeroko ibilbideaz galdetzen zitzaion. Pederastiaz ere bai. Azken albisteak zaharkitua utzi du elkarrizketa, baina bertako adierazpen batzuk irakurri ahal izango dira errepor- taje baten. Oraingo asteko albistea publiko egin eta gero, Mendizabalekin harremanetan ipini da GOIENA, baina hark ez du adierazpenik egin nahi izan.

Azkenaldiko gripe epidemia zertxobait baretu da

Gripe epidemia egoeran dago Hego Euskal Herria, eta Debagoiengan datuak bereziki altuak izan dira

Txomin Madina DEBAGOIENA

2016eko azken astean, esaterako, bailarak izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko intzidentzia maila altuena. Medikuek diote- nez, Debagoiengan gripearen kanpaina aurreratu egin dela- ko gertatu da hori.

Epidemia egoeran izateak esan nahi du 100.000 biztanleko 200 kasu baino gehiago daudela. Osakidetzaren datuen arabera, 2016ko azken astean Debagoiena izan zen gripe kasu gehien izan zituen Euskal Autonomia Erki- degoko eskualdea.

Edozein modutan, Arrasateko anbulatorioko Lehen Arretako mediku Itziar Lasaren esanetan, "batzuetan desberdintasunak daude eskualdeen artean, baina, gero, orekatu egiten dira. De- bagoiengan lehenago hasi da gri- pearen kanpaina, aste batzuk arinxeara". Gaineratzen duenez, azken asteotan kasu kopurua txikitu egin da Debagoiengan.

'A gripea' da gehienetan

Hasieran, umeen kasuak izan ziren gehienak, baina, azken asteetan, 14 eta 65 urte arteko pertsonak gaixotu dira, gehien- bat. Kasu gehienetan *A gripea*

izan dute gaixoeak; Itziar Lasak dio gripearen birusak izan duen mutazioaren ondorioz dela hori, eta ez dela kezkatzekoa. Sintoma- mak berberak dira: ondoez oro- korra, sukar altua, buruko zein giharretako mina...

230 mediku gehiago

Aurreko asteetan, bai Arrasa- teko anbulatorioan eta baita Debagoiengo ospitalean kolap- so egoera izan dutela dio Itziar Lasak, eta bi arrazoi egon dire- la horretarako: "Gripearen epi- demia aurreratu egin da, eta gero, oporrak eta bajak direla- eta langileen erdiak izan gara lanean, ordezko gutxirekin, eta kolapso egoera bat gertatu da".

Osakidetzak esan du gripearen epidemia dela-eta beste 230 pro- fesional kontratatu dituela Eus- kadin, eta beste 417 ospitale ohe egokitu dituela.

Arreta berezia

Urtero bezala, arreta berezia izan behar dute 65 urtetik gora- koek, diabetikoek eta biriketako edo bihotzeko gaixotasun kro- nikoak dituztenek; konplikazio- rik izan ez dezaten, lehenbailehen kontsultatzea gomendatzen da.



ENEKO AZURMENDI

Ternua bisitatu du Olanok

Ahaldun nagusi Markel Olanok eta diputatu Ainhoa Aizpuruk Ternua Group-en instalazioak bisitatu zituzten eguenean. Arrasateko enpresa lehiakortasun eta berrikuntzan egiten dabilen lana goraiatu zuen Olanok. Aldundiaren laguntza-lerro bati esker, digitalizazioa eta produktu berrien garapena indartu ditu Ternuak.

Apirilaren 8an ibiliko da Korrika Debagoienez

Jakinarazi du AEK-k euskararen aldeko Korrika herri lasterketak aurten egingo duen ibilbidea. Debagoienetik apirilaren 8an pasako da, eta Elgeta eta Aramaio ez beste herri guztietan ibiliko da, dena egun bakarrean

A.T./L.K. DEBAGOIENA

Hain zuzen, Bergararik (00:22) sartuko da Korrika 20 Debagoien-era. Handik Antzuolara egingo du, eta Deskargatik Zumarragara. Gero, Goierri aldera joango da eta bueltan Oñatira (11:54) Udanatik. Gero, Arrasatera (12:50); Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagatik (14:35) Arabara sartuko da.

Arrasateko AEK-ko Oskar Elizburuk honela laburtzen du ibilbidea: "Eguerdiko ordutegia, zapatua... jende guztiak parte hartzeko aukera, inoiz baino handiagoa".

Herrietan batzordeak osatuko dira. Lehenengo batzordeekin datorren astean hasiko dira lanean; hala, hilaren 17an, Oñatin eta Arrasaten batzortuko dira antolatzaileak herritarrekin. Elizburuk dei egiten die parte hartu nahi duten guztiak.

Bestalde, aurten Elgetatik eta Aramaiotik Korrika pasako ez den arren, Otxandion aramaioarrerekin batera egiteko asmoa azaldu dute.

Laguntzeko hiru modu

Korrikari laguntzeko zenbait modu daude.

Alde batetik, urtarrilaren 23an hasiko da kilometroak erreserbatzeko epea; aurten, gutxienez 425 eurotan salduko da kilometroa. Familian, elkartean, lagunartean, enpresako langileen artean... Kilometroen lekukoa eramane nahi dutenek Korrika bulegoekin harremanetan jarri behar dute, kilometro zehatza hartzeko eta diru ekarpena egiteko. Gipuzkoan, erreserba hori

**HERRI
BATZORDEETARA
DEITU DITUZTE PARTE
HARTU GURA DUTEN
GUZTIAK**

egiteko bideak hauek dira: 946 46 40 00 telefono zenbakia eta gipuzkoa@korrika.eus helbide elektronikoa.

Lasterketa babesteko beste era bat Korrika materiala erostea da, euskaltegietan, herrialdeetako dendetan eta Korrikaren *on line* dendan (www.korrika.eus).

Azkenik, Korrika laguntzaile izateko aukera dago. 12 euroren truke jasoko du norberak aurten Korrika Laguntzailearen pina, urtarriletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak izatea ahalbidetuko dion Korrika laguntzaile txartela. AEKren euskaltegietan eta Internet bidez egin daitezke eskaria. Aurten, berritasun gisa, laguntzaile guztiek hainbat zozketatan parte hartuko dute.

Sortzaileei omenaldia

Otxandiotik abiatuko da 20. Korrika martxoaren 30ean, eta Iruñean bukatuko da apirilaren 9an; Oraingoan, *Batzuk* lelopean: "Hizkuntza, kultura eta mundu batzuk irudikatu nahi ditugu", Korrikaren 20. aldiko antolatzaileren esanetan. 1980. urtean Korrika sortu zutenek jasoko dute aurtengo omenaldia. Horrez gain, jaialdi berezia izango da otsailaren 11n.

Bergararik Gatzagara

- **Bergara** 00:22
- **Antzuola** 01:00
- **Deskarga** 01:30
- **Udana** 11:15
- **Oñati** 11:54
- **Arrasate** 12:50
- **Aretxabaleta** 13:37
- **Eskoriatza** 14:00
- **Leintz Gatzaga** 14:35



Argazkian, Korrikaren orain dela bi urteko argazkia, eskualdea zaharkatzen. GOIENA

**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

#erronkarakoprest

Ana Alberdi

Mendaro.
Ikus-entzunezko
Komunikazioa, 4. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · URTARRILAK 19
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 11
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

HIRIETAN AURKEZPENAK

GASTEIZ · URTARRILAK 24
ASTEARTEA, 18:00 / Europa Jauregia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 9
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · URTARRILAK 28
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · OTSAILAK 11
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436

Bilboko kaleak betetzera, presoek eskubideen alde

Sarek sentsibilitate askotariko herritarrak deitu ditu zaturako, Bilbon, sakabanaketa politika amaitzeko eta gaixo larrien eskubideak betetzeko eskatzeko. Debagoieneko hainbat herritan autobusak antolatu dituzte

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Sare plataforma herritarrak deituta, sentsibilitate askotariko milaka lagun batuko dira zapatuan Bilbon, euskal presoek eskubideen eta bake prozesuaren aldeko manifestazioan.

ETAren behin betiko su-etenetik bost urte igaro dira, eta presoek familiakide eta lagunek

dispertsio politikaren eraginak jasaten jarraitzen dutela salatu dute, eta, era berean, gaixotasun larriak dituzten presoek eskubideak bete daitezela eskatu dute.

Testuinguru politiko berezia

Aurtengo manifestazioa testuinguru politiko berezi batekin ingu-

ratuta dator. Eusko Jaurlaritzako hauteskundeek gehiengo garbirik gabeko Legebiltzarra utzi dute, eta alderdien arteko akordio beharrak presoek egotzeran aurrerapausoak emateko aukerak ekarri ditzake.

Zentzu berean, bakegintza prozesuan, Luhusoko gertakariak pasa berri dira; ETAren arma-

gabetze prozesuan mugimenduak dauden erakusle.

Bakea eta elkarbizitza

Sarek sentsibilitate askotariko 100 aurpegi ezagun baino gehiagoren atxikimenduak batu ditu zapatuko manifestazioa babes- teko. Tartean daude behean ageri diren bost debagoiendarak ere.

"Sare herritarretik, jatorri eta sentsibilitate ezberdinetako pertsonen deialdiari ahotsa jartzeko gonbidatu gaituzte. Hemen gaudenoi helburu bakarrak batzen gaitu, gure jendarteak bake eta elkarbizitza eszenatoki baterantz aurrera egitea", azaldu dute atxikimendua emateko testuan.

"Gu guztiok euskal jendarte-koak gara, eta ez dugu nahi jendartearen gehiengo zabal batek

dituen bake eta elkarbizitza nahiei entzungor eta giza eskubideak urratzen jarraitzeko apustu egiten duen politika honekin gure izenean jarraitzerik. Horregatik, ozen eta garbi diogu: gure izenean mendekuzkoa den eta preso dauden pertsonen nahiz beraien senideen eskubideen urratzaile argia den espetxe politika bat mantendu nahi dutenen aurrean altxatzen gara".

Autobusak Debagoienetik

Debagoieneko herri batzuetan hainbat autobus antolatu dituzte zapatuko manifestaziora joateko. Herri bakoitzeko orrietan dago autobusei buruzko informazio praktikoa. Horrez gain, aste honetako PUNTUA aldizkarian, eskualdeko hamabost presoek egorari buruzko erreportaje zabala landu dute.

Zein arrazoi ikusten dituzu zapatuko manifestaziora joateko?



AITOR LOPEZ REKARTE
FUTBOL JOKALARI OHIA

"Euskal gizartearen erantzukizuna da, elkarlanean, euskal presoek eta deportatuen eskubideak defendatzea. Horretarako aukeretako bat da urtarrilaren 14an Bilboko kaleetara irtetea. Giza eskubideak urratzerakoan, gizarte sendo bat garela erakutsi behar dugu, era berean bake prozesua bultzatuz".




MARIA CRUICKSHANK
AKTOREA

"Giza eskubideak pertsona orori dagozkie. Ez dut nahi hauen urraketa ez presoentzat, ez inorentzat. Senide eta lagunek asteburuak errepidean igaro behar izateak asko hunkitzen nau. Horrez gain, larri gaixo dauden presoek, zigorrak euren osasun egoerari egokitu behar dizkiete, euren eskubidea da".



PELLO ZABALA
FRANTZISKOTARRA

"Orain errefuxiatuak laguntzera joan direnekin ikusi da instituzioak mugitu direla. Presoak etxetik urrun egoteak sufrimendu handia dakar familientzat, baina inor ez da mugitzen. Urrutikoen minak onartzen ditugu eta gertukoena ez. Hala ere, badaukat esperantza gauzak laster mugitzen hasteko".



ESTHER LARRAÑAGA
ABOKATUA

"Ezin dugu onartu presoek egoera okerrera doala ikustea ezer egin gabe. Hortaz, presoek egoera salatzeko eta salaketa hori sentimendu kolektibo bihurtzeko, auzi horrek inflexio-puntua izan dezan eta giza eskubideetara eta bakera bideratua izan dadila eskatzeko, Bilbora noa".



FERMIN IRIGOIEN
KAZETARIA

"Presoek sakabanatze antolatuari eusten dioten bi estatuei haien espetxe politika gogo sadiko batek gidatua dela aurpegiratzeko modua da. ETAren behin betiko su-etenetik bost urtera, presoek gerturatzeko itxaropen zilegiak zapuzten direlako, eta senideei osasuna eta dirua lapurtzen zaielako".

Fagor Ederlanek hartu du Etxetresnena zen pabiloi bat

Fagor Ederlanek Fagor Etxetresnen hozkailuen garai bateko plantan 4.800 metro koadro alokatuko ditu

Leire Kortabarria ARRASATE

Fagor Ederlanek bere jarduera handituko du, eta horretarako behar du gure hori. San Andres auzoan dago. 2019an 50 lanpostu izango dira han, eta lanpostu guztiak ez dira berriak izango,

baina batzuk bai, Ederlanek argitu duenez.

Instalazio horietan, Fagor Ederlanek moldeak egiteko industria jarduera ipiniko du, behe presioko fundizioeko eta aluminio injekzio plantetarako. Fagor

Ederlanen esanetan, lekualdatzea izango da, baina baita jardueraren handitze bat ere; izan ere, azken urteotan "asko hazi da" aluminio injekzio jarduera, eta hazkunde horri erantzun egokia emateko espazio handiago bat behar da, kooperatibaren esanetan.

Gaur egun, molde horiek Ederlanek dituen lantegietan egiten dira. Jarduera hori "gakoa" da Fagor Ederlanendako, eta oraingo alokairua indarrean duten Inbertsio Planean jasota zegoen.



San Andresko lantegia. GOIENA

Ahalmen produktiboa bikoiztu

Pabiloia egokitu eta gero, kooperatibak bitarteko produktiboak eramango ditu Aretxabaletan, Eskoriatzan, Arrasaten eta Bergaran dituen lau plantetarako moldeak egiteko eta tresnen mantentze eta mekanizazio lanetarako. Horrenbestez, kooperatibak moldeak eraikitzeko duen ahalmena bikoiztuko du eta egun dituen plantetan leku libre utziko du etorkizuneko proiektuetan ekoizpen ahalmena handitzeko.



ZATOZ KONFIANTZAREN ESPAZIOETARA

Matrikula epea zabalik
URTARRILAREN 30etik
OTSAILAREN 10era

HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|--------------|------------|----|--------------|-------|--------------|
| UMEZAINZA* | urtarrilak | 21 | (larunbata) | 11:00 | Arrasate |
| OLARTE | urtarrilak | 24 | (asteartea) | 17:30 | Arrasate |
| SANTA TERESA | urtarrilak | 25 | (asteazkena) | 17:30 | Arrasate |
| BASABEAZPI | urtarrilak | 25 | (asteazkena) | 17:30 | Aretxabaleta |
| JOSE ARANA* | urtarrilak | 26 | (osteguna) | 17:30 | Eskoriatza |
| URIBARRI* | urtarrilak | 26 | (osteguna) | 17:30 | Arrasate |



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzu



eskoriatza ko
udala

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzu

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|--------------|------------|----|--------------|-------------|------------|
| ALMEN | urtarrilak | 30 | (astelehena) | 09:15-14:15 | Eskoriatza |
| ARIMAZUBI | urtarrilak | 31 | (asteartea) | 09:15-14:45 | Arrasate |
| SANTA TERESA | otsailak | 1 | (asteazkena) | 09:15-14:45 | Arrasate |
| GAZTELUONDO | otsailak | 2 | (osteguna) | 09:15-14:45 | Arrasate |

Ordu-tegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazaizue, LHko zuzendari Maider Hercerekin jarri harremanetan: mherze@arizmendikide.net

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|-----------|------------|----|------------|-------------|------------|
| GAZTELUPE | urtarrilak | 26 | (osteguna) | 11:00-14:30 | Arrasate |
| ALMEN | urtarrilak | 26 | (osteguna) | 11:00-15:00 | Eskoriatza |

Ordu-tegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazaizue joatea, DBHko zuzendari Elena Errastirekin jarri harremanetan: eerrasti@arizmendikide.net

INFORMAZIO BILERAK

| | | | | | |
|---------------|------------|----|--------------|-------|------------|
| SANTA TERESA* | urtarrilak | 18 | (asteazkena) | 17:30 | Arrasate |
| ALMEN* | urtarrilak | 24 | (asteartea) | 18:00 | Eskoriatza |
| GAZTELUPE | urtarrilak | 24 | (asteartea) | 18:00 | Arrasate |
| gaztelaniaz > | urtarrilak | 25 | (asteazkena) | 18:00 | Arrasate |

* Elebitan.

Ubane Madera DEBAGOIENA

Berrekin-Berregin egitasmoaren lekukoa hartu, eta KoopFabrika izenarekin abiatu du hirugarren edizioa Debagoiengan sortutako ekintzailtasun sozialerako programak. Izenaz gainera, berri-tasun gehiago ere baditu ekimenak: Gipuzkoako beste bi eskualdetan ere garatuko da: Beterri-Buruntzan eta Oarsoaldean. Berrekin-Berregin egitasmoaren antolatzaile den Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiko Arianne Kareaga kideak (Bergara, 1979) jakinarazi du otsailaren 1ean hasi eta ekainera bitartean iraungo duela KoopFabrikak.

Zelan iritsi da ekimena Gipuzkoako beste bi eskualde horietara?

Ez da Debagoienetik beste eskualdeetara iritsi dela, baizik eta Hernani inguruan (Beterri-Buruntzaldea) bazegoen Kooperatzen izeneko programa bat, ia Berrekin-ekin batera sortutakoa; ez zuten harremanik, baina OlatuKoop bi programetan zebilen lanean. Oarsoaldea, berriz, gehitzen da, bertako Garapen Agentziak ekonomia soziala eta solidarioa lantzen hasi nahi duelako; bultzada politikoa ere badu ekimenak. Hala, OlatuKoopetik sortutako harremanetik ikusi zen baliabideak eta sinergiak aprobetxatzea zela zentzuzkoena, eta elkarrekin programa diseinatzea zela egokiena. Uztail-urri bitartean diseinatu zen programa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Departamentura aurkeztu zen, eta Gabon aurretik ebatzi zen baietz. Izena aldatu egin zaio ekimenari, programen bateratzeak eraginda, erreferentzia bakarra izateko.

Zelan gauzatuko da KoopFabrika?

Otsailaren 1ean hasi eta ekainera bitartean irauten du. Formazioa elkarrekin egingo dugu, eskualdeak txandakatuta; adibidez, lehen eskola Beterri-Buruntzaldean da, bigarrena Debagoiengan, hurrengoa Oarsoaldean... Tresnen eta praktikaren arloa bakoitzak bere eskualdean landuko du, eta baita proiektuen jarraipena eta lanketa ere.

Debagoienara etorrita, hirugarren edizioa du hemen ekimenak; fruituak eman dituen seinale da hori?

Balorazioa positiboa da. Uste dugu bide hori jarraitu beharrekoa dela. Azken batean, *startup* eredu, banakako eredu –norbaitek ideia bat dauka eta badoa gara-

"Beharrezkoagoa izango da ekonomia eredu berri bat"

ARIANNE KAREAGA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LANKI IKERTEGIKO KIDEA

Urtarrilaren 20ra arte eman daiteke izena ekintzailtasun soziala bultzatzea ipar duen formazio eskaintzan; orain arte Berrekin-Berregin izena izan du; aurtan, KoopFabrika



Arianne Kareaga, Lanki kidea, ikertegiak Huhezin duen bulegoan. UBANE MADERA

tzera-, ez da ohikoena, jende gutxi du horretarako gaitasuna edo dohaina, eta uste dugu beste bide bat izan daitekeela elkarrekin bestelako ekonomia eredu bat lantzea: elkarrekin pentsatu, elkarrekin egin, elkarrekin hausnartu gizarte egoeraz...

Zelako fruituak eman ditu orain arte Berrekin-Berregin egitasmoak?

Badago, esate baterako, Airez taldea, orain dela bi urte sortu zena Bergara aldean; eta bada-biltza lanean. Kilometroen Bergarako jaietan, *Blai-Blai* prozesua

landu zuten –haurrendako gunea egokitu zuten-. Iazko ediziotik, berriz, beste adibide bat jartzerren, Propost proiektua dago –xehetasunak zutabeen-, eta Urban Baratz –nork bere etxeko balkoian edo duen lursail zatian baratzea jartzeak aholkularitza, jarraipena egiteko zerbitzua eskaintzen duen enpresa bat...-. Egia da gero ez dagoela proiektuen kontsolidazio maila alturik. Ez da-eta erraza. Izan ere, denbora behar da horretarako, eta, horrez gainera, halako kasuetan,

konpromiso indibidualak kolektibo izatera pasatu behar dira, asko sinistu behar da proiektuan. **Arreta eman dit enpresetan lanean diharduten langileek ere parte har dezaketela formazio berezitu honetan aurtan. Hori berria da, ala?**

Berria da, bai. Hor dago intra-aprendizaiaren ideia; edozein elkartek, euskalgintzako enpresak... eduki ahal ditu ideiak eta horiek garatzeko aukera izan ahal da, bestelako elkarrekin edo pertsonekin elkarlanean. Edo pertsona horrek ipini ahal du ideia mahai gainean eta gero taldean garatu. Edo pertsona batek bere lanpostuan ondo egon arren ere, akaso, badu ideia bat garatzeko edo beste zerbaitetan jarduteko grina eta motibazioa... **Hiru urteko ibilbidearen ondoren, jarraitzen duzue pentsatzen ekintzailtasun sozialak baduela lekua gure gizartean?**

Bai. Eta uste dut geroago eta gehiago izango duela. Ekonomia egiteko modu berri eta beste balio batzuetan oinarritutakoa beharrezkoagoa izango da. **Proiektu hori bultzatzen bidelagun asko dituzue...**

Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak, OlatuKoop sareak, Bagarak, Debagoieneko Garapen Agentziak, Beterri-Buruntzako udalek eta Oarsoaldeko Garapen Agentziak parte hartzen dute eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako programa da.

"AURTEN FORMAZIOA ELKARREKIN EGINGO DUGU HIRU ESKUALDETAN, TXANDAKATUTA"

Kontuan hartzekoak

Izenematea

- Urtarrilaren 20a aurretik, *koopfabrika.eus*-en. Doan da. Baina leku mugatuak dituzte. 30 lagunek eman dute dagoeneko izena.

Zeini zuzenduta

- Proiektu edo ideiarekin bat lantzen edo martxan jarri nahian direnak.
- Elkarrekin jardunean aritu arren, profesionalizatu beste era batera antolatuta nahi duten taldeak.
- Enpresen baitako barne-ekintzailatza proiektuei dimentsio sozialetik ekiteko asmoa dutenak.



Helena Azkarragaurizar, H.A.

Propost: artea gizarteratzeko proiektua

"Bailaran arte kontsumitzaileak badaude, baina arte garaikidearekiko hutsunea sumatzen genuen. Tailerrak-eta badaude, baina, diziplina moduan, ikuspegi kritikotik, ez dago sorkuntzarako zein inprobisaziorako lekurik. Beharrezko ikusten dugu artea gizarteratzea, uste dugulako arteak gizarterari ekartzen dizkion onurak ukaezinak direla". Helena Azkarragaurizarrek (Arrasate, 1992) esplikatzen du hortik abiatuta landu zutela iazko Berrekin-Berregin edizioan Propost proiektua berak eta Nagore Uriartek, Arte Ederretako lizentziadunak biak. Egitasmoa *standby* egoeran dago, baina dio "oso baliagarria" izan dela Lanki eskaintako formazioa: "Taldea lan egiten da, prisma zabaltzen da..."

Zuhaitzak geroago eta gutxiago; noiz arte?

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Ez badakizu zer egin Gabonetako zuhaitz naturalarekin, landatu ezazu gure inguruko mendiren batean.

Izan ere, ez da etikoa izaki bizidun bat apaintzeko erabiltzea egun batzuetan eta horren ostean zaborretara botatzea; eta, gainera, zuhaitz faltan gaude.

Aspaldiko kontua da hau: 1548. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusietan lehenengo aldiz plazaratu zuten kezka da, alegia, gizartearen beharrei aurre egiteko zuhaitz gutxiegi zeudela, eta gaur egun Lurra planeta mailan dagoen kezka da.

Basamortuak geroago eta gehiago eta basoak geroago eta gutxiago.

66 aldiz Gipuzkoaren azalera mozten dira urtean gizakiaren epe motzeko proiektu ganoragabekoak asetzeko, ondorengo belaunaldien etorkizuna kolokan ipinita.

Nire aholkua honako hauxe da: landatu ahal duzun

gehien, eta disfrutatu zure zuhaitza maskota bat balitz bezala, lan gutxi eta onura asko ematen du eta.

Hain zuzen ere, zuhaitzak dira Lurra planeta ondoen zaintzen dituzten izaki bizidunak.

Beste behin, eskerrik asko herriko komertzio eta enpresei!

MAIALEN GURIDI

'EZ DOT MOZTUKO BIZARRA'
MUGIMENDUKO KIDEA
ANTZUOLA

Gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu Antzuolako merkatari, dendari eta bestelako enpresari guztiei *Ez dot moztuko bizarra* mugimenduko kideok. Beste behin, urte amaierako egun berezi hauetan, presoen egoerarekiko azaldu duzuen sentsibilitatea eta elkartasuna goraiatzekoa izan da; kandelak ipini dituzue erakusleio zein tabernako barran, aportazioak egin dituzue, herriko ekimenetan zuzenean parte hartu duzue... Benetan, eskerrik asko! Ziur gaude keinu horiek ziegetaraino ere heldu direla.

Elkartasun uholdea itsasoan galduta indargabetu ez dadin,

orain, herritar guztiei bezala, urtarrilaren 14ko manifestaziora joateko deia luzatzen dizuegu.

Antzuolarrok ere salatzen dugu!

Euskal presoak Euskal Herrira!

Mila esker, Pili, eta gero arte

DANEL GOIKOLEA ETA ANE ARRIZABALAGA

ARRASATE

Pili zure ipuinez kantatu ta jolasez, amantalakin majia egin duzu errez. Umezaintza guztiak gozatu du pozez, guztion partez esker pilo bat bihotzez. (Danel Goikolea)

Gogoan dut guraso zein ikasleek egin zizuten agurra. Lora sortaz eskuan eta irrifarraz ahoan oroitzen zaitut egun hartan. Eman zein jaso zenuen guztiaren pozez, agurtu zinen esker onez. Gaur herri osoak malko gaziz dugu lore sorta eskuan, baina zure pozaren indarrez egingo dugu aurrera bidean. Zuk eman diguzu

guztion bihotzera iristeko errezeta, maitasunez pentsatu, maitasunez egin eta maitasunez bizitzea. Irakasle, lagun zein famili bezala irakatsi diguzu gure biziko ikasgaia. (Ane Arrizabalaga)

Pili Otxoa Ugaldereen familiaren partetik, bihotz-bihotzez, eskerrak parte hartu zenuten guztioi.

Negarraldi batek

MIREN AMURIZA

HTTPS://GOO.GL/XFRSZH

Obamak negar egin ei zuen bere despedida diskurtsoan, horixe atzo goizean goiz irratian entzun nuena.

Begiak gorrituta imajinatu nuen, matrailak umelduta eta mukia dariola; ia neu ere busti pentsatze hutsarekin (egia esan, sinpatia diot).

Berehala topatu nuen bideoa baina negar anpulurik inon ikusi ez!

Michelle emazteari buruz ziharduen; berak bilatu bako rol bat asumitu eta "graziaz, estiloz eta umore onez" bete zuela azpimarratuz.

Esan zezakeen "trebetasunez, nortasunez eta

ingenioarekin" jardun zela lehen dama (graziaz, estiloz eta umorez klake dantzariak aritzen dira, aizu!), baina, tira...

Kontua da, hain justu, orduantxe hunkitu zela: isildu, musuzapi zuria atera eta begi ertza igurtzi zuen, ttak.

Eta bat, bi, hiru (ziur pausari zenbat segundoz eutsi ere neurtuta zeukala), berbetan jarraitu zuen.

Malko bakar bat ere ez zuen isuri.

Orain, medioek negar egin zuela zabaldu badute, egin zuen eta kito.

Egia osteko aroan (*post-truth*) ei gaude; errealitatea gertaera objektiboek barik gertatu denari buruz esandakoek definitzen duten garaian, Trump fenomenoaren bilakaera adibide.

Zorionez, aro berri bat asmatzeko gai izan direnek ere, oraindik ez dute deskubritu benetako negarraldi batek zelako konmozioa sor dezakeen.

Egizue proba: joan taberna jendetsu batera, eskatu kafe bat, jarri mahaian eta hasi negarrez. Ea zer gertatzen den.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



Aste honetako Puntua aldizkarian

'Kakux' auzia: euskal Eliza ere ez dago salbu

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

Puntua aldizkaria: astero, etxean.

Deskontuak: Goienako iragarki sailkatu eta eskeletan.

Abantailak: zozketa eta promozio guztietan.

Urteko kuota: **55 €**. | 943 25 05 05

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

Casey Jones proiektua

Zerbait kontatzera baino gehiago, zerbait proposatzera dator *Zabalik*-erako ekarpen hau. Ariketarako gomendagarria litzakete belaunaldi desberdinetako lagunak elkartzera, sarera sarbidea duen gailuren bat lortzea, eta gure bailarako eraldaketa azken 70 urteetan nolakoa izan den jakin nahi izatea.

II. Mundu Gerraren bueltan informazio bila USAAF eta RAFeko hegazkinek 1945eko urtarrilean *Casey Jones* proiektua abiarazi eta Europa osoa airetik argazkitan erretratatu zuten. Gure bailaratik 46ko ekainean pasa ziren, eta argazki horiek *geo.euskadi.eus* atarian ikus daitezke, baita bertsio berriagoak ere, ondorengo urteetan beste erakunde batzuek ateratakoak. Hasieran helburu militarretarako zirenak, egungo lurralde antolamendurako eta esparru desberdinetan garatzen diren ikerketetarako tresna baliagarri bilakatu dira, denboran elementu geografikoak nola aldatu diren erakusten dizkigutelako.

GALDU DITUGUN PAISAIA HORIEN KOLOREAK IRUDIKATZEN GALTZEN NAIZ NI


Ariketarako, hauta dezala norberak elementu horietako bat.

Ni Arrasateko Musakola auzoan kokatu naiz. Iazko argazkian ia ikusezina diren ortuak bilatzen jarri naiz, bailararen alde bietan pinudiak nagusi direla. 1946koa kargatu eta ia ikusezina direnak etxeak eta pinudiak dira. 1954an soloz eta belardiz inguratuta agertzen da *Plazoleta* –Sailuente plaza–. 1956rako, berriz, Itsasondo baserritik metro gutxira San Antolingo etxeak eraiki, eta hurrengo hegaldirako (1983), musakolarrek beraien independentzia –urbanistikoa– galdua zuten.

Baina hori baino gehiago gertatu da. Gure bailarako paisaia, gure herriko beste leku asko bezala, nekazari izatetik industrial eta urbano izatera igaro da, gure ogibideak aldatu diren heinean. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak, baina galdu ditugun paisaia horien koloreak irudikatzen galtzen naiz ni, *Casey Jones* proiektuko pilotu haiei tontorren batetik begira...

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



ZEUK ESANA

Futboleko teknologia berriak ezartzearen alde zaude?

DABID BETACHAM

DEBAGOIENA

Ba, bai, duda barik. Baina hori nire iritzia da.

Zenbat eta laguntza gehiago, orduan eta errazago izango dute epaileek partidua aurrera ateratzeko.

Hala ere, beste alde batetik, zer egingo lukete programak eta programak, orduak eta orduak jokaldi eztabaidagarri bati eskaintzen dizkioten telebista saioek? Han daude guztiak: aurkezleak, kazetariak, sasikazetariak, jokalariei ohiak, epaile ohiak –

haiek bai delitua haiek... Real Madrilen eta

Bartzelonaren partiduen jokaldi eztabaidagarriekin ez daukate mugarik saio horiek, eta aurkezleak eurak ere saltsan sartzen dira. Bada, teknologia berriak sartuta, horiek guztiak langabeziara!

JOLASLARIA

BERGARA

Bada ordua milioi asko mugitzen dituen kirol horretan ere aplikatzeko azken belaunaldiko teknologiak, ala? Adibidez,

tenisean aspaldi erabiltzen dute *ojo de halcón* delakoa. A ze mesedea egin dioten kirol horri... Marra zapaldu duen pilotak, kanpoan dela, barruan...

Ba, futboleko, gauza bera. Txarrena da partidua geratu egin behar dela eta bere denbora hartu beharko dela jokaldia berriro ikusteko, baina, epe luzera, guztiondako onuragarria izango delakoa nago.

Hori bai... apustu-etxeek onartuko dute horrelakorik erregea den kirolean?

HURRENGO ZENBAKIAN: KONSTITUZIONALAK BERRETSI EGIN DU DENDEK ORDUTEGIAK LUZATZEKO ETA MERKEALDIA NAHIERAN EZARTZEKO AUKERA? Iritzia emateko: berriak@goiena.eus / goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Sinesteza litzake lizentzia ateratzera derrigortzea"

JUAN ANTONIO IRIZAR DEBAGOIENA ZIKLOTURISTA TALDEKO PRESIDENTEA

Xabi Urzelai ARRASATE

Espainiako RACE automobil klubak joan den astean egindako proposamenak haserrea piztu du ziklista, zikloturista eta egunerokoan bizikleta erabiltzen dutenengan. Automobileren sistema gainbegiratzen dabiltzala aprobetxatuta, proposatu dute bizikleta gainean ibiltzeko ere gidabaimena eskatzea, argudiatuz, errepidean ibiltzen den edonork eskubide eta betebeharrak izan beharko lituzkeela. Gidabaimena izateaz batera bizikletak matrikulatzearen gainean ere berba egin dute, eta gaineratu, komenigarria izango litzatekeela aseguru propioa izatea.

Debagoieneko zikloturista klubean zer iruditu zaizue proposamena?

Itxura hartzen diogu dirua ateratzeko beste bide bat izango dela. Lehenengo matrikula, gero baimena eta



Juan Antonio Irizar. GOIENA

azkenik aseguru ere beharrezkoa izango da... diru mardoa ateratzeko, azken batean.

Neurria bizikletaren erabilera geroz eta handiagoa delako datorrela uste duzu?

Goraka doa pixkanaka bizikletaren erabilera, baina Europan erabiltzen dute bizikleta guk baino askoz gehiago eta han ez dute halako neurrik hartu. Zergatik hemen bai? Gainera,

istripu larriak hiriburuetan gertatzen dira, oinezkoen artean, ez errepideetan. **Erregulazioen bat egon beharko litzatekeela uste duzu?**

Bai, adibidez, hiri barruan bizikletaz zela ibili behar garen arautuko duena. Akaso hor badugu zer ikasia. Baina errepideetan zikloturistek badakite zela ibili.

Errepidean badute lekua txirridulariek eta autoek?

Bai, eta denon artean konpondu behar gara errespetu osoz. Inportantea da heziketa, txikitatik hasia ikasten gure artean ze errespetu izan behar dugun. Txirridulariok ikasi egin behar dugu eta errespetatu semaforoak, zebra-bideak... erru jakin bat badugu, baina hori da alde bat. Bestetik ja jartzea baimena, aseguru... halakorik ez dut ezagutzen Holandan, Belgikan, Alemanian... han bizikleta mardoa ibiltzen da eta ez dago halako trabarik. Hainbeste trabarekin lortzen duzun bakarra da jendeak bizikleta etxean uztea. Guk gure lizentzia dugu, gure aseguru... eta urtero geroz eta garestiagoa da. Aurten 120 euro ordaindu behar ditugu, adibidez. Sinesteza litzateke edonor derrigortu beharra lizentzia ateratzera.

HAU BE BADOGU!

Urrezko Danborra hutsik gelditu da



Angels Barcelo kazetari katalanari Urrezko Danborra ematea zen Donostiako sozialisten proposamena, baina eguaztenean egindako osoko bilkuran ez zuen beste alderdien babesik jaso, eta, ondorioz, hutsik geldituko da 2017ko merezimendua. Kazetariak, adostasunik egon ezean, nahiago zuela hautagai ez izan adierazi zuen.

Sare sozialetan harridura handia piztu zuen Angels Barceloren izendapenak, eta gaia *trending topic* izan da Espainia mailan.

Juan Kruz Mendizabal, zurrunbiloaren erdian

Asteartean ezagutzera eman zuten apaizak bi adingaberi egindako ukitze desegokiak egin izana frogatutzat eman zuela Donostiako Elizbarrutiak. Sare sozialetan bolo-bolo ibili da gaia:

@larretxea: "Shockean. Udalekutan izan naiz berarekin, Donostiako (berezi Alde Zaharreko) beste ehunka haur eta nerabe bezala".
@Josebelturrioz: "Eta gero Munilla gotzaina sexu eskolak ematen. Elizak iraultza behar du."

#u14bilbora traola, 'trending topic'

Zapatuan Bilbon Sare Herritarra plataformak deituriko manifestaziorako traolak, #u14bilbora eta #salatzen dut, *trending topic* izan dira bigarren astez jarraian. Sentsibilitate ezberdineko jendeak martxan parte hartuko duela adierazi du. Besteak beste, Juanito Oizartabalek, Nagua Albak, Mikel Aranburuk, Tontxu Camposek, Xabier Euzkitzek, Zuriñe Hildagok, Begoña Errastik, Kepa Junkerak edota Rosa Roderok.

ITURRI ONETIK

14 lagun, Jokin Zaitegi sariketara

Kopuru polita aurkeztu da Jokin Zaitegi Itzulpengintza Sariketako ediziora: 14 lagun. Debagoiendarrak, Gipuzkoako bestelako udalerrietakoak, bizkaitarrak eta nafarrak dira, besteak beste. Bob Dylan abeslari estatubatuarra da 2016ko Literaturako Nobel sariduna; hala, haren 100 kantako sorta bat itzultzea da Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin bideratutako bekaren helburua. Hil amaiera aurretik jakinaraziko dute irabazlea zein den.

GORA ETA BEHERA



Eskaileretan jausteko arriskua

Arrasateko Otolara Lizentziaduna kaletik Santa Barbara parkera igotzeko dauden 125 eskaileretatik bi apurtuta daude. Kopuru hori ez da nabarmena, baina bai bertatik pasatzen den jende kopurua; umeak dira, bereziki, baina baita haiei laguntzen doazen gurasoak eta aitaita-amamak ere. Apurtutako bi eskailerek oso arriskutsu egiten dute joan-etorria, gure irakurleak salatu duen moduan.



SERGIO AZKARATE



Euskal Herrian Euskaraz-eko Josu Basterra, Ainhoa Urzelai, Aitor Juaristi, Iker Agirre, Jone Usatorre eta Mikel Makazaga. J. BEREZIARTUA

Arnasgune bizia euskararentzat

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Jai Zale tabernak bi urte egin berri ditu eta hurrengo astebururako plana egin du urteurrena ospatzeko: "Gazte ekintzaileekin abiatu genuen proiektua, euskarari diogun maitasuna erregai hartuta", adierazi dute

Jokin Bereziartua ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz taldeak bi urte egin ditu Jai Zale kudeatzen. Itzalita zegoen gunen bat argiztatu dute, euskaratik eta euskaraz: "Sekulako buelta eman diogu Jai Zaleri. Prozesua gorabeheratsua izan zen; gazteak gi-

nen erronkari heldu genionean, esperientzia bakoak. Baina ilusioz gainezka geunden, oso gogotsu", gogoratzen du Arrasateko EHEko kide Iker Agirrek. Jai Zalaren ardura hartzea erabaki "ausarta" izan zela uste dute: "Herriko gazteez osatutako talde ekintzaile

baten oinarrituz abiatu genuen proiektua, euskarari diogun maitasuna erregai gisa hartuta".

Hasiara baten, kultura ekitaldiak antolatzeari ekin zioten, lehen hilabeteetan ia astebururo proposamen bat eskaintzeraino: "Hala ere, Udalaren par-

tetik isunak jaso genituen; sonografoa jarri ziguten. Horregatik erabaki genuen kultura agenda etetea". Oztupoak oztopo, baina, Jai Zale Arrasateko euskalgintzaren erreferentziazko gunen izatea lortu dute: "Hasieratik harrera beroa izan genuen adin tarte zein profil ezberdineko herritarren partetik".

Edonori atek zabalik

Jai Zaleko proiektua tabernan bertan lanean diharduten bost tabernariak eta EHEko beste hamar lagunek hezuramaitzen dute. Lantalde horrek ezaugarri batzuk ditu: "Autoeratuak, ekintzaileak, euskaltzaleak eta ausartak. Hasi ginenean, ostalaritzak ez zuen garai bateko errentagarritasunik eskaintzen, eta, horregatik, etengabe asmatzen ibili beharra dago".

Bi urte hauetan egindako lanarekin pozik daude, bereziki, oztopoak gainditu eta aurreikusitako erronkak bete dituztelako. Izan ere, negozio ikuspegitik errentagarria da egun Jai Zale, eta hori lortzeko "lan handia" egin behar izan dute. 2017ra begirako erronkei dagokienez, Jai Zale gunearen funtzionamenduan ez dute aldaketarik aurreikusten eta espero dute gaur egungo eskaintzarekin orain arte bezain ondo funtzionatzea.

Era berean, azpimarratu dute Euskal Herrian Euskaraz "talde irekia" dela eta edonorendako dituztela atek zabalik.

Nazio batzar irekia Altsasun

Aurreko ikasturtean gogoeta fasean murgildu zen Euskal Herrian Euskaraz. Jendartearen aldean doan heinean euskararen bueltan lanean diharduten eragileak ere aldeketa horietara egokitzea "ezinbesteko" ikusten zutelako abiatu zuten hausnarketa. "Nazio mailako lanketa izan zen. Militante ohiak eta gaur egungo militanteak elkartu eta EHEren gaineko iritzia jaso genituen", dio Agirrek. Orduan, behin-behineko txostena onartu zuten, eta ordutik jasotako ekarpenak aintzat hartuz behin betiko dokumentua onartzeko hitzordua izango dute urtarrilaren 28an. Egun horretan nazio batzar irekia egingo dute Altsasun.

'Gaztiok euskaraz bizitzera goiaz' Arrasatera etorrira, sanjuanetan abiatutako *Arrasateko gaztiok euskaraz bizitzera goiaz* kanpai-

Urteurreneko ospakizunak

Urtarrilak 20

- **22:30** Kontzertuak: Iker Lauroba eta Leire Leturia eta Kamareroiak (Jai Zaleko tabernariak).

Urtarrilak 21

- **12:00** Bertso saioa: Julio Soto eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Beñat Zamalloa.
- **13:00** *Arrasateko gaztiok euskaraz bizitzera goiaz!* kanpaina borobiltzeko bideokliparen grabaketa. Ondoren, luntx irekia.
- **18:30** Trikiti saioa: Leire Etxezarreta eta Eider Garro.

Urtarrilak 22

- **Goizean** Pintxo-pote berezia.
- **18:30** Berri Txarrak taldearen bertsoak zuzenean.

na borobildu egingo dute bihar, bideoklip baten grabaketarekin. Kanpaina aurkeztu zutenean argi utzi zuten: "Aurreko belaunaldiek sortutako Arrasate euskaldunaren aldarrria gure egin eta norbanakoen konpromisotik jauzi kolektibo bat egitera goaz herri euskaldun baten bizitzeko". Arrasateko euskararen ezagutza maila aintzat hartuta, EHEk uste du badaudela baldintzak Arrasate euskaldun baten bizi ahal izateko: "Ez gara gaur egungo egoeraz konformatzen. Gazte eleantzik izan gaitzke Arrasate euskaldun baten".

Euskaraz Bizi Eguna martxoan

Euskal Herrian Euskaraz taldearen nazio mailako Euskaraz Bizi Eguna Arrasaten egingo da martxoaren 18an. Aurreko ikasturteko gogoeten osteko txostena aurkeztuko dute: "EHE berria eta gaurkotua aurkezteko eguna izango da, plazera izango da, aurtzen nazio mailako egun berezi hori Arrasaten egingo delako". Egitaraua ez dute oraindik zehaztu, baina aurreratu dute "ekintza potoloak" antolatuko dituztela umeendako, gazteen dako eta helduendako.



Herritar batzuk BAZen astean; astelehenetik egubakoitzera, 200 pertsona pasatzen dira bertatik, batez beste. JOKIN BEREZIARTUA

BAZ: hamarkada bat arrasatearren zerbitzura

Biztanleen Arreta Zerbitzua oso errotua dagoen seinale, gaur egun, aste barruan, batez beste, 200 herritar pasatzen dira bertatik egunero denetariko tramiteak egiteko: Udaleko sarrera erregistroa egitea, kexak jartzea, TAO txartela berritzea...

Jokin Bereziartua ARRASATE

2006ko uztailean ireki zen Biztanleen Arreta Zerbitzua (BAZ), eta gaur egun pentsaezina izango litzateke Udalak ez izatea BAZ moduko gune bat. Askok eta askotarikoak direlako arrasatearrak bertan egin ditzakeen tramiteak: Udaleko sarrera erregistroa egitea, kexak zein iradokizunak bidaltzea, obra txikietarako lizentziak eskatzea, galdutako objektuak eramatea –arruntak direnak, arropa edo giltzak kasu, erregistratu eta bost hilabetez egoten dira BAZen ikusgai; objektu baliotsuak, berriz, eraman duen herritarrari ea bueltan jaso gura duen galdetzen zaio, baldin eta bi urteko epean jaberik agertzen ez bada–, Udaleko material ezberdina jasotzea, Hondakin Bulegoko tramiteak egitea, TAO txartelak berritzea egoiliarrentzat –egunotan buru-belarri dihardute tramite horiekin–, Udaleko zein udalerriko informazio orokorra jasotzea, hilerriko zerbitzu orokorrak... Kexak ere egune-

rokoen artean daude, egunero lau edo bost jasotzen dituzte. Herritarrek BAZen bertan, telefono bidez, idatziz, *on line* edo posta elektronikoz helarazi dezakete kexa.

Udala arinduz, zerbitzua hobetu

Herritarrei zerbitzu hobea emateko sortu zen BAZ. "Batetik, Udalaren lana arintzeko egin

zen eta baita udaletxetik kanpo irisgarritasuna bermatzeko ere; askotariko zerbitzuak ematea izan zen asmoa, herritarra leihatilaz leihatila joan beharrean leku berean egiteko tramite guztiak", dio Edurne Muxika arduradunak. Gainera, Diputazioarekin eta Jaurlaritzarekin erregistro bateratua izanda, lehen bi erakunde horietan egin beha-

Zer egiten da kexekin?

Herritarrak kexa helarazten duenean, BAZen aztertzen dute Udaleko zein departamenturi dagokion. Programa berezi baten bidez editatzen dute kexa eta automatikoki iristen da dagokion sailera. Ondoren, saileko arduradunari dagokio programa beraren bidez erantzutea, kexa horren egoera ze puntutan dagoen zehaztuta. "Programa berezia, gardena eta egokia da", dio Muxikak. Astean behin alkateari ere pasatzen zaizkio kexa guztiak.

rrekoak ziren zenbait tramite orain BAZen egin daitezke.

Bestalde, datu esanguratsu bat da BAZetik pasatzen den herritar kopurua. Hasierako urteetan egunero 100 herritar inguru pasatzen ziren, batez beste, eta gaur egun kopuru hori bikoiztu egin da. Hau da, astelehenetik egubakoitzera, egunero 200 herritar pasatzen dira bertatik, batez beste; zapatuetan, berriz, 45 herritar inguru pasatzen dira.

Telematikarako jauzia

2017rako, "iraultza" dator: "Egun, tramite batzuetarako kanalak presentziala eta telefonikoa dira. Aurrerantzean, kanal telematikora egingo dugu salto; hau da, herritarrak hona etorri beharrean, nahi duen lekutik eta automatikoki egin ahalko ditu tramite mota horiek; erantzuna ere kanal beretik jasoko du".



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Balindatik alotipora

Ikastolakumiok berbakera barrixe asmau gaueneko 40. urteurrena bete dala esango neuke, euskara batuak eta tokixan tokiko euskariak bat egin euen geure orduentzeko ikastoletan. Elkartruke horretatik eta gaztelerak euken eraginari esker be *Balinda* moruko esamoldiak asmau gittuen. Beste asko be entzuten zien: gitarria ikutu, eurixe dabil, hobiaue da, ikusi dotsut, eta danen gaiñetik lehen aittatutako Balinda fan, Balinda egin... famaue.

Gaur egun geure gazte askoren kultura erreferenteak erdara mundutik datozenez, arrasto nabarmena uzten dau ebalten dauen euskerian be. Ezaugarri batzuen artien ahal dot esan a lo nahasketa bat dala tipo euskanoñ, en plan balinda baiña más salvaje. Arabiar puntu bat be badauko: ahal naz fan, ahal dot zabaldu, ahal dozu egin...

Beste ezaugarri bat aberatsa baiño pobrie dala esango neuke, eskekue da: es ke Markelek esan dau, es ke holan da... eta antza danez be ez dau oso osasuntsu: si da neuk esan doten moruen, si dau txarto...

Eskerrak Soziolinguistika Klusterrak 2014an Arrasaten emundako datuen arabera kaleko erabillera 1988tik 2013ra ; %14tik %34ra igo dan porque si no vamos listos.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta

&

arrasate

beinke

Zuhaitz feria, urtarrileko azokan errotzeko bidean

Urtarrilaren 21ean egingo da eta Euskal Herriko onenen artean dauden sei mintegi ekarriko ditu Udalak; aurtengoa laugarren edizioa izango da, eta aurrekoak ondo joan dira: "Arrasatekoa ez da Tolosakoa edo Markinakoa moduko plaza, baina saltzen da"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Urtarrilaren 21ean egingo da aurturteko zuhaitz feria, azken lau urteetan egin den moduan, baserritarren azokarekin batera. Arbolak salgai egongo dira 08:00etatik 14:00etara. Arrasaten garai batean egiten zen zuhaitz feria, baina, hainbat urtetako etenaldiaren ostean, Udalak 2014an berreskuratu zuen zuhaitz azoka. Laugarren edizio honetan, Euskal Herriko sei mintegi onenetakoak etorriko dira eta Udalak aditzera eman ditu horietako bakoitzaren kontaktuak, gura duenak enkarguz eskatu gura badu: Zaldibarko Areitio (608 879 352), Igorreko Artadi (680 937 875), Zaldibarko Belar (629 484 151), Gatikako Etxebarria (646 514 154), Zarauzko Lurberry (657 719 685) eta Arrasateko Udalatx (690 610 822).

Debagoienerako egutegi bat

Tolosakoa edota Markinakoa moduko zuhaitz feria entzutez bat lortzea zaila izango dela aitortu arren, Udalari gustatuko litzaioke, "apurka-apurka", bai-laran zuhaitz azokan egutegi bat ezartzea. Horrez gain, lehen sektorea bultzatzea ere badu helbu-

ru ekimenak. "Espero dugu giro ona sortzea, debagoiendarrek baserritarren azokaz eta zuhaitz feriaz gozatzea", gaineratu dute.

Askotariko espezieak

Eskaintza zabala izango du zuhaitz feriak espezieei dagokienez: fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak, lorategietako landareak, basoko fruitu txikiak eta ekologikoak. Kontuan hartzekoa da, aldi berean, Seber Altube plazara etorriko diren mintegi guztiek ekoizpen propioa dutela; hau da, ez direla bitartekari soilak.

Udaleko Ingurumen Saileko Pello Garaik nabarmendu duenez, gainera, herriko bertako mintegi batek ere hartuko du parte; gaur egun mintegia Gesalibar auzoan duten Udalatx mintegikoek basoko fruitu txikiak eta ekologikoak ekarriko dituzte feriarra. Udalak zuhaitz

EUSKAL HERRIKO ONENEN ARTEAN DAUDEN SEI MITEGI ETORRIKO DIRA SEBER ALTUBERA

feria urtarrilean antolatu gura du datozen urteetan ere, hila-bete hori delako landatzeko aproposena: "Kanpoan hotz egin arren, lur azpian epelago egiten du, eta, zuhaitzak orain landatuz gero, udaberrirako sustraiak hedatuago eta indartsuago egongo dira. Martxoan landatuta ere loratuko du, baina sustraiak ez dira horren hedatuta egongo". Aurreko edizioak ondo joan dira, Garairen arabera: "Ez da Tolosakoa edo Markinakoa moduko plaza, baina saltzen da. Baserritarrez gain, etxebizitza familiabakarrak dituztenek ere erosten dute. Azoka bukatu aurretik galdetu izan dudanean, erantzun positiboak jaso izan ditut. Pentsa, euria eten barik egin zuen urtean ere nahiko ondo saldu zutela esan zidaten".

Biteriko lehen azoka bihar

Bestalde, bihar estreinatuko da Biteri plazako elikagaien azoka. Esperimentu moduan jarriko dute, nola funtzionatzen duen aztertzeko. Udal Gobernuak uste du herritar batzuek ordutegi kontuengatik ezin dutela eguazten eta egubakoitz goizetan Azoka Plazan erosketarik egin.



Iglesiasen omenezko irudi berria

"Hanka sartze" baten ondorioz aurreko irudia ezabatua izan ostean, Joseba Iglesiasen omenezko mural berria egin zuen AGAKOk joan den zapatuan. Gaztetxeko kideek ez dute baloraziorik egin nahi izan azken egunotan sortu den zalapartaren gainean, eta, aurreko muralaren "jarraipena" margotuta, espero dute auziak zeresan gehiago ez ematea.

Bilborako dei egin du Sarek; autobuserako sarrerak salgai daude

Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea lelopean, euskal presoek eskubideen defentsan Sare plataformak antolatu duen Bilboko manifestaziorako -Casillatik, 17:30ean- dei egin eta autobusak antolatu ditu Arrasateko Sarek. Txartelak Kajoi, Bengoa, Taupa, Irati eta Iluntz tabernetan daude salgai, hamar eurotan; autobusak 15:00etan irtengo dira Garibai geltokitik.

Bilboko manifestaziora ahalik eta herritar gehien erakartzeko, Sarek ikus-entzunezko bat kaleratu du asteon, abenduaren 30ean egindako elkarretaratze berezian hartutako irudiekin. Urteko azken egubakoitza izanik, 400 herritar inguru elkartu ziren ekitaldi hartan.

Mozambique iparreko garapena bultzatzeko programarekin bat

"Arrasateko Udalak 15.000 euroko ekarpena egingo du urtero eta bere konpromisoa agertzen du, garapenerako lankidetzara bideratzen diren errekurtsioak legealdi bukaerarako aurrekontu garbiaren %0,7ra iritsi dadin". Hala gauzatuko da Udalaren, eta Mundukide eta Harreman erakundearen artean atzo, eguena, sinatu zuten hitzarmena, Mozambique iparraldeko garapen sozioekonomikoaren programara atxikitzeko. Programa horren helburua da "Mozambiqueko herritarrek errenta sortzeko duten gaitasuna handitzea eta berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako garapen ekonomikoa sustatuz, bertako bizilagunen autonomia lortzea".



Arrasateko Udalatx mintegiaren postua izazko zuhaitz ferian. GOIENA

ARRASATE IRRATIA



Su Ta Gar taldearen kontzertu berezia berbagai

Su Ta Gar taldeak urtarrilaren 21ean kontzertu berezia eskainiko du Amaia antzokian (20:00). Datorren astean *Igo autobusera!* saioan egongo dira kontzertuaren nondik norakoak azaltzen; sarrerak zozketatuko ditugu hilaren 20an. Parte hartzeko, 943 25 05 05 telefono zenbakira deitu edo irratia@goiena.eus helbidera idatzi.

Kooltur Ostegunetarako sarreren zozketa

Kooltur Ekintza taldearen Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, Bergarako What A Band taldeak country rock doinuak eskainiko ditu hilaren 19an gaztetxean, 22:00etan. Sarrerak zozketatuko ditugu egun berean; parte hartzeko: 943 25 05 05 edo irratia@goiena.eus.



Bertako Irogailuak enpresako Joseba Lopez langilea, autoarekin, Garaian ateratako argazkian. BERTAKO IGOGAILUAK

2015eko irailean irten zen merkatura gaur egun 300 bezeroren igogailuen mantentze-lanak egiten dituen Bertako Irogailuak enpresa. Azken urtean Euskal Herri mailan mantentze-lanetan gehien hazi den enpresa da, eta aipatzekoa da, esaterako, Debagoieneko bezeroek emandako erantzun ona; izan ere, horrek Arrasaten teknikari berri bat kontratatzea ahalbidetu die.

Lehenbizi Gipuzkoan soilik hasi arren, Bizkaira eta Araba ere zabaldu da enpresa, eta bertan ematen duten zerbitzua Gipuzkoan ematen duten kalitate bereberkoa da. Hizkuntzari behar duen garrantzia ematen diote, gainera. "Arabian, esaterako, aurrekontua eskatzen diguten bezeroak harritu egiten dira aurrekontua, kontratua... euskaraz eskaintzen diegunean. Ez daude ohituta beste enpresekin euskaraz tratatzen eta, era berean, komertzialekin eta teknikariek ere euskaraz hitz egitera... Orain artekoak ikusita bezeroen erantzuna ona dela ikusi dugu honen aurrean", adierazi du Ibai Salazarrek, Bertako Irogailuak enpresako ingeniariak.

Bertakoa eta gertukoa

Bertako Irogailuak enpresak zerbitzu ezin hobeak eskaintzen ditu, eta zerbitzu profesional baten aldeko apustu irmoa egiten du, baina, batez ere, bezeroa oinarri izanda. Izan ere, orain arte egindako lanarekin, 300 bezero batzea lortu dute

Bertako Irogailuen onurak

Bertako Irogailuek beste enpresekiko dituzten ezberdintasunak honako hauek dira: 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute Bertako enpresakoek; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte. Kontuan izan behar da enpresa askok

ABISU GUZTIAK ERANTZUTEN DITUZTE 24 ORDUETAN, URTEKO EGUN GUZTIETAN

24 orduko zerbitzua izan arren, asteburu eta jaiegunetan 13:00etatik aurrera larrialdi deiei bakarrik erantzuten dietela eta astean zehar 21:00etatik aurrera ere ez dituztela abisu guztiei erantzuten. Bertako enpresak, berriz, abisu guztiak erantzuten ditu asteleheneetik domeketara, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Bestalde, bezeroen askatasunaren aldeko apustua egiten dute. "Tamalez, bezero asko preso sentitzen dira hiru, bost eta hamar urteko kontratuekin. Gurean, baina, urtebeteko kontratuak egiten ditugu; bezeroa engainatu barik, askatasuna eman nahi

diogu horrela, eta urte bat pasa ostean nahi duen erabaki aukera errespetatzen dugu.

Prezioari dagokionez, batez beste, piezak barne dituzten kontratuak 100 eurotik aurrerakoak dira, eta prezio horren barruan telefono linea integratuta dator.

Zerbitzu berriak

Bertako Irogailuak enpresak txikia ematen duen arren, punta teknologia eskaintzen du. Orain, adibidez, *pasarela* deritzon sistema ari dira igogailu batzuetan instalatzen. Horrekin, bezeroak igogailu bat gelditu dela sumatu aurretik, sistema baten bitartez abisua jasotzen dute langileek eta arazoa konpontzera joaten dira. Era berean, igogailu berrien instalazioak ere egiten hasi dira, eta dagoeneko hasi dira Ibarra eta Oñatin egingo diren instalazio berrien antolakuntzan.

Dituzten zerbitzu guztiak ordu erdiko epean emateko aukera eskaintzen dute. Izan ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, lau zonatan banatuta daudenez, larrialdi guztietara lehenbailehen iristeko aukera dute.

Gertutasuna eskaintzen dute

Bertako enpresako kideek argi daukate Euskal Herrian jaiotako betiko enpresek oso zerbitzu ona ematen dutela, baina gertutasunean oinarritutako zerbitzu profesional baten aldeko apustu irmoa eskaintzen dute eurek. Eurentzat, bezeroak ez dira zenbaki soil bat, eta jabeen komunitate guztiekin erlazio oso estua dute. "Orain arte batutako esperientziarekin eta lanarekin, akatsak egin arren, aurrera atera dugu proiektu hau, eta, azkenengo urtean eginiko 300 bezeroei esker, zerbitzu hobea eskaintzeko aukera daukagu". Aurten, teknikari berriak kontratatu dituzte, gainera, eta osatutako lantalde ezin hobea finkatu dute. "Arrasateko eta Anoetako lantokiez gain, Araban eta Bizkaian ere zabaldu ditugu lan zentroak eta eskualde hauetan izandako harrera ezin hobea izan da".

Hasiara batean, izen komertziala Bertan zen, eta Bertako izatera pasatu da; era horretan, bertakoak direla azpimarratzeko. Bertan lanean dihardutela eta euren independentzia mantenduko dutela bezeroei eskaintako zerbitzuak mantentzeko eta hitza betetzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUA

- Hileroko ikuskapena
- 24 orduko asistentzia
- Pieza originalak
- Euskarazko zerbitzua
- Telefono linea
- Gertutasuna

Dena 100 eurotik aurrera iraunkortasun gabeko kontratuekin.



Bi urtean behin antolatzen den *Aiba!* mendi martxa izango da 2017an zeresana emango duen ekintzetako bat. GOIENA

Erronkaz eta proiektuz betetako urtea aurretik

Etxezarreta proiektua guztiz gauzatzea, Monterron abiapuntu izango duen PR ibilbidea aurkeztea eta prestatzea, 'Aiba!'-ren itzulera eta Mondran Bikeri distira handiagoa ematea dira 2017rako Besaide Mendi Elkartek finkatutako helburu nagusiak

Xabi Gorostidi ARRASATE

2017a urte emankorra izango da Besaide Mendi Elkartea osatzen duten kideentzako. Proiektu eta erronka ugari dituzte mahai gainean, betiere, mendizaletasuna bizirik eta osasuntsu mantentzea xede hartuta.

Partaide aldetik osasuntsu

Gaur egun 1.600 bazkide inguru ditu Besaide Mendi Elkartek, eta horietatik 902 federatuak dira. "Krisi ekonomikoaren eraginak nabari izan ditugu, bazkide kopuruak behera egin baitu azkenaldian. Baina, hala eta guztiz ere, Euskal Herri mailan bazkide kopuru handienetakoa daukagu Arrasaten", azaldu Aitor Zubiaga presidentek Arrasate Irratian egindako elkarrizketan.

Kopuruak behera egin duen neurrian, Zubiagaren ustez, garrantzitsua da gazteengan mendizaletasuna sustatzeko ahaleginak egitea. "Gure umeak eta gazteak mendizaletasunera ger-

turatzea erronka bat da gaur egun. Lehen, belaunaldiz belaunaldi naturalki transmititzen zena gaur egun ez da hain erraza. Horrenbeste aisialdi aukera egonda, zailtasunak ditugu hori lortzeko".

Bi proiektu izar

Etxezarreta proiektua da lehena, eta Monterron abiapuntu izango duen PR mendi ibilbidea bigarrena.

Etxezarretari buruz galdetuta, proiektuak izandako babes zabal nabarmendu zuen Zubiagak. "Ingurumena, aisialdia eta kultura barne hartzen dituen proiektua da, eta adostasun maila handia pilatzea lortu du. Akaso, ez da oso garbi irudikatuta, aurrekontuen bozketan beste hainbat kontu zeudelako, baina atzean duen adostasun maila hori ezinbestekoa da".

Orain, Arrasateko Udalak alderdi tekniko eta administratiiboak guztiz lotuta uztea falta da egitasmoa errealitate bihurtzen

hasteko. "Momentu tekniko baten sartzen gara, txostenak egin beharra dagoelako. Hala ere, guk prozesua gertutik jarraituko dugu, betiere, laguntzeko prest. Prezioari dagokionez, negoziaketa nahikoa aurreratuta dagoela esan daiteke", adierazi du Zubiagak.

Bestalde, Anporretako tontorra erosterakoan iragarritako PR ibilbidea homologatzea izango da beste zeregin garrantzitsu bat. Apirilean egingo dute aurkezpena, Gipuzkoako Mendi Federazioa tarteko, eta ondoren etorriko dira panelak, zutabeak, margoak eta markak finkatzea. Honela azaldu du proiektu honen helburu nagusia Zubiagak: "Azkenaldiko gure nahietako bat

ETXEZARRETA ETA MONTERRONDIK ABIATUKO DEN PR-A IZANGO DIRA 2017KO PROIEKTU NAGUSIAK

izan da, autoa hartu behar gabe, Monterron abiapuntu izanik, Arrasatearrei mendizaletasuna garatzeko aukera polit bat ematea. Monterrondik irten eta Hildalgobaso, Mojategi, Anporreta, Iturritxipigaina, San Balerio zeharkatu dituen ibilbidea izango da".

Urte osoko egitarau zabala

Besaide Mendi Elkartean webgunean ikusgai dago urte osorako prestatu duten egitarau oparoa. Ekintza guztiak banan-banan ez aipatzearen, horietako batzuk nabarmendu zituen Zubiagak.

Lehenik, Artzaintzaren ibilbideari jarraipena emanez, 2017rako zazpi etapa antolatu dituzte. "Betidanik gure inguruan egon den mendizaletasun filosofiari eusten dion ekimena da", Zubiagaren hitzetan.

Aipamen berezia merezi du ere *Aiba!* mendi irteerak. Bi urtean behin antolatzen den mendi martxa arrakastatsua ekainaren 4an egingo da. "Beti diot ingurune pribilegiatuan bizi garela, eta *Aiba!* horren erakusle garbia da. Bailara ederra daukagu, eta, antolatzaileoi lan handia egitea tokatzen zaigun arren, gozatu itzela hartzeko aukera izango dugu ekainean". Irageanean, Hiru Handiak lasterketaren urte beretan egiten zen, baina, hiru urteko geldialdia egin ostean, urte bakoitietan egingo da aurrerantzean.

Besaide Mendi Elkartetik nabarmendutako beste ekimene-tako bat Mondran Bike Arrasateko MTB martxa izan zen. "Seguruena, urteko ekintza indartsuenetakoa bilakatu da. Erabat arrakastatsua. Aurtengo edizioari beste distira puntu bat eman nahian gabiltza. Oraindik asko falta da irailaren 23ra arte, eta ez dut ezer aurreratu nahi, baina hori da gustatuko litzai-gukeena".

Aipatutako ekintzez gain, beste hainbat antolatu dituzte urte honetarako. Batzuk aipatzearen, Guadarramako mendizerrara irteera apiril bukaeran, maiztean egingo den Mendi Tour eta Kantabriako mendiak ezagutzeko irteera uztailen.

Batzar orokorra ate joka

Besaideko bazkideek hitzordu garrantzitsua izango dute hilaren 26an, 19:00etan, Kulturaten egingo den batzar orokorrean.

Zumaiakori aurre hartzeko aukera bihar Mojategin

Mondrako neskek Zumaiako taldearen aurka jokatu dute zapatuan. Mojategin izango da partidua, 18:30ean.

Norgehiagoka garrantzitsua izango da, garaipena lortuz gero Zumaiako taldearen aurretik jarriko baitira sailkapenean. Oraingoan, Zumaiako bosgarren da 19 punturekin eta Mondra seigarren 17rekin.

Ford Mugarrik Pulpo taldea hartuko du etxean bihar

Gabonetako geldialdiaren ondoren, Ford Mugarri taldeak Pulpo KE taldearen aurka neurtuko ditu indarrak zapatuan, 18:00etan, Iturripe kiroldegian.

Ia hilabete partidurik jokatu gabe egon ondoren, garrantzitsua izango da 2017a garaipen batekin hastea sailkapeneko aurrealdeko postuetan mantentzeko.

Laugarren, sailkapenean

Patxi Gartziak zuzentzen duen taldea sailkapeneko 4. postuan heldu zen Gabonetako geldialdi-dera. Zortzi garaipen, berdinke-ta bat eta lau porrot pilatu dituzte 13 jardunalditan. 17 punturekin berdinduta daude hiru-garren sailkatuarekin.

ARTk etxetik kanpo jokatu dute partidua zapatuan

Josu Iasiren mutilek Funes Rugby taldearen etxean jokatu dute bihar, arratsaldeko laurretan.

Arrasatearrak sailkapenaren buruan iritsiko dira, eta konfiantzaz beterik; izan ere, azken norgehiagokan 101-0 menderatu zuten Funesen aurretik dagoen Nerbioi taldea. Elorriarrak dira sailkapeneko bigarrenak 29 punturekin, eta, beraz, haiekiko duten bost puntuko aldea mantentzeko garaipenaren bila aterako da talde zuri-morea.

Urtea zoriontzeko bideoa

Hilaren 1ean Udalatz puntan grabatutako bideoa da, eta ARTren webgunean dago ikusgai.



Bederatzi erakusketa izan ziren 2016an Kulturaten. GOIENA

"Kulturateko zerbitzuak jende ugari erabili ditu"

Jon Garai Arrasateko Kultura teknikariburuaz gustura azaldu da Kulturate gunean 2016ak eman duenarekin; urte osoan jende asko ibili dela dio eta 2017ari begira herritarrendako gertuko kultura zentroa izaten jarraitzea izango da helburua

Eneko Azurmendi ARRASATE

2016a urte oparoa izan da Arrasateko Kulturate zentroarentzat.

Jon Garai Kultura teknikariburuaren esanetan, herritarrentzat eredu da gaur egun zentroa, kultura arloan. "Gustura gaude urteak eman duenarekin. Kulturaten dauden zerbitzuak asko erabili dira eta jende ugari, gainera. Arrasateko kultura gune esanguratsua eta erreferentzia da", azpimarratu du kultura teknikari buruak.

Bederatzi erakusketa desberdin izan ziren 2016an kultura

zentroan, gai ezberdinak landuta. "Alde batetik, Udalaren informazio publikoa behar duten erakusketak izan dira, hirigintza proiektu jakin batzuei lotutakoak. Bestetik, artearekin eta kulturarekin lotutakoak. Gainera, gure herriko historia gertukoarekin zerikusia izan duen erakusketa bat ere izan dugu", adierazi du Garaik.

Arrakastatsuenak

Arrakasta handien izan duten erakusketak, Garairen arabera, Vasco-Navarro trenaren erakus-

keta, Rockomikiak, Zabor zuriarena, margo taldearen erakusketak eta Beart-ena izan dira.

2017an, 10 urte

Iazko urtea arrakastatsua izan ostean, aurtengoa ere -10. urteurrena beteko du 2017an- halakoa izatea gustatuko litzaioke kultura teknikari buruari. "Arrasatearrentzako gertuko kultura zentroa izaten jarraitu gura dugu, bertako eragile, talde, elkarte eta norbanakoen topaleku eta adierazgune, informazio gune eta hainbat ekimenen agerleku".

ArtGazki sariketako obrak, ikusgai

ArtGazki elkarteak antolatutako udazkeneko argazki lehiaketako lanak ikusgai egongo dira gaur, egubakoitza, hasi eta urtarrilaren 28ra bitartean. Erakusketa astelehenean egubakoitzera irekita egongo da, 17:30etik 20:30era.

Lehiaketan parte hartu zuten argazki guztiak, 44 lan guztira, salgai egongo dira, 50 eurotan. Bertatik ateratako dirua ASPANOGI

Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartera bideratuko da.

Argazki irabazlea Amaia Arzamendirena izan zen, *Perretxikoa* izenekoa, Urbiara bidean ateratakoa. 300 euro irabazi zituen Arzamendik. Bigarren saria -200 euro- Andoni Iñarraren *Haizearen Menpe* argazkiak eraman zuen eta hirugarrena -100 euro-, Iñaki Nuñezaren *El Bosque* argazkiak.



Perretxikoa. AMAIA ARZAMENDI

'Gu' haurrentzako antzerkia bihar, zapatua, Amaia antzokian

Borobil Teatroaren eskutik, haurren entretenimendurako emanaldia izango da, 17:00etatik aurrera

E.A. ARRASATE

Gu (Ez gaude bakarrik) izeneko antzezlanaren egongo da bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etatik aurrera.

Bost urtetik gorako haurrei eta gurasoei zuzendutako emanaldia da Borobil Teatroak aurkezten duen lana, 50 minutu inguru irauten duena.

Anartz Zuazua aktorearen zuzendaritzapean, antzezlanaren parte hartzen duten aktoreak Asier Sota, Julen Vega, Imanol Espinazo eta Hannah Berry dira.

Honela definitzen dute obra: "Mundua kolorez eta animaliaz beteta dagoen leku eder bat da. Gizakiak, naturaren parte bezala, bere ingurunea errespetatu eta zainduko du, baina momentu batean tximiniak eraikitzen hasiko da eta tximiniak dirua emango dute. Diruarekin dena lortu daitekeela sinetsiko du. Baina lortuko duen gauza bakarra mundua kolorerik gabe uztea izango da".

Sarrerak 5 euro balioko du, momentuan bertan.



Gu haurrentzako argazkia. BOROBIL TEATROA

Aratusteetako kartel lehiaketa martxan da dagoeneko

Urtarrilaren 31 izango da kartelak entregatzeko azken eguna; irabazlearentzat 400 euroko saria egongo da

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udalak eman ditu Aratusteetako kartel lehiaketan parte hartzeko oinarriak.

Debagoienean erroldatuta dagoen edonork hartu ahal izango du parte.

Formatuari eta neurriei dago kienez, kartelak bertikala izan behar du eta 50 x 70 zentimetrokoa; euskarri informatikoan, *pendrive* edo CDan, aurkezten dutenek, gutxienez, DIN-A3 tamainako paperean ere inprimatuta aurkeztu beharko dute kartela.

Parte hartzen duten lanak originalak izatea eskatzen du Udalak eta derrigorrez ondorengo esaldia eduki beharko dute: *2017 Inauteriak Arrasate*. Gainera, jai honen gaineko ezaugarriren bat jaso edo adierazi beharko dute. Azkenik, autorearen izenak garbi agertu beharko du.

Esan bezala, kartelak aurkezteko epea urtarrilaren 31ra arte egongo da zabalik -19:00-. Beraz, data hori baino lehen Biztanleen Arreta Zerbitzura eraman beharko dira lehiaketan parte hartu nahi duten lanak.



Kuatruenen umeentzako jolas-parkea egingo da, eta Apotzagan konponketa lanak. IMANOL BELOKI

"Orekatua" da herriko egoera ekonomikoa

Bi batzordetan izan dira aldaketa nagusiak: alde batetik, Kultura, Euskara eta Kirol batzordean; eta, bestetik, Gizarte Zerbitzu eta Integrazio batzordean. Biek igoera nabarmena izan dute, gastu arruntetan murrizketa batzuk eginda etorri direnak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak abenduaren 20an onartu zuen 2017ko aurrekontua -5.374.298 eurokoa-, iaz baino %8 handiagoa.

Eskoriatzako udalbatzak, alderdi jeltzalearen eta Elizateen aldeko bozekin eta EH Bilduren eta Irabaziren abstentzioekin, onartutzat eman zituen 2017ko aurrekontuak. Udal Gobernuak EH Bilduren eta Irabaziren eskaerak aurrekontuen proposamenen ezarri ditu, beraiek aurrez pentsatuta zuten inbertsio nagusia -Alberja zaharra konpontzea- alde batera utzita. Hala, horretarako erabili behar zen dirua oposizioko alderdien eskaerak betetzeko erabiliko da. Joserra Zubizarreta alkatearen esanetan: "Bilduk karpa bat erostea eskatu du eta prekarietatearen mapa egitea proposatu du, herrian beteta ez dauden behar

basikoak edo herritarrek izan dezaketen oinarriko beharrak aztertzeke. Ikerketa hau, hasiera batean, Gizarte Zerbitzuko teknikariek egingo dute. Irabazik, berriz, jasangarritasun politika indartzeko hainbat proposamen egin ditu, baita larritasun egoeran dauden langabeziatzat lan-poltsa sistema berria definitu eta diruz osatu ere. Azkenik, oposizioko alderdiek komertzio mahai bat osatzea proposatu dute, herrian bertan erosketak bultzatzeko asmoarekin. Proposamen horiek guztiak onartu egin ditugu. Esan behar

ESKORIATZAKO EGOERA EKONOMIKOA EZ DA TXARRA EZTA OSO ONA ERE, OREKATUA DA

rra dago guztiak, karparena izan ezik, gure hauteskondeetako programan agertzen zirela".

Inbertsio nagusiak

Inbertsioen atalean, Kuatruenen haurrentzako jolas-parke berria egingo da, udaberrirako prest izatea aurreikusten dena. Aurrena, auzokideekin proposamena jorratuko dute, herritarrek zer jartzea nahi duten jakiteko. "Apotzagan, berriz, dagoena konpondu edota berrituko da, herri osoko beste parkeetan egin den moduan". Bestalde, Dorletan unibertitate parean dagoen espaloia konpondu eta elizateetan hainbat lan egingo dira.

Inbertsioak egiteko, berriz, herritarrek egiten dituzten eskaeretatik hasiko direla azaldu du alkateak. "Herritarrek proposatu, guk aztertu eta, posible bada, aurrera egiten da".

"Aurrekontuak planteatzerakoan oinarria diru-sarrerak izan dira"

JOSERRA ZUBIZARRETA ESKORIATZAKO ALKATEA

Iazkoekin alderatuta nolakoak dira aurtengo aurrekontuak?

Aurrekontuez hitz egitekoan, lehenengo aldaketa egiteko era izan da. EAJ-PNVko taldeak proposamen irekia planteatu die talde desberdinei euren ekarpenak jaso ahal izateko. Horren ondorio nabarmenak bi izan dira: alde batetik, beste talde politikoen hainbat proposamen onartu dira, eta, beste aldetik, oposizioko taldeen abstentzioa lortu da; aurreko urtean kontrako botoa eman

zuten. Aurrekontuak planteatzerakoan oinarria diru-sarrerak izan dira, eta, bestetik, 2016ean zer-nolako gastuak izan diren oinarria hartuta. Beraz, aurrekontuak egiteko baldintza horiek kontuan hartuta gauzatu dira. **Nola lortu da aurrekontuen kopuru orokorra handitzea?** Orokorrean, ez dugu diru-sarrera igoerarik



I.B

aurreikusten, %0,8 baizik, eta beste erakundeetatik espero dugun diru laguntzen igoeretatik etorriko da igoera txiki hori; Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik, gehienbat. Zergak ez dira igo, kirodegiko eta ur tasak bakarrik, zerbitzu horien kostu errealeak pagatzeko beste. Uraren kasuan, gainera, tarifazio aldaketa egin da: datorren urtean kontsumo gutxi edo batere ez daukaten herritarrek gutxiago pagatuko dute, eta, beste aldetik, kontsumo oso altuak zigortuko dira, gure jasangarritasun politikaren alde jorratuz. Azkenik, IBI edo etxebizitza gaineko zerga egokitu egin da, kasu batzuetan behera eta beste batzuetan gora, Aldundiak egindako azken jabetasun balorazioaren arabera.

Zein batzordetan dago aldaketa handiena?

Batez ere, bi batzordetan daude aldaketa nabarmenak: alde batetik, Kultura, Euskara eta Kirol batzordean, eta, bestetik, Gizarte Zerbitzu eta Integrazio batzordean. Biek igoerak izan dituzte; bereziki lehenak. Dirua gastu arruntetan murrizketak eginaz etorri da.

Inbertsioetara bideratuko diren kopuruak, kontuan hartuta gero egokitu egin daitezkeela partidak, zeren arabera daude proposatuta?

Inbertsioen aurrekontuak teknikarien balorazioaren arabera egiten dira, aurretik egindako antzerako lanekin konparatuz. Beraz, aurrena etxean egiten ditugu aurreikuspenak eta ondoren bideratu egiten dira.

Egoera ekonomiko orekatua

Eskoriatzako egoera ekonomikoa ez da txarra, ezta oso ona ere; orekatua dela azaldu du Udal Gobernuak: "Askotan esan bezala, gastu finkoek aurrekontuen zati dezente eramaten dute. Diru-sarrera Fondo Forala partidaren zati handi batean oinarrituta dago, eta honek bere gorabeherak izaten ditu, Aldundiak duen diru-bilketaren arabera baita". Bestalde, alkateak adierazi du zorra jaso zutelako aurreko legealditik, eta zaintze-

ko kontua dela hori. Hala ere, gaur egun, interesen tipoak baxuak direla adierazi du eta hori, "zorionez", ona dela.

Dirua zaintzea beharrezkoa

Dirua behar den moduan gastatuta eta eguneroko kontrol zorrotza eginez proiektu asko aurrera ateratzea posible izango dela dio: "Hor dago gure lan nagusia. Hori, eta udal teknikariak diru laguntzak eskuratzeko sortzen diren aukera guztiez ondo baliatzen direla ere".

**BALORAZIOA
EH BILDU**

Aitor Zubizarreta. EH Bildu

**Balorzio
gazi-goza
egiten dugu**

Aurrekontuen balorzio gazi-goza egiten dugu EH Bildutik. Gazia, aurrekontuak herrira eta batzordeetatik pasa ez izanagatik – Ogasunetik izan ezik– eta dituzten helburuak ez helarazteagatik. Goza, PNVk negoziatzeko edukitako jarrera, hainbat lan ildo sartzeko aukera zabaldu izanagatik: Prekarietate egoerari aurre egiteko neurriak; Eskoriatzak bailarako hirugarren langabezia tasa altuena du (%9,40). Bertako merkataritza sustatzeko neurriak indartzea. Eskoriatzako merkataritzaren beharrezko tendentziari buelta ematen laguntzeko baliabideak indartu eta lantaldea sortuko da. Garapen iraunkorra sustatzeko neurriak indartuko dira. Azkenik, datorren urteko aurrekontuak prestatzeko ekinean prozesu parte hartzaile bat martxan jartzeko adostasuna lortu da. Goienari aurrekontua aurretik zuenera itzuli izana ere pozik hartu dugu, izan zuen jaitziera ez baitzen ulertzekoa. Horregatik, aurreranzko pauso bat eman dela deritzogu. Aste honetan herritarrekin egin den bileran, neurri hauek babestuz EH Bilduk oposizioetik herria eraikitzen laguntzeko konpromisoa berresten du.

**BALORAZIOA
IRABAZI**

Rafa Bernal. Irabazi

**Udalaren
erabakiarekin
esker oneko**

Irabazi Eskoriatzaren zuzenketak partzialki onartuak izan dira aurtengo aurrekontuetan. Gobernu kanpoko erakundeentzako laguntza handitu egin da, eta bi partida berri sortu dira Agenda 21 berrartzeko: batetik, Eskoriatzako Jasangarritasun Plana bultzatzeko, eta beste bat, behar gehien dituzten langabeei laguntzeko.

Beste zuzenketei erreparatu, Udal Gobernuak partidak handituko dituen bermea eman digu, eskaera konkretuen garapenerako. Ezker Anitza-IU eta Equoren aurrekontuak ez izan arren, Udal Gobernuaren jarrera aldaketa bat izan dela ikusi dugu, onerako izan dena, eta, horregatik, abstentzioa bozkatu dugu.

**BALORAZIOA
ELIZATEAK**

Iñaki Kerexeta. Elizateak

**44.000 euro
Elizateetara
bideratuko da**

Partidarik handiena inbertsioetara doa, 44.000 euro, baina badaude beste hainbat partida garrantzitsu onartuta; tartean, Elizateetako argiteriaren planarekin jarraitu eta sare publikora konektatuta ez dauden Elizateetako ur sarearen konponketak laguntzekoa. Hurrengo pausoa, Elizateetako alkate bakoitzak bere lehentasunak izendatzea eta denon artean zeintzuk egin erabakitzea. Diru kopurua mugatua denez eta beharrak asko, esan beharra dago udaletxeko partidaz gain, beste programa batzuetara ere egiten direla eskaerak. Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritzak ateratzen badu...

Inbertsio nagusiak

Bide konponketa eta argiteria Elizateetara 44.000 euroko partida bat joango da, bertan hainbat lan eta konponketa egiteko bideratuko dena. Zazpi elizateetan, ahal den neurrian, bideak konponduko dira diru honekin, eta, bestalde, farolak jartzeko ere erabiliko da partida hau.



Dorletako espaloia berrituko dute 15.000 euro gastatuko ditu Eskoriatzako Udalak Dorleta auzoan unibertsitate parean dagoen espaloia berritzeko. Aspalditik behar hori zegoela ikusita, lanak otsailean lizitatuko dira eta martxorako eginda egotea aurreikusten du Udalak.

5.374.298 euroko aurrekontua**DIRU SARRERAK**

- Zergak 2.523.634€ (% 47)

GASTUAK

- Gastu arruntak, mantentzea, garbiketa... 2.190.398€ (% 41)
- Ura, energia 763.129€ (% 14)

Hiri Berritze plana eta inbertsioak

176.355€ (% 3)

Gizarte zerbitzuak

- 420.825€ (% 7,83)
- Ekintzak eta diru laguntzak 242.923€ (prekarietate ikerketa barne)

Kultura 1.141.871€ (% 21,24)

- Ekintzak eta diru laguntzak 436.478€

Kirola 452.613€ (%8,42)

- Ekintzak eta diru laguntzak 30.800
- Inbertsioak 20.000€

Euskara 198.476€ (% 3,69)

- Kirodegiko kudeaketa, ikastaroak eta pertsonala 56.537€
- Ekintzak eta diru laguntzak 141.152€

Garapen ekonomiko

iraunkorra 370.859€ (%6,90)

**ESKORIATZAN
AUKERA**

Etxebizitza salgai San Juan kalean. **140 m²** Sukaldea, egongela eta **3 logela** Bista paregabeak **Atxorrotxera, Kurtzebarrira eta Asensiora.**

Ganbara etxebizitza gainean, **80 m²**, gela egiteko aukerarekin.

616 41 71 05

Atxorrotxen gaineko interes handiko lana

Aste osoan zehar 'Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik' dokumentala egon da ikusgai, goizez eta arratsalde, Ibarraundi museoan, eta azken saioa zapatuan izango da, 12:30ean. Domekan, berriz, 19:00etan, Zaldibar antzokian proiektatuko da

I.B. ESKORIATZA

Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik dokumentala martitzenean aurkeztu zuten, Ibarraundi museoan, eta aste osoan zehar hainbat emanaldi izan dira ikus-entzunezkoa osorik ikusteko.

Nabarralde Fundazioak eta Hernani Errotzen elkarteak egindako lana da eta gidioa, dokumentazioa eta ikerketa Angel Rekaldek, Beñi Agirrek eta Miren Mindegiak egin dute. Historia aholkularitza, berriz, Jose Luis Orella Unzuek -EHUko eta Deustuko Unibertsitateko Erdi Aroko Historia katedraduna- eta Idoia Arrietak -irakaslea, Historian doktoratua- eman dute.

Atxorrotx gehiago ezagutzeko

Atxorrotx mendian, gaur egun, XVIII. mende inguruko ermita dago, eta adierazgarriak dira hango harriak; izan ere, gaztelu bat izan zenaren hondakinekin eginda dago. Beñi Agirre



Martitzenean Beñi Agirre eta Iñaki Sagredo historialariek eskainitako solasaldia. I.B.

historialariaren esanetan: "Atxorrotzeko haitz zorrotz hura leku estrategiko bat zen, hango ikuspegia ikusgarria delako. Erdi Aroko aztarna askorik ez da agertu han, baina bai erromatarren garaikoak... Bada, ikus-entzunezko lan horrekin, Atxorrotzeko gazteluaren historian sakondu nahi izan dugu, besteak beste".

Azken proiektzioak

Gaur, egubakoitza, 12:30ean eta 18:00etan proiektatuko da dokumentala Ibarraundin, eta bihar, zapatua, goizeko pasea izango da soilik, arratsaldean itxita egongo delako. Azkenengo emanaldia, aldiz, ez da Ibarraundin izango: Zaldibar antzokian izango da, domekan, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA



2016. urte osoan ez zen inor jaio herrian. ANDER LARRAÑAGA

Urtetik urtera gutxituz doa Leintz Gatzagako biztanleria

232 herritarrekin hasi du urtea, 128 gizonezko eta 104 emakumezkoekin; 2006an 361 pertsona ziren herrian

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Urte hasieran, 2017ko urtarrilaren 1ean, 232 pertsona zeuden erroldatuta Gatzagan, 128 gizonezko eta 104 emakumezko, Udalak emandako informazioaren arabera.

2016rekin alderatuta, hiru biztanle gutxiago dira herrian. Izan ere, iaz, 235 biztanle ziren, 127 gizonezko eta 108 emakumezko.

Biztanleriaren zatirik handiena 20 eta 64 urte bitartekoek osatzen dute, kopuru osoaren %62 dira eta.

Denboran atzera eginda, 2011. urtean 264 pertsona bizi ziren

herrian, 144 gizonezko eta 182 emakumezko; hamarkada bat atzerago, 2006an, 361 pertsona zeuden Gatzagan erroldatuta, 179 gizonezko eta 182 emakumezko. Beraz, herritarren kopurua beherantz egiten ari da, urteak aurrera joan ahala.

2016an, jaiotzarik ez

Datu esanguratsua da 2016. urte osoan ez zela inor jaio, ezta 2017an orain arte igarotako bi asteetan ere. Heriotzari dagokionez, bi pertsona hil ziren 2016an.

Gatzagarririk zaharrena 1918an jaiotako emakume bat da.

Senior mailako saskibaloiko neskek hurrengoaren bila

Eskoriatzako saskibaloiko neskek garaipen estu-estua lortu zuten pasa den aste bukaeran, Cafes Aitona B taldearen aurka, (42-41) etxean jokaturako partiduan. Norgehiagokaren azken uneetan lortutako bi hiruko erabakigarri esker lortu zuten garaipena, nahiz eta partidua kaskarra jokatu.

Aste bukaera honetan, berriz, seigarren jardunaldia jokatu dute, Cafes Aitona A taldearen aurka. Saillkapenean hirugarren postuan daude eskoriatzarrak, aurkariak baino postu bat gorago. Edozelan ere, taldea suspertu eta jokalariek gogo biziz irten beharko dute kantxara, garaipena lortu gura badute.

Bilborako autobusa 15:00etan irtengo da Eskoriatzatik

Euskal presoaren eskubideen alde Sarek -herritarrek osatutako sarea- antolatutako manifestazioa izango da zapatuan, urtarrilaren 14an, Bilbon. Debagoieneko hainbat herritan autobusak jarriko dituzte, eta Eskoriatzatik ere egongo da aukera autobusean joateko. Hara joan nahi duenak aurrez izena Inkernu tabernan edo Hotelean eman beharko du. Arratsaldeko hiru-eretan irtengo da autobusa, erdiko geltokitik.

Bilbon egingo den manifestazioa 17:30ean hasiko da, Casillan, eta udaletxean amaituko da. Hain zuzen ere, azken urteetan moduan, jendetsua izatea espe- ro dute antolatzaileek.

Kinttaden Eguna otsailaren 4an izango da

Seigarren urtez ospatuko dute eskoriatzarrek Kinttada Eguna, otsailaren 4an. Urte berekoak goizeko poteorako batzen dira, eta gero, bakoitza dagokien adinekoekin bazkaldu ostean, kalera irteten dira guztiak festara.

Egun horren helburua ondo pasatzea da, eta, Santa Ageda neska-mutilek herrian giroa izan zezaten sortu bazen ere, egun seinatu bihurtu da Eskoriatzan. Kinttada gehienek taldea identifikatzen duen zapi edo kamiseta bat eraman izan dute, eta egunak duen arazo handiena bazkaltzeko lekua topatzea izaten da. Bada, dagoeneko taberna eta elkarte ugari beteta daude.

Hil honetan amaituko da usoa eta birigarroa ehizatze epea

Ehiza normalaren denboraldia urtarrilaren 31n amaituko da; oilagorrena, aldiz, otsailaren 19ra arte luzatuko da

E.A. LEINTZ GATZAGA

Ehiza normala, xehea ere deiturikoa, urtarrilaren 31n amaituko da -urriaren 12an hasi zen-. Ehiza mota honetan usoa eta birigarroa, espezie migratzaileak, dira Gatzagan gehien ehizatzen diren animaliak.

Oilagorra harrapatze denboraldia, berriz, egun berean hasi arren, hiru bat astez luzatuko da, otsailaren 19ra arte.

Basurdeari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak apirilaren 2ra arte atzeratu du berau ehizatze denboraldia.

Orkatza eta basurdea

Eskoriatzako ehiztari talde bati esleituta dauka udaletxeak orkatza eta basurdea ehizatze baimena. Beraz, talde honek bakarrik dauka animaliak ehizatze aukera. Lau urteko baimena du koadrila honek, aurtun amaituko zaiona.

Gatzagan, 34 ehiztari

Gatzagako ehiztari elkarteak 34 kide dira. Hala ere, herrian dauden postuen %25 da haiena. Gainontzeko postuak kanpoko ehiztariak dira.

Herritarrei erakutsi gura dizkiete azken lanak

Integrazioa helburu duen Gu Haziak Gara elkarteko kideek erakusketa zabaldu dute Arkupe kultur etxean, iaz egindako lanak aretxabaletarrei erakusteko; besteak beste, baserritar jantzien gonak, azpikogonak, txotxongiloak eta panpinak

Mirari Altube ARETXABALETA

Azken urtean egindako lanak jarri dituzte ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan Gu Haziak Gara elkarteko kideek. Elkar-teak zertan diharduen erakutsi gura diete aretxabaletarrei eta hilabete osoan egongo dira ikusgai. "Erakusketa honen helburua da zeintzuk garen eta zelako lanak egiten ditugun erakustea; horregatik, herritar guztiak gonbidatzen ditugu bertara, baita antolatzen ditugun gaine-rako ekintzetara ere", jakina-razi du elkarteko kide Paloma Martinezek.

Arropak, txotxongiloak, murala

Hainbat eratako lanak jaso dituzte erakusketan. Batetik, joskintza lanak daude. Leizarra musika eskolakoendako, baserritar jantziarendako zazpi gona egin dituzte; eta Kurtzebarri eskolakoendako, 60 gona gorri eta sei azpikogona; baita txino dantzarako soinekoak konpondu

ere; eta Aratusteetarako hamai-ka errezele edo gortina egin. Horiez gain, hainbat txotxongi-lo eta panpina ere egin dituzte.

Eta bestetik, muralismo proiektuaren irudiak daude; horren barruan sartu dituzte iaz udan Ilargi plazako hainbat hormatan egindako muralak.

Integrazioa helburu

Sei lagunen artean sortu zuten elkartea, 2013ko martxoan, baina hark antolatutako ekimenen bueltan herritar asko elkartu da azken urteotan; 25 lagunetik gora joskintzan eta 50etik gora murala margotzen. Gehienak emakumeak izan dira, baina gizonezkoek ere ateak zabalik dituztela gogorarazi dute: "Hainbat jatorritako emakumeak elkartu izan gara, eta gizonezkoen bat edo beste ere gerturatu da, Jose mutiko txiletarra, esaterako, murala margotzerakoan", adierazi du Izaro Sanchez kideak, eta gaineratu du Martinezek:

"Josten ere egoten dira; oso gutxi, baina egoten dira. Eta gainera, oso aberasgarria da horiek ere taldera gerturatzea".

Integrazio sozialarekin batera, ekonomikoa ere gura dute. Horregatik, joskintza lanak eskaintzen dituzte: "Gure helburu nagusia integrazioa da. Ez bakarrik integrazioa gizartean, baita lan munduan ere. Horregatik, arropa konponketak eskaintzen ditugu. Aktibitate ekonomiko bat da eta gure helburua da josten jarduten duten emakume horiek lan mundura gerturatzea".

Egindako lanak erakutsi bai, baina beti aurrera begira. Hala, herria beste hainbat muralekin apaindu gurako lukete; betiere, integrazioaren alde lanean: "Proiektutxo bat daukagu esku artean Basotxoko erretiratuekin eta Kurtzebarriko DBHko hiru talderekin abian jartzeko. Asmoa da elkarlanean jardutea muralen bat margotzeko", azaldu du Sanchezek.



Gu Haziak Gara elkartearen bueltan elkartutako lagunak. GU HAZIAK GARA



Arkupen ikusgai jarritako gona batzuk. M.A.



Udan, Ilargi plazan egindako muralaren irudia. M.A.



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Ikusi eitten da

Zelan zan, ba, hemen indderrien jarri zan araudi bat edo, taberna barruetan ezin zala erre esaten euen?

Bai, ez dakit akordetan zarien, baine hasiera baten taberna batzuk erretzailien aldie eta ez erretzailiena be jarri biher izen euien, aukera bixei gustue egitteko edo. Oker ez banau, kanpoko estufa altu horreik be orduentxe hasi zien hemen ikusten.

Ez zare akordetan zelan soziedadiek be eballi euen ezbaixe? Bateko toki pribauiek dienetik arau horrek eurai zuzenien ez eutziela eragitten eta.

Pelotalekuetan be zerbait izan zan, ba. Ondio be ez? Jope, ba, oin dala gutxi futbol zelaixetan be, honen inguruko barri euki dauie, ba, bertan be ezingo dala erre eta.

Herrixen ikusten dotenaz, ia neu be ez nau seguru lege hori badan edo izen zan be, baine holako zerbait bazala esango nauke nik.

Gutxitan letxe, kanpuen egon barri naz, tabernetatik majo tireketan dauien herrialde baten, eta han bai, han baeuen mundu guztiak beteten dauen arau hori, ikusi egitten zan.

Informatikari laguntzailea eta bi peoi kontratatuko ditu Udalak

Aldi baterako dira hiru postuak eta zabalik dago izena emateko epea; Lanbidera jo behar da horretarako

M.A. ARETXABALETA

Hiru langile kontratatu gura ditu Udalak aldi baterako: bi peoi eta informatikari laguntzailea. Hautaketa prozesuan parte hartzeko, baldintza bi jarri dituzte: lanik ez izatea eta Lanbiden izena emanda egotea.

Lau hilabeterako kontratua egingo diete peoiei eta izena emateko epea zabalik dago urtarrilaren 16a arte. Peoi batek 55 urtetik gora izango du eta bestea diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzailea izango da. Gainera, Aretxabale-

tan erroldatuta egon beharko dute eta euskararen 1. hizkuntza-eskakizuna izan –ez dutenek azterketa egingo dute–.

Informatikari laguntzaile postura aurkezteko epea urtarrilaren 17an bukatuko da. Gipuzkoan erroldatutako emakumeei egin diete dei, eta eskatu dituzte euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna –ez dutenek azterketa egingo dute–, LHH Administrazio kudeaketa, informatika ikasketak, sistema mikroinformatikoak eta sareen ikasketak edo balio-kideak.

Parte-hartze ordenantza zehazteko saioa eguaztenean

Orain dela hainbat hilabete jarri zuen abian Udalak, herritarrekin batera, parte-hartze ordenantza zehazteko prozesua, eta hirugarren fasean sartuko da. Orain arte jasotako ekarpenak eta ideiak aurkeztuko dituzte, eta proposamenak adostu. Horretarako, batzarra egingo dute datorren eguaztenean, urtarrilaren 18an, 18:30ean, Arkupeko bigarren solairuko aretoan. Saio irekia izango da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Zirriborroa adosteko batzarra izango da, hain zuzen ere, eta, ondoren, han zehaztutako proposamena webgunean zintzilikatuko dute ekarpenak egin ahal izateko gainerako herritarrek.

"Errekorra lortu dugu Ibarra, 2.769 abonatu"

ASIER MUJICA UDALEKO KIROL TEKNIKARIA

Urtebete egingo du kiroldegiko arduradun lanetan, eta pozik dago datuekin, abonatuak, kirol jardueretako erabiltzaileek eta diru-sarrerek gora egin dutelako

Mirari Altube ARETXABALETA

Aurten beteko ditu Aretxabale-tako Kirol teknikari lanetan hogeitau urte eta otsailean urtebete Ibarra kiroldegiko arduradun. Pozik dago zabaldu zenetik izan duen bilakaerarekin.

Urte bukatu aurretik eman zion Udalak kirol jardueren ardura Athlon enpresari beste bi urterako. Pozik zaudete haren jardunarekin?

Lau urterako izango da, seguru asko, bi aldeok gustura baldin bagaude. Pozik gaude. Dena den, gure iritzia baino garrantzitsua goa da erabiltzaileena. Iaz apirilean egin genuen gogobetetasun inkesta, eta abonatuak gustura agertu ziren. Orduetgia izan zen kezka handien eragin zuena, eta eskaerak ere hortik etorri ziren. **Astean bertan iragarri duzue orduetgia zabaldu egingo duzuela.**

Bai; ez da samurra izango guztien interesak eta gogoak asetzeari; horregatik, aurten esperientzia pilotua egingo dugu. Urtarriletik apirilera bitartean domeka arratsaldeetan zabalduko dugu 16:00etatik 20:00etara, oraingo domekan hasita. Maiatzetik abuztua bitartean goizeko zazpitan irekiko dira ateak 08:00etan behar-rean, eta aste bukaeretan ez dugu itxiko; hau da, 09:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Abuztuan astebetez itxiko dugu, 14tik 20ra bitartean, mantentze-lanak egiteko. Eta azken lau hilabeteokan, gaur egun dugun ordutegira itzuliko gara. Ondorioz, 158 ordu gehiago zabalduko dugu 2017an.

Eta emaitzen arabera 2018ko ordutegia zehaztuko duzue?

Hori da. Aldaketak eginda zenbat jende datorren neurtuko dugu eta jasotako emaitzekin erabakiko dugu merezi duen edo ez zabaltea. Horregatik, erabiltzaileak, kiroldegira sartzekoan, tornutik pasatzea komeni da, horrek sarrerak zenbatzen dituelako, eta, hala, datu zuzenak jasoko ditugu.



Asier Mujika Ibarra kiroldegiko harreraren arduraduna. MIRARI ALTUBE

"TOPERA IRISTEN EGONGO GARA, SEGURU ASKO, BAINA HAR DITZAKE ABONATU GEHIAGO"

Urte berriarekin batera jarduera berriak abiarazi duzue?

Ez, guk ikasturteko eskaintza egiten dugu, irailtik ekainera bitartekoa. Iaz, 2015-2016 ikasturtean, %33ko igoera izan zuen jardueretako erabiltzaile kopuruak. Aurten datu horiei eutsi egin diegu eta batzuetan zertxobait igo. Gogobetetasun inkestan emaitza ezin hobekak izan dituzte jarduerak -8tik goragoak guztiek- eta baliteke hortik etorri izana gorakada.

Zenbat abonatu ditu kiroldegiak?

Errekorrarekin bukatu dugu 2016a, 2.769 abonaturekin; aurreko urtetik hona %14ko igoera izan da. Eta diru-sarrerek ia %20 egin dute gora; emaitza benetan onak dira eta bilakaera oso ona ematen dabil kiroldegia. **Zelako profila dute horiek?**

Hutsune garrantzitsua dugu 65 urtetik gorakoan artean; abona-

tuen %4,7 dira bakarrik. Saiatu behar dugu horiek ere ekartzen. Eta egia da gaztetxoendako ez dituela zerbitzu asko, kirol talde baten barruan ez badabilte behintzat, baina ahalegintzen gara ekintzak antolatzen.

Abonatuak topera iritsi da?

Nik uste dut ezetz. Gakoa da zerbitzu ona ematea, eta herritarrek barneratzea kiroldegiaren leloa: *Ibarrak, merezi dau!* Hau da, zerbitzua ona bada, instalazioak ondo kudeatuta badaude eta prezioa egokia bada, mereziko du eta kopuruak igotzen jarraituko du. Topera iristen egongo gara, seguru asko, baina gehiago har ditzake; denborak esango du noraino heltzen garen. **Aurreko zelaian skate parkea zabaliko dago, futbol zelaia egiteko asmoa ere aurrera doa... Markole izango da herriko kirolgunea?**

Hemen pilatuko dira, antza, bai, eta kalte baino gehiago mesede egingo dio horrek kirolari. Dena den, zelai horretan kirol berriendako lekua gorde beharko genukeela uste dut; erraketa kirolendako, adibidez. Horren gabezia dagoela uste dut: tenisa, padela... Baina futbolak beste lehentasun batzuk ditu...



Orain dela urte batzuk egindako festan, Kanuto Deuna. GOIENA

Kanuto Deuna ospatuko dute datorren astean aretxabaletarrek

Kalamuaren legezatzaren eta normalizazioaren alde, aldarrikapen gisa, egitarau zabaldu dute

I.B ARETXABALETA

Kalamuaren legezatzaren eta normalizazioaren aldeko Kanuto Deuna urtarrilaren 19tik 22ra bitartean ospatuko da Aretxabaletan. Hainbat urtez ez dute antolatu, baina Aretxabale-tako gazte talde batek berriz ospatzea erabaki du.

Hori horrela, ekintza ugari prestatu dituzte lau egunetarako, eta, batez ere, musika izango da egitarauko azpimarragarriena. Izan ere, Krisis eta Crap taldeen emanaldiak, DJ Loro, Iñaki Cerqueira, Akerjembre... disko-jartzaileak izango dira, besteak beste.

Festaz gain, aldarrikapena

Antolakuntza taldeko kideen esanetan, festa egun bat baino gehiago, aldarrikapen egun bat ere badela adierazi dute: "Hamar urte inguruz ospatu da Aretxabaletan festa hau, eta,

urte batzuk gelditu egon ostean, berriz ere ospatzen hasia erabaki dugu. Hilaren 19an izango da egun handia, baina aste bukaera osorako egitaraua ere prestatu dugu". Musika, mahai jolasak, film emanaldia... izango dira, eta herritar guztiak ekintzetara gerturatzea eskatu dute antolatzaileek.

Bazkari bikaina zapatuan

Zapatuan, urtarrilaren 21ean, bazkaria izango da Ezkutun. Horren ardura Atsedean arduradun Ibai Luermok izango du, hura izango baita bazkaria prestatuko duena. Patatak errioxar erara, txerri-masailak ardo beltzarekin, gazta-tarta, ura, ardoa eta sagardoa izango dira menuan.

Bazkarirako, 70 pertsonarentzako muga jarri dute, eta dagoeneko salgai daude txartelak; Ezkutu, Kixkor eta Haizea tabernetan, 15 eurotan.

Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa 15:30ean da

Sarek deituta bihar Bilbon egingo den manifestazioarekin bat egin dute hainbat aretxabaletarrek. Hara joateko jarritako autobusa beteta zegoen martitzenerako, eta antolatzaileek jakinarazi zuten Leintz Gatzagakoan eta Eskoriatzakoan lekua egonez gero hara bideratuko zituztela interesatuak. 15:30ean irtengo da hori Azbeko geltokitik.

Mandogainera mendi irteera domekan, Guraso Foroak deituta

Guraso Foroak eta Murruxiko mendizale elkarteak antolatutako urtarrileko mendi irteera etzi, domeka, egingo dute. Mandogainera joango dira oraingoan, Herriko Plazatik irtenda, 10:00etan. Parte hartzeko ez dago izenik eman beharrik, ezta automobil beharrik ere. Bazkaltzeko etxera itzuliko direla iragarri dute.



Aretxabaleta pilotalekuaren alebinak eta benjamin batzuk Jon Etxeberria entrenatzailearekin. MIRARI ALTUBE

Pilotan jokatzuz gozatu eta harrobia osatu

Aretxabaleta kirol elkarteko pilota taldeak 40 neska-mutiko ditu aurten. Buru-belarri dabilta lanean horiek Jon Etxeberria entrenatzailearen esanetara, nahiz eta Iturrigorri pilotalekuaren baldintzak oso eskasak diren euria egiten duenean

Mirari Altube ARETXABALETA

Iraila ezkerreko talde polita elkartzen da Iturrigorri pilotalekuan, astean hirutan. Jon Etxeberria entrenatzailearen aginduetara jarduten dute 40 neska-mutikok: benjaminak, alebinez, infantilek, kadeteek, jubenil bakarrak eta hiru seniorrek. Lanean gogotsu dabilta seinale, hainbat txapelketatan hartu dute parte UDAko pilotariak

eta Gabonetako txapelketako emaitzekin pozik daude: "Hainbat bikote iritsi ziren finalerdiaren galdutakoek ere ondo jokatu galdutakoz", argitu du Etxeberriak.

Bide horretatik jarraitu gura dute, poliki-poliki maila hobetzen joan, eta erronka handiagoak zehaztu dituzte, herriarteko txapelketa jokatzeko, esaterako. "Zai-

la izan arren horretan ahalegin-duko gara eta lanean jarraitu".

Pilotalekua egoera eskasean

Iturrigorriren egoera eskasak, baina, zaildu egiten du pilotarien lana. Izotza egiten duenean kondentsazio arazoak ditu eta euria egiten duenean itoginak daude: "Ura sartzen da handik eta hemendik, eta patinatze pista

Txarapea ibilbiderako eskailerak egiten hasteko gertu daude

Egur itxura duen hormigoizkoak egingo dituzte eta lanek bost aste iraungo dute, eguraldiak lagunduz gero

M.A. ARETXABALETA

Parrokiaren alboko espaloia zabaltzeko lanak astelehenean bukatu zituen Sasoi Eraikuntzak SL enpresak. Bi metro izareraino zabaltzeko dute, eta errepide tarte hori asfaltatu. En-

presa horretako langileak, orain, eskailerak egiten hasiko dira Deba ibaiaren albotik Txarapea ibilbidera dagoen maldan. Bost aste inguru beharko dituzte horretarako, eguraldiak lagunduz gero; bestela, luzatu egingo

dira zertxobait. Eta 50.705 euroko kostua dute lanek.

"Arauek ez dute uzten %6 baino malda handiagorik izaten, eta, zelai horrek askoz ere malda handiagoa duenez, eskailerak egingo dira", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu du: "Gurpil aulkiarekin edo ume aulkiarekin pasatzeko beste ibilbidea erabili beharko dute".

Hormigoizkoa izango da eskailera, egur inpresioarekin eta marroi kolorekoa, eta eskudela egurrezkoa izango du.



Txarapea ibilbidera doan aldapa. M.A.

"Herriartekoa jokatu gura dugu, baina zail dago"

JON ETXEBERRIA
ENTRENATZAILEA

Pilotari ohiak hainbat urte daramatza gaztetxoak entrenatzen.

Talde polita duzu.

Bai; 40 gaztetxo ditut aurten. Poliki-poliki bada ere, bagabiltza harrobia egiten.

Gazteen artean oraindik futbola da izarra...

Aretxabaletan bai, futbolak asko tiratzen du gurean. Poliki izanda ere, ea jokalaria kentzen goazen...

Eta neska bakarra dago.



M.A.

Bai; hasi egiten dira, baina ez dute jarraitzen. Pilota bigunekin mutikoen parean ibiltzen dira, baina pilota gogorrekin hasierakoan utzi egiten dute.

Aurtengo erronkarik bai? Herriarteko txapelketa jokatzeko. Kontua da hiru maila egon behar direla ordezkatura, derrigorrean: kadeteak, jubenilak eta seniorrak. Kadeteak eskoriatzarrak ditugu eta jubenil bat falta zaigu; hortaz, zail dugu.



JOSU HERNANDO
PILOTARIA

"Orain dela bi urte hasi nintzen jokatzeko eta oso gustura nabil. Gabonetan Oñatin jokatzeko txapelketan finalera iritsi ginen, eta oso pozik nago".



UNAX GARCIA
PILOTARIA

"Urtebete inguru dela nabil pilota taldean, eta asko ikasi dut. Urrutikoetxea dut gustuko pilotaria, eta hura bezalakoak izan gura dut".

dirudi negu partean. Halakoetan bertan behera uzten ditugu entrenamenduak. Egubakoitzean jokatzekoak garen partiduak ere Eskoriatzan jokatzeko ditugu, seguru asko, ez dituelako bal-

dintzak betetzen". Pilotalekuaren sabaiaren konponketa lanei helteko asmoa du Udalak aurten; alkateak jakinarazi du 2017ko udal aurrekontuan partida bat sartuko dutelako horretarako.



Gaurtik aurrera posible izango da kupelak zabaldu eta txotx egitea. XABI GOROSTIDI



Iturrietako lantaldea denboraldi berriari ekiteko gogoz. XABI GOROSTIDI



Uztaren %20 zukua egiteko erabiltzen dute. XABI GOROSTIDI

2017ko sagardo berria, dastatzeko gertu

Atzo, eguena, Maider Undaren eskutik egin zuten Arabako sagardogileek aurtengo txotx irekiera Kuartango sagardotegi berrian. Aurten eguraldiak askorik lagundu ez duen arren, Aramaioko Iturrieta sagardotegian iazko litro kopurua biltzea lortu dute

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Tenperatura hotzen etorrerarekin bat, sagardotegiek atea zabaltzen dituzte. Aramaioko Iturrieta sagardotegian telefonoa jo eta jo aritu da aste osoan, gaur hasiko dute eta 2017ko sagardo denboraldia. Hala ere, Arabako sagardogileen irekiera ekitaldi ofiziala Maider Undaren eskutik egin zuten, atzo.

"Iaz atea zabaltzen zituen Kuartango sagardotegiak, eta hori dela-eta erabaki genuen txotx irekiera ekitaldia bertan egitea. Aurten, Maider Unda izan da ekitaldirako aukeratutako gonbidatua. Hainbat omenaldi jaso

**ALTZAIRUZKO
KUPELEKIN POSIBLE
DA DENBORALDIA
LUZATZEA, BAINA
EGURREZKOEKIN EZ**

ditu kirol ibilbidea uztea erabaki zuenetik, eta guk gurea egin nahi genuen. Aspalditik ezagutzen dut, eta haren gatzak ere eskaintzen ditut sagardotegian", adierazi du Juanjo Peciñak, Iturrieta sagardotegiko arduradunak.

20.000 litro

2016an eguraldiak ez du askorik lagundu ekoizpenari dagokionez. Hala ere, kalitateak ez du behera egin, eta iazko litro kopurua bera mantentzea lortu dute Iturrieta sagardotegian. "Aurten uztak eskasak izan diren arren,

iazko litro berak ekoiztu ditugu, 20.000 litro inguru. Litro asko sagar-zukua egitera bideratzen ditugu, zuku eskari handia dugu eta". 20.000 litroetatik 4.000 inguru bideratzen dituzte sagar-zukua egitera. Gainontzeko 16.000 litroen hiru laurdenak txotxerako erabiliko dituzte eta azken laurdena botilaratzeko.

Kupelak lehen eta orain

"Sagardo denboraldia, historikoki, urtarriletik maiatzera izan da. Tenperaturak igotzean, sagardoa ezin zitekeen egurrezko kupeletan mantendu, eta botilaratu egiten zen. Baina gaur egun, altzairu herdoilgaitzez egindako kupelekin arazo hori saihesten da, eta denboraldia luzatzea posible da".

'Euskal sagardoa' jatorri izena

Orain arte *Eusko Label* zigilupean aritu diren ekoizleek *Euskal sagardoa* jatorri izena izango dute. Hain zuzen, %100ean euskal jatorriko sagarrekin egindako sagardoak izan behar dute, eta Europak ezarritako kalitate estandarrak betetzen dituzte.

Hala ere, badaude kalitate estandar horiek betetzen dituzten beste euskal sagardo

ekoizle batzuk. "Euskal sagardo ekoizle handienek *Gorenak* marka sortu zuten. Kalitate estandarrak betetzen dituzte, baina ez dituzte soilik euskal jatorriko sagarrak erabiltzen", azaldu du Peciñak.

Astelehenean egin zuten *Euskal sagardoa* zigilu berriaren aurkezpen ekitaldi ofiziala, Donostian. Oraingoan, 35 ekoizle daude barne.



Jatorrizko izendapenaren irudia. E.S.

Horetako gehienak gipuzkoarrak dira; hala ere, Aramaioko Iturrieta sagardotegia partaideetako bat da. Arabako sagardogileen ordezkari bakarra da hura.

San Martin Eskolan antzerki eskolak, hirugarrenez

Eskolako orduen barruan antzerki eskolak emango zaizkie San Martin Eskolako 5. eta 6. mailetako ikasleei.

Tailer horien bitartez, ahotsa, koreografia, irudimena eta sormena garatuko dituzte, besteak beste. Antzerkigintzan aditua den Aproprox erakundeko irakasle batek gidatutako saioak izango dira.

Santa Ageda bezperako lehen entsegu egunean

Azken urteetako tradizioarekin jarraituz, otsailaren 4an izango den Santa Ageda bezperan, Aramaioko Bertso Eskola, Bizente Goikoetxea abesbatza eta trikitia taldea elkarrekin aterako dira. Hala, datorren egunean, hilak 19, egingo dute lehen entsegu, 19:00etan, kultura etxean. Beste bi entsegu gehiago ere egingo dituzte datozen bi egunetan, leku eta ordu berean.

Aurten ere Iturrietan sagardotegian bazkaria egingo dute. Izen ematea urtarrilaren 26a baino lehen egin beharko da, taldeotako ordezkariaren batekin harremanetan jarrita. Helduek 10 euro ordainduko dituzte eta gazteek, aldiz, bost.

Korrikaren bueltako batzordea sortzeko hitzordua

Korrikaren 20. edizioa Otxandiotik abiatu eta Iruñean amaituko da, milaka euskaltzalek eskuz esku pasatuko lekukoaren mezua irakurrita.

Aurtengo edizioa, ordea, ez da Aramaiotik pasako. Hala ere, batzorde berezia sortuko da herrian, ekintza bereziak bultzatzeko eta herria ekime-narekin inplikatzeko.

Helburu horrekin, bilera egingo da datorren asteazkenean, hilak 18, kultura etxean, 18:30ean.

Batzuk da Korrikaren hogeigarren ediziorako aukeratutako leloa. *Bat* eta *zuk* hitzen arteko jolasa da, herritarrek euskarara gonbidatzen dituen.



Kruzeta mendatea zeharkatzen duten erabiltzaileak pozik daude han egin dituzten asfaltatzen lanekin. XABI GOROSTIDI

Kruzetako bidearen itxura aldatu dute

Aramaio eta Gasteiz lotzen dituen A-2620 errepidearen egoera eskasa zela-eta, Arabako Foru Aldundiak asfaltatze lanak egitea erabaki zuen. Guztira, lau kilometroko tartea konpondu dute eta erabiltzaileak pozik daude lanen emaitzarekin

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Pitzadurak, deformazioak, bide-zuloak, arrakalak... era horretako arazoz josita zegoen Kruzetako mendatea; batez ere, Aramaiora jaisten den zatian.

Hainbat ziren errepidea hondatuta egotea eragiten zuten faktoreak. Bertako ohiko trafikoak eragiten duen higadurari, euriarena eta elurrarena gehitu

behar zaizkio, eta baita elurra kentzeko makinek eragindakoa ere. Erabiltzaileen kezak asfaltatik zetozen. Batez ere, zikloturisten ahotik, eurak baitira errepidearen gorabeherak gehien sufritzen dituztenak.

Aurreko legealdiko eskaera

"Aurreko legealdian, ni zinegotzi nintzelarik, eguraldiaren

eraginez asfaltoa oso janda zegoen. Udalaren aspaldiko eskaera zen Aldundiak, gutxienez, Kruzetako zatia asfaltatzea, hori baita Arabarekin konektatzeko daukagun bide bakarra. Legealdi honen hasieran bilera egin genuen Aldundiko ordezkariekin, eta bertan ere berriro jakinarazi genien errepidea oso hondatuta zegoela, eta zerbait egin

UDALAREN ASPALDIKO ESKARIARI EUTSIZ, URRIAN ERABAKI ZUEN FORU ALDUNDIAK LANAK EGITEA

beharra zegoela", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Lanak egiteko erabakia

Udalaren aspaldiko eskaerak ikusita, Arabako Diputatuen Kontseiluak Kruzetako mendatean errodadura geruza berrizatzeko proiektua iragarri zuen, 2016ko urriaren 25ean, honako argudio hauek emanda: "Bide zorua oso hondaturik dago mendate horretan. Aramaio aldera jaisten den aldatsaren lehenbiziko kilometroetan zulo eta pitzadura ugari dauzka galtzadak, eguraldi txarrak eta ibilgailu astunen zirkulazioak eraginda".

Lan horiek egiteko, 185.775 euro bideratu ziren Foru Aldundiko aurrekontutik, eta bi aste epean burutu ziren asfaltatze lanak.

Lau kilometro

Hori izan da konponketa lanek hartu duten esparrua. Gailurreira iritsi aurreko 500 metro inguru lehenagotik hasi eta Aramaioko norabidean dagoen beheranzko aldaparen hiru kilometro eta erdian egin da esku hartzea.



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

ΛΟΛ

DVDak argiak jotakoan txoriak uxatzen ditu. Katedraletako leihoetan jarritako huntzek ere. Ogirik ematen ez duen agureak, ondora salto egiten dien umeak, makilaz olibondoak astintzen dituen nekazariak, zuhaitzak mozten dituen funtzionarioak, elektrizitate kordak astintzen dituen korrontearen intentsitate igoerak, tiro hotsak. Ez dakit zergatik galdu duten eraginkortasuna txorimaloek. Galderari erantzuna topatzen jarritz gero; agian, larregi daudelako kaleetan.

DVDak balkoian izekitzen dira, jadanik etxean ez direlako erabiltzen zuntz optikoa Internetekin iritsi zenetik.

Hori diote telebistako iragarkiek: *kon la fibra optika disfrutaras de tus películas favoritas kon solo un klik.*

Eta huntzak jartzen dira, kanpoko txoriak uxatzeko baino gehiago, barrutik salto egiteko atakan dauden horiei "so" esateko.

Inork ez ditu txoriak, aldiz, Artzeren poetikatik aterako. Ez dago ezabatuko dituen *Ktrl+Z*-rik, eskuz jaso zirelako; eskuz, belarriz, ahoz eta larruz; txikitari erreka albotik jaso genuen txori herioa bezala, eskuko hutsunean habia ikusi zuen hori.

Gabonetako bertso saioa Interneten ikusteko aukera

Abenduaren 30ean Aramaioko Bertso Eskolak antolatutako Gabonetako bertso saioa ikusgai dago Interneten.

Bertara joateko aukerarik izan ez zutenek edo saioa berriz ikusi nahi dutenek www.bertsoa.eus atarira sartuz ikus dezakete, *Aramaioko jaialdia* izenburua duen sarreran klik eginda.

Zer behar zituen Kurtzetak, eta nola baloratzen duzu aldaketa?



LIERNI ALTUNA
ALKATEA

"Konpondu duten zatia oso ondo geratu da. Ez dute beharino konpondu, eta saihesbideak ere badauka konpontzeko beharizana. Baina, behintzat, zati handi bat egin dute, eta, zentzu horretan, pozik. Errepideak egoera onean egotea onuragarria da aramaioarrentzat.



IÑIGO EZPELETA
ERABILTZAILEA

"Arriskutsuenak bideko zuloak ziren. Bizikletan aritzen garenontzako arrisku handia zegoen, batez ere, jaisteko orduan. Orain, sekulako aldaketa dago eta arriskua dezente murriztu da. Hala ere, Induspetik Aramaiorako tartea hondatuta dago, eta hori faltan igarri dut.



OIHANA AMESKUA
ERABILTZAILEA

"Neguan oso kaltetuta geratzen zen errepidea, elurra kentzeko makinen eta euriaren eraginez. Egunero gora eta behera aritzen garenok asko igartzen genuen. Bada aurrerapena eta eskertzekoa da ahalegina. Hala ere, bideak hondatzeko joera izaten jarraituko du".



IÑIGO RODRIGUEZ
ERABILTZAILEA

"Lehen, partxe asko zituen, zuloak, lur-jausiek eragindakoa arazoak... tamalgarri zegoen, eta orain, konpontze-lanak egin ondoren alde nabaria da. Erabiltzaileentzako seguruagoa da orain. Hala ere, ikusi beharko da Euskal Herria den bezalakoa izanik, zenbat iraungo duen".



Udaleko eta obrako arduradunak, eguenean, aretoan. J.I.



Akustika egokirako hormetako kutxak. J.I.

Kultura aretoa, 2017ko azpiegitura izarra

Pazkoetarako egongo den ziurtatu gabe, "uda parterako" amaituko dutela azaldu du alkateak; proiektu eszenikoaren buruak, berriz, eliza izaten jarraituz kulturarako egokitu beharrak oso berezi egiten duela obra: "Neuk ez dut halakorik ezagutu"

Julen Iriondo BERGARA

Obra zibila "ia bukatuta, bideratuta"; ekipamendurako hiru esleipen eginda eta zenbait muntaketa lan hasita; eta aretoa erabiltzea posible egingo duten argindar hornidurarako Seminariotik kanpo egin beharreko lanak ere martxan –Gabonak bitartean egin zuten Komenio kalera arteko kanalizazioa, datorren astean berrekin, eta hori amaitu eta epaitegi ondoan egongo den transformagailuko lanak bizpahiru astean egingo omen dituzte–. Elena Lete alkatea gustura agertu zen kultura aretoko lanek daramaten martxarekin atzo, eguena, hedabideekin bertara egindako bisitan.

Dagoeneko jarrita dauden elementuen artean, deigarrietako batzuk dira aldamentetako hormetan ipinitako kutxak, aurreikusitako hiru motatako erabilpenetan, bakoitzean dagoen akustika lortzeko balioko dutenak: adibidez, pelikula baterako, antzezlan baterako edo

abesbatzarako posizio desberdina hartzen dute.

Aretoa eliza batean kokatua egongo denez, ondarea babesteko hainbat neurri hartzen ere ari dira lanetan. Honela, zikina sortzen duten lanak amaitu, eta erretaula zaharberritzeko ordua izango da orain; enpresa aditu batek izango du horren ardura. Elizak zuen gurutze erako zorua, berriz, babestu eta estali egin dute, haserako asmoa hura zapaltzeko moduan geratzea bazen ere, haren egoerak ez duelako horretarako aukerarik eman. Mausoleoa, azkenik, bistan geratuko da, kristal baten atzean eta argizatuta, hondatu ez dadin temperatura eta hezetasun baldintza egokiak mantentzeko sistema batekin.

Hain justu, eliza izaera eta elementuak mantenduz hori kultura areto bihurtu beharrak Bergarako obra oso berezi egiten duela dio proiektu eszenikoaren arduradun Andoni Garaizarrek, berak ez duela halakorik aurrez

ikusitako: "Beste eliza batzuetan egin dira gauzak, baina eliza izateari lagata; ez da eliza bat ikusten, antzoki bat ikusten da. Hemen erronka da momentu batzuetan eliza izan behar duela berriro, eliza ikusi egin behar dela berriro, eta horrek dakartza erronka tekniko batzuk"; kultura ekitaldietarako azpiegitura kendu eta, adibidez, erretaula eta elizako bolumenak ikusteko moduan utzi beharrak.

Azalpen hauek guztiak herriarrei –hilaren 19an, 18:00etan eta 19:00etan; izena emateko, 943-77 91 59 eta kultura@bergara.eus–, eragileei eta udalbatzako beste ordezkariari datorren astean emango dizkietela iragarri du alkateak, *Obretan baina zabalik* leloarekin antolatuko dituzten bisiten bigarrenaldian. Lanen, amaiera, bestetik, "uda partean" kokatu du, Pazkoetarako gertu egongo den esaten ausartu gabe. Kultura aretoak 260 eserleku izango ditu; zutik, berriz, 500 lagunendako lekua.

Aratusteetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Abian da, beste urte batez, Aratusteetako jai egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa.

Bergaran bizi den edo herrian erroldatuta dagoen edonork har dezake parte, eta urtarrilaren 23a izango da horretarako azken eguna. Hala, egun horretako 13:00ak aurretik udaletzeko kultura zerbitzuan aurkeztu beharko dira lanak.

Lehiaketako oinarriak www.bergara.eus webgunean kontsultatu daitezke. Kartelean *Aratusteak 2017, Bergara* testua agertu beharko da, derrigor, eta formatua bertikala izan behar da.

Lehiaketako irabazleak 350 euroko balioa duten bonuak eskuratuko ditu, Bergarako komertzio-guneetan trukatzeko. Onena hautatzeko epaimahai bat izango da, baina, horrez gain, herritarrek ere eman ahal izango dute botoa hilaren 24tik 29ra Udalaren webgunean.

Otsailaren 1era arte zabalik da Udalaren ideia lehiaketa

Gabonetan jarri zuen martxan Udalak Bergara Elkarrekin Egin ideia lehiaketa. Horren helburua da bergararrek euren bizi kalitatea hobetzeko proiektuak proposatzea, eta sariak izango dira.

Lau kategoria daude: 12 urtetik beherakoak, 12-17 urte bitartekoak, 18-60 urte bitartekoak eta, azkenik, 60 urtetik gorakoak.

Aurkeztutako proiektuek bi baldintza nagusi bete beharko dituzte: batetik, ekonomikoki bideragarriak izatea; eta, bestetik, epe motzera egingarria izatea. Hala, Udalak aurrekontuan 100.000 euro aurreikusitako lehiaketa horretatik erator daitezkeen proiektuak gauzatzeko

Lehiaketa irekia da, eta epaimahai batek eta herritarren botoek erabakiko dute aurkeztutako ideien artean zeinek merezi duen saria.

Eguaztenean izango da aurtengo lehen odol ematea

Urtarrilaren 18an odola emateko aukera izango da anbulatorioan, 18:00etatik 20:00etara. Urtean 23 hitzordu izango dira, egun hauetan: otsailak 1 eta 15, martxoak 1 eta 15, apirilak 5 eta 19, maiatzak 3, 17 eta 31, ekainak 14 eta 28, uztailak 12 eta 26, abuztuak 30, irailak 13 eta 27, urriak 11 eta 25, azaroak 8 eta 22 eta abenduak 13 eta 27.

Adimen emozionala eta haurren gatazken konponbidea hizpide

Udalak eta Jardunek antolatuta, gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako hitzaldia izango da hilaren 19an, 18:00etan, Zabalotegegi aretoan. Ttiklik elkarguneko adituek eskainiko dute, eta adimen emozionalaz eta haurren gatazken konponbideaz arituko dira. Euskaraz izango da eta itzulpen zerbitzua izango da. Zaintza zerbitzua ere izango da.

'Euskara irabazteko bidean' liburuaren aurkezpena

Garikoitz Goikoetxea kazetariak *Euskara irabazteko bidean* liburu aurkeztuko du martitzenean, hilak 17, Jardunen lokal berrian (Barrenkalean). 19:00etan izango da hitzordua. Liburu horren oinarria 100 laguni egindako elkarrizketak dira, eta horien bidez euskaraz azken hamarkadetan egindako aurrerabidearen balantzea jasotzen du.

1973an eta 1956an jaiotakoek kintada bana egingo dute

1956an jaiotakoek hilaren 28an egingo dute bazkaria Azpeitxi jatetxean. Bazkalostean dantzaldia izango dute. Apuntatzeko: Azpeitxi jatetxean edo 630 62 61 30ra deituta. Azken eguna: hilak 24. 1973koek, berriz, otsailaren 18an egingo dute. Goizean bisita gidatua, eta gero bazkaria eta DJa Tartufon. Apuntatzeko: Tartufon, Agorrosinen eta Bulen.

Osintxuko liburutegia, atzera ere erabilgarri

Lokalaren arduradun postua esleitzeko Udalak argitaratutako lehiaketa publikorako epea bukatuta, ez da inor aurkeztu. Horregatik, orain arte itxita egon da; dena den, postua esleitu bitartean, astean bitan irekiko dute lokala, udal langileek kudeatuta

Maite Txintxurreta BERGARA

Osintxuko liburutegia astean bi egunetan zabaltzen dihardute, aste honetan hasita. Azken bi hilabeteetan itxita egon da, zerbitzua eskaintzeke, arduradun berria topatzeko lehiaketa zabalik zen bitartean. Oraindik ez da postu hori beteko duenik azaldu, baina, tarte horretan gutxieneko zerbitzu bat eskaintzea "beharrezko" ikusita, aste-astelehen eta eguaztenetan zabaltu egingo dute, arratsaldez, bi egunetan, 17:15etik 20:00etara bitartean.

Bergarako Udalak 2016. urte amaieran atera zuen lehiaketa publikora liburutegirako arduradun postua. Epea bukatuta, baina, prozedura hutsik geratu da, ez baita inor aurkeztu. Horren ondorioz, berriro ere mar txan jarriko dute lehiaketa. Postua esleitu bitartean mantenduko da behin-behineko ordutegia, eta udal langileek jardungo dute kudeatzaileran lanetan.

Pleguak argitaratu eta postua esleitu bitartean, hilabete eta erdi edo bi hilabete inguru pasako direla aurreikusen dute, eta esleitu ostean normaltasunera itzuliko da zerbitzua.

Liburutegiaren birpentsatzea

Ekainean Osintxuko hainbat bizilagunek udal ordezkariekin bilera bat egin zuten, aurrerantzean zerbitzuak nolakoak izan behar duen hausnartzeko asmoz.

Bilera hartan, osintxuarrek zerbitzua mantentzeko nahia azaldu zuten, beharrezkoa da eta. Dena den, beharrak ere identifikatu zituzten, eta, hala, bertan antolatzen diren gauzen zabalpen handiagoa egitea garrantzitsutzat jotzen dute, jende gehiagok parte har dezan eta gune "biziagoa" izan dadin.

Gogo horren baitan, udan irakurketa klub bat ere eratu dute, eta bospasei lagun biltzen dira bertan; liburuak irakurri eta



Itxita egon den bitartean liburutegiko lokala eta bertako eskaintza eguneratu dute. M.T.

Osintxuarren elkargune

Osintxuko auzotarrendako elkargune bat da liburutegia, eta hogeitaz biko gehiago daramatzate osintxuarrek zerbitzu horretaz gozatzeko.

Hala, liburu edota filmak mailegatzeko gune bat izateaz gain, hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dituzte bertan. Esate baterako, eskolako neska-mutikoei ere egin izaten dituzte bisitak, tarteka, bertara. Eguen goizetan, esaterako, liburutegia eurentzat izaten dute, *Motxila ibiltaria* izeneko jardura burutzeko, non astean ikasle batek liburu bat hautatu, hura irakurri eta gainontzeko kideei kontatzen dien.

Bestetik, auzoko eragileek antolatutako hitzaldi edota ekitaldiarako ere erabili izan dute liburutegia.

Horrez gain, lokalean bi ordenagailu ere badaude, auzotarrek sarri erabiltzen dituztenak Interneten aritzeko.

horiei buruzko solasaldiak egin dituzte. Horretarako hitzordua eguaztenetan izaten zuten, orain, liburutegia atzera ere zabalik dela, berriro ere ekin ahal izango diote.



Hitzaldia liburutegian. M.T.

Bestetik, liburutegia itxita egon den tarte honetan, lokala txukuntzeko aprobetxatu dute, eta eskaintza eguneratzen ere hasiak dira, liburu edota film berriak ekarri baitituzte.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Bilbora, demokrazia oihukatzer

Biharko eguna azpimarratuta geldituko da egutegian. Bilboko kaleetan bilduko den jendetzak eta zabalduko den mezuak berebiziko oihartzuna izango du. Euskal presoek eskubideak ez ezik, Euskal Herriaren erabakitzeke eskubidea aldarrikatuko da. Biak uztarturik daude. Presoak, deportatuak, iheslariak, beraien eskubideak hankapean, zapaldurik, dauden bitartean, elkartasun oihartzuna berebiziko urratsa izango da, herri honek bere barruan duen askatasun hazia, behingoz, erne eta loratu dadin. Hain zaila al da esatea eta ulertzea, euskaldunok Españagandik aparte bizi nahi dugula? Zalantzak daude? Ba, ireki bidea demokraziari eta galdetu herriari. Itsumustuan hor datoz: "Erabakia hartu bai, baina denoi dagokigu. Konstituzioak dio". Kontxo! Lege antidemokratikoa ezarri eta, orain, 45 milioiko artaldeak, tartean katamixarrak, otsoak eta lapurrak, menpean duen artaldetxo bat irentsi nahi du. Erabakia hartzeko nortasun agiria soilik euskaldunok daukagu. Ulertu ezazue behingoz eta eman bueltaxka bat Ingalaterratik eta Eskoziatik, ea argitzen zarenen. Presoak etxera herria askatzera, denok Bilbora!

Eguen eguerdirako bost autobus, eta zortzi izateko itxaropena

Sarek antolatuta bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko izena gaurko 22:00ak aldera arte eman daiteke

Julen Iriondo BERGARA

Gure Artera ekimenak antolatu ditu bihar Bilbon, *Giza eskubideak, konponbidea, bakea* leloarekin, Sarek deituta egingo den manifestaziorako autobusak. 15:45ean abiatuko dira herriko geltoki nagusitik; goizean joan nahi dutenek ere badute horretarako aukera, 11:00etan abiatuko diren autobusetan.

Izena emateko lekuak dira: Poligonoan, Bodegoian; San Lorentzon, Lainon; Bolun, Txamoinen eta Azpeitxin; Labegaraian, kiroldegian; Espoioian,

Konden; kalean, Arranon –goizean joateko, hemen bakarrik–, Pol-Polen, Kortazarren, Deporren, Euxebio IIn, frontoiko tabernan, Etxagin eta Kondan; Osintxun, Txuringon; eta Angiozarren, Beheko tabernan.

Gure Artera ekimenak manifestaziora joateko dei egin die herritarrei. Eguen eguerdirako, goizerako bi autobus eta arratsalderako hiru zeuden. Izenematea gaurko 22:00ak arte luzatuko da; denera zortzi autobus izateko itxaropena zuten antolatzaileek.

Birfundazioaz lotuta, Sorturen batzar irekia eguaztenean Irizarren

Birsortu prozesuko batzarra hilaren 18an izango da, 18:30ean, eta hiru puntu jorratuko dituzte: emendakinen eztabaida, zuzendaritzaren –Kontseilu Nazionala– hautaketa eta Bergara 2026 –herriaren etorkizunari buruzko gogoetak–. Kongresua hilaren 21ean egingo du Sortuk; erabakietan parte hartzeko izena eman daiteke oraindik.

Aratusteak eta Pazkoak antolatzeko Udalaren deialdia

Jai batzordearen bilerarako deia egin die Udalak herritar guztiei: martitzenean izango da, 19:00etan udaletxeko Tokiko Gobernu batzordearen gelan. Bilera honetan landuko dituztenak izango dira Aratusteen eta Pazkoen antolaketarekin lotutakoak. Udalak gogo onez hartuko luke ekarpena egin nahiko lukeen edozeinen parte-hartzea.

Bergarako kontsumo taldeak, osasuntsu

Duela bost urte sortu zen herriko lehen kontsumo taldea, Angiozarko Loidi baserriko produktuekin betetako otarreak banatzen dituena; Eskubaratz proiektua, berriz, duela lau urte eratu zuten hiru gaztek. Talde biek martxa onean jarraitzen dute

Maite Txintxurreta BERGARA

Duela bost urte sortu zuen Angiozarko Loidi baserriko Joxe Mari Eizagirrek Bergarako lehen kontsumo taldea, eta oraindik ere martxan dago. Martxoan, berriz, lau urte izango dira Bergarako Jon Ruiz de Eginok eta Nere Aspiazuk eta Julen Azkoaga mañariarrak kontsumo talde bat eratzeko apustua egin zutela. Guztiak ere, ordura arte nekazaritza munduan gutxi ibilitakoak ziren, baina, hala ere, saltoa ematea erabaki zuten, eta Eskubaratz proiektuari ekin zioten. Gaur egun, kasu bietan, eguazteneko azokan egiten dute otarreen banaketa, eta, horrez

gain, talde bakoitzak bere produktuak saltzeko postua ere jartzen du.

Lau urteren ostean, ezin hobeto doakie gazteei. "Poliki-poliki goaz hazten", dio Ruiz de Eginok. Izurtzan (Bizkaia) daukate ortua. Azkoagaren aita nekazari profesionala da, eta hark utzitako lur batzuekin eta berotegi batekin hasi ziren, eta orain, 3.000 metroko lursaila daukate. Hala, 70 pertsonari banatzen dizkiete gaur egun otarreak.

Eizagirreren taldean hasieran hamar bat kontsumitzaile zeuden, eta orain, berriz, 28 dira. "Gustura" dago hura daukan jendearekin, eta gertu dago jen-

de gehiago hartzeko ere. Interesa duen orok eguazteneko azokan topatuko du, edota loidijm@gmail.com-era idatzita.

Filosofia berezia

Eizagirrek dio kontsumo taldeetan parte hartzen duten gehienak gazteak direla, "40-45 urtetik beherakoak". Gaineratu du garrantzitsua dela jakitea otarreetan sasoiko barazkiak aurkituko dituztela kontsumitzaileek, eta, hortaz, gai horrekiko kontzientziazioa beharrezkoa dela, "neguan batez ere", ortuak gutxiago ematen baitu. Aste honetan, patata, erremolatxa, aza, brokolia, porruak eta kipula



Aspiazu, Ruiz de Eginok eta Azkoaga. ANBOTO.ORG



Joxe Mari Eizagirre, Loidi baserrian. M.T.

sartu ditu otarreetan. Horrez gain, ardi esnea eta gatzatua ere badu Loidik sasoi honetan.

Eskubaratzekoek nabarmendu dute euren ekoizpen modua agroekologia dela; hau da, prozesu osoa

"duina" izatea zaintzen dute, ingurumenarekiko zein pertsonarekiko. Pertsonen esplotazioak ez du lekurik. Gertutasunari garrantzia ematen diote, eta horregatik hautatu dute zuzeneko salmenta.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA


ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Urtero jarri ohi du erakusketa Aroztegin Buztinzale elkarteak. GOIENA

Herriko buztingileen lanak Aroztegin ikusgai

Bergarako Buztinzale elkarteak erakusketa inauguratuko du gaur iluntzean, eta bertan bazkideek egindako lanak ikusteko aukera izango da; horrez gain, elkarte bera ezagutzera eman nahi dute bazkideek, eta buztingintzarekiko zaletasuna sustatu

Maite Txintxurreta BERGARA
Bergarako Buztinzale elkarte-koek erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Urtero jartzen dute erakusketa sasoi honen bueltan. Urtarrilaren 22ra bitartean izango da ikusgai.

Hamar bat bazkide dabilta orain elkarteak, eta bakoitzak

hiruna pieza jarriko ditu, Jesus Belaustegik izan ezik, hark 16 bat jarriko ditu eta. Lanen artean, denetarik izango da, Ana Orgaz presidenteak azaldu duenez: eskulturak, muralak... gehienak azken urte honetan egindako lanak dira".

Urte luzeko ibilbidea duen taldea da Buztinzale elkarteak;

datorren urtean 40 urte egingo ditu, eta Zabalotegiko dorrean dute lokala. Gogorarazi dute ateak zabalik dituztela interesa izan dezakeen edonorentzat, eta horretara animatu nahi dituzte herritarrak, "bereziki" ume eta gazteak. "Esperimentatzeko eta imajinazioa lantzeko afizio polita da", dio Orgazek.

Kepa Errastiren 'Mami Lebrun', gaur iluntzean Zabalotegin

Aretxabaletarrak heriotzari buruzko hausnarketa bat plazaratzen duen lan berria taularatuko du 20:00etan

M.T. BERGARA

Bihar, zapatua, urtarrilak 14, Zabalotegi aretoan Kepa Errasti aktore aretxabaletarraren azken ikuskizuna ikusteko aukera izango da: *Mami Lebrun* antzezlan. Antzezlan idazteaz gain, Errastik aktore lanak ere egiten ditu, protagonistetako bat izango delarik. 20:00etan izango da, eta sarreraren prezioa 8 euro da. Helduei zuzendutako ikuskizuna da honako hau.

Maiatzean estreinatu zuten obra, eta lehenengoz izango da Bergaran ikusgai.

Heriotzari buruzko hausnarketa

Amona hil ostean idatzi zuen Kepa Errastik *Mami Lebrun* antzezlan, eta, hain zuzen, heriotzari buruzko gogoeta bat plazaratu gura izan du bertan. Horren baitan, gertakizun tristeak eta umore pasarteak tartekatzen dira.

Istoria Parisen kokatzen da hasieran, 1941. urtean, eta Egoitz (Kepa Errasti) eta Miren (Ane Pikaza) bikotea eta haien arteko maitasun istorioa da protagonista. Antzezlana horretan, baina, protagonistek denboran



Antzezlaren une bat. IMANOL SORIANO

aurrera eta atzera egiten dute etengabe.

Musikak ere protagonismo handia du ikuskizunean, eta ikusleek kabaretetako giroa ezagutzeko dute *Mami Lebrun*-en.

"Egurak eta buztinezko piezek konjuntio polita osatzen dute"

JESUS BELAUSTEGI BUZTINZALE ELKARTEKO KIDEA

Jesus Belaustegi Eibarren bizi da, baina Bergarako Buztinzale elkarte kide da. Hura izango da Aroztegi erakusketa lan gehien jarriko dituen ikusgai.

Noiztik diharduzu Bergarako Buztinzalen?

Hamar bat urte izango dira. Lehenago Eibarko beste kolektibo batean nengoan, baina gauzak okertu egin ziren eta Bergaran aukera aprobetxatu nuen. Normalean, buztina etxean lantzen dut, baina labea bertan erabiltzen dut. Buztingintzan duela 20 bat urte hasiko nintzen.

Zenbat pieza jarriko dituzu erakusketa?

16-17 bat. Batzuk pieza biribilak izango dira, peanadunak, eta gainontzekoak, platerak, guztiak tornuarekin landutakoak. Lehenengoak kuriosoak dira, egurrezko



J.B.

peanak piezarekin konjuntio polita osatzen du eta. Baserriko teilatueto egurrekin egiten ditut peanak nik neuk.

Ordu asko sartzen dituzu buztinintzan?

Bueno, afizio hori daukat eta denboratxo bat eskaintzen diot, bai. Egia esan, baina, egurra lantzen denbora luzeagoa ematen dut buztinarekin baino, lan handiagoa daukalako: garbitu, sikatu, dekoratu... Zeramikarena, berriz, erregularragoa da.

Buztingintza ikastaroa

Bestalde, helduendako zeramika tailerra antolatuko dute otsaileko zapatu goizetarako, 10:00etatik 12:00etara. Izen ematea urtarrilaren 27a baino lehen egin behar

ko dute interesatuek, 943 77 91 59 telefonora deituta. Prezioa 25 euro da, eta plazak mugatuak dira. Orgazek azaldu du buztinintzan "lehen pausoak emateko" egokia izango dela ikastaroa.

Izarok kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean

Abeslari mallabiar ezaguna Zabalotegi aretoan izango da, 'Om' izeneko lehenengo diskoa aurkezten

M.T. BERGARA

Datorren egubakoitzean, urtarrilaren 20an, Izaro Andres abeslari mallabiar kontzertua eskainiko du Zabalotegi aretoan. 20:00etan izango da emanaldia, eta sarreraren prezioa bost euro da. Hain zuzen ere, aretoko leihatilan bertan erosi ahal izango dira sarrerak.

Lehenengo diskoa aurkezteko biran dihardu Izaro Andresek; *Om* izena du lan horrek, eta, irailean kaleratu zuenetik, arrakasta handia erdietsi du bilduma horrekin.

Interneteko Youtube bideo plataformara igotako abesti batekin hasi zen ezagun egiten abeslari gaztea, eta denbora laburrean zabaldu zen haren izea, Euskal Herri osoan zehar ezagun egiteraino. Hala, orain dela gutxi, esaterako, aurtengo Korrikaren abestian eta bideo-klipean parte hartu du.

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez abestutako kantuak batzen ditu *Om* diskoak. Hamahiru abestitan denetarik dago: doinu lasaiak bai, baina kantu dantzagarriagoak ere bai.

Moto-krosean fin, 12 urterekin

Lander Rejano bergararrak iazko Euskadiko Txapelketako bigarren sailkatuaren saria jasoko du bihar Motoziklismo Federazioak Donostian egingo duen galan. Harekin batera, Urtzi Markiegi ere izango da; hark ere bigarren egin du, MX2an, seniorretan

Julen Iriondo BERGARA

Aurreikusita gehiago izan arren, azkenean hiru proba izan zituen 2016ko Euskadiko Txapelketak: Falcesekoa, Karrantzakoa eta Ereñokoa –azaroan Bergaran egitekoa zena izan zen bertan behera gelditu zenetako bat, eguraldiagatik–. Hiru probetako txandetako –bi txanda proba bakoitzean– puntuak batuta, bi bergarrek amaitu zuten podiumean iazko Euskadiko Txapelketako azken sailkapenean, biek bigarren.

MX2 senior kategorian, aurreko postuetan ibili zen lasterleta guztietan Urtzi Markiegi, eta bi txandatan lortu zuen lehenengo hiruren artean sailkatzea, Karrantzan eta Ereñon. Azken sailkapenean hirugarren izan zen Nicolas Mietton, berez, aurretik izan zuen txanda guztietan, baina hark Ereñon puntuatu ez izanak eman zion bigarren postua Markiegi.

Jubeniletan, berriz, maila aparta eman du aurreko urtean Lander Rejanok, sei txandatatik lautan bigarren, eta beti aurrean. Bai Markiegiren, bai Rejanoren kasuetan, bietan, sailkapen oro-

korreko lehenengo posturako aukerarik ez zen izan, Jon Idiakez arabarrak eta Unai Larrañaga bizkaitarrak, hurrenez hurren, txanda guztiak irabazi zituzten-eta.

5 urte zituenean hasita

Lander Rejano 5 urterekin hasi zen motorrean ibiltzen; familiatik dator kio zaletasuna: "Osabarengandik, batez ere", dio aitak. "Motorrean lehenago hasi zen bizikletan baino. Jaietako atrakzioetako batean tokatu zitzaigun motor txiki horietako bat, eta harekin hasi zen. Gero moto-kroseko beste bat erosi genion, eta horrela".

2015ean hasi zen lehiatzen, eta mutikoa pozik; arriskua da etxekoen ardura nagusia, baina Landerren aita Franciscok dio "ondo babestuta" joaten direla. Orain arte, behintzat, ez du inoiz minik hartu. Emaitzei dagokienez, aurreko urte hartan bi modalitatetan jardun zuen: bigarren geratu zen *cross country*-an, eta laugarren moto-krosean. Iaz, berriz, bigarren, moto-krosean: "Ez genuen espero, baina egindako ahaleginaren ordaina izan da", dio

aitak. Eta aurten, gehiago eta, ahal bada, hobeto.

Erraza ez da izango, dena den, Unai Larrañagarekin lehiari jarraitu beharko du-eta Rejanok: "Larrañaga endurotik etorri da, eta mutikoa oso bizkor dabil. Horrez gain, beheragoko kategorietatik ere badatoz beste batzuk; adibidez, Albisua, Espainiako Txapelketa egin duena, eta, egia esan, aurten zailxeagoa izango da, ze horiek, esaten den modura, motorraren gainean bizi dira, ia-ia".

Adin horietan are gehiago, dena den, helburua, ondo pasatzea: "Guk lagundu diezaikegun bitartean eta berak nahi duen artean, hor jarraituko du". Mutikoari berari galdetuta, ordea, helburu zehatzagoak izendatzen ditu: 2017rako, "Unai Larrañagari irabaztea"; etorkizunerako, "munduko onena izatea". Lehenengo posible ikusten du; bigarrena, ametsa.

13 urte –oraintxe egin ditu, iazko lorpenak 12rekin lortutakoak dira–, ilusioa, eta argi dago ondo ikasita datorrela mutikoa. Elkarriketaren bukaeran, eskatu du: "Jarri babesleak: *onthemove.es*, Gorla Motor eta Garcia garajeak".



Lander Rejano, lehiari. L.R.



Atsedean hartzen. L.R.



Ander Valentin pilotu trebarekin. L.R.



Lander Rejano, aidean. L.R.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatzak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Urtzi Markiegi ere gustura

Urtzi Markiegi ere gustura dago aurreko denboraldian egindako lanarekin: "Txapelketa oso gogorra izaten da, maila handia dago; batzuek Espainiako Txapelketa ere korritzen dute, baina nirea zaletasuna baino ez da, eta gustura". Lehenengo posturako aukerarik ez du eduki, "oso azkar" ibili delako Jon Idiakez; motor gainean pasatzen diren orduak egiten dute alde, Markiegiren esanetan, eta berak "denbora askorik" eduki ez.

Zirkuituei dagokienez, dio denetik izan dutela txapelketa, laua, gorabehera askokoa eta bietatik duena. Berak gustukoan, gorabeheraduna, "exigenteena", eta hortxe, Ereñon, lortu zuen denboraldiko emaitza onena, bigarren postua.

16 urterekin erosi zuen moto-kroseko aurreneko motorra, eta duela zazpi hasi zen lehia-tzen -29 ditu, gaur egun-. 2015ean lortu zuen emaitza onena, lehenengo amaitu zuen-eta MX2an. 2017ari begira, dagoeneko hasi da berriz ere entrenatzen, ahalik eta maila onena eman guran, beti bere aukeren barruan. Izan ere, denboraz gain, baliabide ekonomikoak ere behar direla dio: "Dirua behar da joan-errietarako, eta motorraren mantenurako, piezetarako-eta".

Joan-errietariek diharduenean, entrenatzeaz dihardu: "Bergarako zirkuitua ez dute astebururo zabaltzen, eta entrenatzeko Mirandaraino joan behar dugu, gutxienez; gainera, bestela ere ez da ona beti zirkuitu berean entrenatzea; bestela, bai, han azkar ibiliko zara, baina beste batean...".



Urtzi Markiegi, beste pilotu baten atzetik. U.M.



Bihurgunea hartzen. U.M.



Urtzi Markiegi. ENEKO AZURMENDI



Aldamenetik hartutako argazkian. U.M.

Beste derbi bat bigarren itzulia hasteko, Aretxabaletaren zelaian

Arrasaten 0-3 irabazi ostean, Agorrosindik urrun jarraian laugarren garaipena nahi du Bergarak

J.I. BERGARA

Aurreko asteburuan amaitu zen lehenengo itzulia bezala, txapelketa bera ere lider bukatu nahi du Bergarak, datorren urtean maila bat gorago jokatu dela ziurtatzeko horrela. Horretarako, batez ere, kanpoan hobetu beharra adierazi zuen Mikel Juaristik orain aste batzuk, eta entrenatzailearen nahia betetzen ari dela esan daiteke, azken emaitzak ikusita. Hala iruditzen zaio Juaristiri berari ere: "Taldea erakusten ari da, Arrasaten bezala, kanpoan ere badakiela sufritzen, serio egoten; aukerak egiten ditugu, eta golak, etxetik kanpo ere heldutasuna hartzen ari gara".

Eta hori erakusteko beste aukera bat bihar, zapatua, izango dute mahoneroek, Ibarra futbol zelaian, 17:30ean. Sailkapen erdiko taldea da Aretxabaleta,



Aurreko asteko derbia. IMANOL SORIANO

baina bergararren entrenatzaileak dio "errespetu handiarekin" joango direla hara, derbia delako, haien kontrako partiduen aurrekariengatik, eta baita euren atzetik ligan gol gehien egin duen taldea delako ere, 31rekin -Bergarak 43 ditu-.

Hilaren 28an Aiako Harrira egingo du irteera Pol-Polek

Gaspe taldeak antolatutakoa, 16 kilometroko ibilbidea izango da denera, bost ordu eta erdi inguru, eta ondoren sagardotegian egingo dute bazkaria -35 euro; bertan ordainduko da-. Autobusa alokatu ahal izateko, berriz, 12 euro aurreratuta behar dira. Izena emateko: astelehen, eguen eta egubakoitzetan, 19:00etatik 20:00etara, lokalean.

Errendimendu eta Udaberri txapelketak, gaur, pilotalekuan

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasiko da jaialdia, Udal Pilotalekuan. Alebinen partidua izango da aurrenekoa, Bergarako eta Txapagaingo pilotarien artekoa. Etxekoek Eibarko pilotariak izango dituzte kontrario bigarren partiduan, infantil mailakoan. Azkenik, nagusietan, Mundararren aurka jardungo du Bergarak.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

"Umeen talentua ikusten abilak izan behar dugu"

NAIARA CUEVAS PEDAGOGOA

35 urterekin egin zuen Cuevasek Haur Hezkuntza ikasteko urratsa. "Pentsamendu kritikoa eta diziplina" zeukala argi zuenean. Promozioko notarik onena lortu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Naiara Cuevas antzuolarrak EHUK abian jarritako IKD Gazte proiektuan dihardu lanean. Benetan maite duen lan arloa pedagogia du eta garbi dauka ume bakoitzari daukan onena ateratzen lan egin behar dela. **35 urterekin egin zenuen pedagogia ikasketak egiteko urratsa. Eta baita lortu ere. Zure promozioko notarik onena lortu zenuen.**

Bai; gizarteak markatzen duen patroia horretatik aldentu egin naiz. 13 urtez taberna batean lanean ibili naiz eta nire ametsa hezkuntza arloan lan egitea zen. Horrela, Haur Hezkuntzako Goi Teknikari ikasketak egitera animatu nintzen. Ondoren, pedagogian murgildu nintzen, ezagutza handitzeko. Orduan sortu zitzaizkidan aukera IKD Gazte proiektuan jarduteko –ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa–. **Zergatik sortu zuen EHUK IKD Gazte proiektua?**

Bologna hezkuntza erreforma martxan jarri zenean sortu zen proiektua. EHUK eragile ezberdinen beharrak detektatzeko diagnosikoa abiatu zuen 2011n. Alde batetik, enpresa; eta bertan, profilen beharra lan munduan. Eta bestetik, irakasleen eta ikasleen beharrak aztertu zituen diagnosi horrek. Gogoeta horre-



Naiara Cuevas pedagogoa EHUKo bulegoan, Donostian. NAIARA CUEVAS

tan antzeman zuten ikasketa prozesuan autonomia falta zutela ikasleek eta lan esparruan diziplina anitzeko espazioaren falta zegoela; lan munduan errealitatearekin kontaktu mugatua zegoela, alegia. Ikasketak bukatzean errealitatera salto egiteko zubi hori ez zegoela. Ikasleek kudeatzen duten proiektua da. Ikasleen ahalduntzea bultzatzea da helburua. Diziplina talde ezberdinek –ingeniaritza, pedagogia, matematika...– gizarte eragileekin lan egiten dute ikaslea gizarteratu dadin.

Talde lanak badu indarririk?

Guztiz. Aberasgarria eta beharrezkoa da. Gizarte honetan taldean lan egin behar dugula uste dut. Sortzen den proiektua beti izango da aberasgarria eta ikuspuntu anitzekoa. IKD Gazte balorazio oso positiboak jaso ditu eta urtetik urtera martxan dagoen ekimena da. Eragileen aldetik emaitza onak eta positiboak jaso dira.

Umeen autonomia indartzea garrantzitsua dela diozu.

Bai, behar-beharrezkoa da; guztiz bat egiten dut profesioz psi-

kopedagogoia den Mendizabal hezitzailearen argudioekin. Kontua da nola bultzatu autonomia hori, umeek behar dutena ematen ari garen segurtasuna dutela jakinik; hor egongo litzateke gakoa. Izan ere, haurtzaro osasuntsua izateko, umearen behar guztiak asetzeak eta prozesuan aurrera egiten laguntzeak ez du esan nahi autonomia bermatzen ez gabiltzanik. Umeen beharrak ase eta euren erabaki eta ekin-tzetarako espazioa uzten diegunean, umeak arduratsuak eta autonomoak izateko aukerak eskaintzen egongo ginateke.

Umei barruan duten talentua azalerraten jakitea da gakoa?

Ume oro talentu batekin jaiotzen da. Gauza da umeen talentu eta gaitasunak ikusten abilak izan behar dugula. Hori da hezitzaileon funtzioen artean garrantzi handia hartzen duen zereginetako bat. Ditutzen abileziak indartu eta beste hainbat gaitasun eskuratzen lagundu, hain zuzen ere. Azken finean, ume bakoitza ezberdina da, bakarra da, bere gustu eta ikasteko erritmo ezberdinarekin, eta hori guztia errespetatu beharreko alderdia da. Kontuan izan behar dugu, Gardner-en teoriak dioen moduan, adimen mota ezberdinak daudela –zapi mota– eta adimen guztiak garatzeko aukerak eskaintzea izango litzatekeela egokiena, umeen arrakasta bultzatzea helburu izanez gero. Askotan gertatzen da eskoletan lan egiteko modu bat gauzatzen dela eta matematikarako eta hizkuntzarako adimenak izaten direla maiz indartzen edota garrantzia hartzen duten alderdiak, gaintzeko adimenak bigarren mailan utzita. Horrek ikasle batzuen arrakasta bermatzen duen bitartean, beste ikasle ba-

tzuek izan ditzaketen beste abilezia batzuk ez dira horrenbeste garatzen. Eskoletan lantzen ez diren beste adimenei lekua eskaintzea birplanteatu beharreko gaia dela iruditzen zait. **Hezkuntza erreformen inguruan zein iritzi duzu?**

Luzaro hitz egin genezakeen gaia dela iruditzen zait. Baina ikusi egin behar da erreformak zein intenziorekin egiten diren. Benetan testuinguru bakoitzeko errealitatea aintzat hartu eta dauden beharrei aurre egiteko diren; hau da, hezkuntza sistema hobetzeko diren edota politikarien onurarako diren eta, ondorioz, gizarte konkretu bat garatzeko intenziorekin egiten den. Askotan, aurreko erreformaren efikazia, hutsune eta indarguneak neurtzeko egiten dute erreforma; hor dugu Bologna erreformaren adibide eta gaur egun LOMCE legea indarrean sartzeko nahia. LOMCEk, esaterako, eduki homogeen eta zentralistetan oinarritutako curriculum espainiarra txertatzea du helburu, ikasle "txarrak" –neurketan espedientearen arabera– lehenbailehen antzeman eta hauek sistematik aldentzeko ahaleginak egiten dituen ibilbidea. Oroimenezko ezagutza eta akademikoa hobesten duen sistema da eta gaitasunak alde batera uzten dituen eredu ekonomizista da: pertsonen nortasuna ezabatzeke eta pertsona dependentzia bultzatzeko.

"ESKOLETAN LANTZEN EZ DIREN BESTE ADIMENEI ERE LEKUA EGIN BEHARKO LITZAIKE"

Giza eskubideak errespetatzea aldarrikatu dute antzuolarrek

Bilbon zapatuan egingo den manifestaziora joateko Aitz Garbi tabernan eman dezakete izena joan gura dutenek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gabonetan giza eskubideak aldarrikatzeko egin diren hainbat ekimenetan, 268 antzuolarrek euskal preso politikoen giza eskubideen urraketa salatu dute. Bat egin dute giza eskubideen

alde, konponbidearen alde eta bakearen alde egingo den manifestazioarekin. "Aspaldidanik eta etengabe jasaten ari dira euskal preso politikoen giza eskubideen urraketa. Horren ondorioak latzak dira: isolamen-

dua, gaixo egon arren askatzen ez dituzten presoak, kartzelara joan-etorrietan gertatu ohi diren istripuak, galera emozional eta ekonomikoak, besteak beste", azaldu dute. "Gabonetan Antzuolan aurrera eramandako dinamika eta ekimenetan 268 herritarrek salatu dituzte lege hauste eta eskubide urraketa horiek guztiak. Urtarrilaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora joateko dei ere egin dute". Autobusean joan gura duenak Aitz Garbin izena eman dezake.



Giza eskubideak aldarrikatu dituzten zenbait herritar. #SALATZENDUT



Aste barruan egunero batzen dira Olarango aretoan luzaketak egiteko, 09:30ean. MAIDER ARREGI

"Gorputzak eskertzen duelako", egin luzaketak

Gorputz atalen luzaketak egiteko antzular talde bat batzen da Olaran etxean egunero. Goiza hasteko modu "aproposa eta osasuntsua" dela diote eta onurak igartzen hasiak direla jada. Probatu gura duenak atek irekita dituela diote

Maidar Arregi ANTZUOLA

Luzaketak egiteak gorputzeko artikulazio, muskulu eta hezurrendako duen garrantziaz ohartuta, goizero Antzuolako emakume talde bat batzen da Olaran etxeke bilera aretoan.

Izan ere, luzaketak egiteak dakarren onurez kontziente dira eta orain dela hiru hilabete abiatutako ikastaroari jarraipena eman diote eurek gidatutako saioen bitartez. Inma Beristainek eta Mari Karmen Larrañagak gidatuta, ordu erdiz egiten dituzte askotariko luzaketa ariketak. "Gorputz atal guztiak lantzen ditugu; oinarrizko luzaketak egiten ditugu, baina garrantzitsuena hankak eta bizkarra luzatzea da", dio Larrañagak.

Eguna, gainera, beste era batera hasten laguntzen dietela diote: "Luzaketak egitea gorputzarendako ona dela igarri dugu eta eguna beste modu batera hasten laguntzen digu".

Iaz, urrian hasi ziren, Pili Arin erizainak gidatuta, ikasta-

roa egiten. Orain, luzaketen garrantziaz eta horiek dakarten onurak jakinda, herritarrek euren hartu dute ardura eta ilusioa luzaketa saioekin jarraitzeko. "Aurten ere jarraituko dugu luzaketa saioak goizero eskaintzen. Tarteka, hipopresiboak ere egiten ditugu, oso ona baita bizkarreko arazoak saihesteko", gaineratu dute.

Prebentziorako

Hain justu ere, zenbait lesio edo arazoren aurrean, prebentzio gisa baliagarriak dira luzaketak. Egunero luzaketak egiten dituztenek igarri dituzte jada onurak eta edonork egin beharko lituzkeela diote aho batez. Hala, antzular orok aukera dauka egunero 09:30ean Olaranera gerturatzeko.



MARI KARMEN LARRAÑAGA
IKASTAROAREN GIDARIA

"Mantente-lana egin beharra daukat; izan ere, hezurretako gaitza daukat. Horregatik, betidanik egin ditut luzaketak. On egiten didate eta".



ENKARNI KORTABARRÍA
IKASLEA

"Luzaketei esker min gutxiago daukat. Artikulazioak gogortu egiten zaizkit eta modu horretan bigun eta malgu izaten ditut, mina arinduz".

Saharar herriari laguntzeko kanpaina abian da aurten ere

Goiena komunitatea

Anelkar elkarte / ANTZUOLA

Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteak bultzatuta, aurten ere martxan da XIII. Piztu Itxaropena kanpaina. Antzuolan, eskolak, Udalak eta Anelkar elkarteak bultzatzen dugu kanpaina hau. Honen inguruan hainbat ekintza antolatu ditugu.

Helburu nagusia saharar herriari elikagaiak helaraztea da. Tindufen (Aljeria) errefuxiatutako sahararrek gaur egun jasaten duten elikadura krisi larria ahal den neurrian arintzea gura dugu. Hala, dagoeneko martxan da, urtarrilaren 21era arte, elikagaiak batzeko kanpaina.

Elikagai hauek jasotzen ditugu: hegaluzea eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, lekaleak, helduendako fardelak eta konpresak. Horiexek biltzea proposatu dugu, horiek baitira sahararrentzako elikadura osagarria biltzeko estatu mailan egin den banaketan Euskadiri egokitu zaizkion elikagaiak.

Ondorengo egunetan elikagaiak eskolan, Aixa, Amaia eta Eroski dendetan jasoko dira. Esan, iazko kanpainari esker, 649 kilo elikagai batzea lortu zela.

Laguntza ekonomikoa eman gura dutenek aukera dute, ondorengo kontu korronte zenbakian dirua sartuta: Laboral Kutxa, 3035 0080 94 0800054177.



AKE

AKEn zozketak badu irabazlea

Goiena komunitatea / Antzuolako Kirol Elkarte / ANTZUOLA

Antzuolako Kirol Elkarteak antolatutako Gabonetako otarrearen zozketak badauka irabazlea. Hain zuzen ere, zenbaki saritua 1.831 izan da eta irabazlea kadete mailako jokalaria Josu Lopez.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

"Lekukotzak behar dira kereila aurkezteko"

AINHOA BERNABE ELGETAKO KULTURA ETA TURISMO TEKNIKARIA

Elgetako Udalak astelehenean zabalduko du testigantzen bulegoa. Ahalik eta dokumentazio osatuena behar du frankismoaren aurkako auzian kereila aurkezteko

Larraitz Zeberio ELGETA

Kultura eta Turismo teknikari Ainhoa Bernabek artatuko ditu herritarrak testigantzen bulegoan. Elgetako Udalak frankismoaren aurkako auzian kereilatzaile gisa aurkezteko erabakia hartu zuen uztaileko osoko bilkuran. Lekukotasunak eta dokumentazioa behar ditu orain kereila aurkezteko.

Zein da Elgetako testigantzen bulegoaren xedea?

Herrian gertatutako gizateriaren aurkako krimen guztiak salatzea da, eta horientzako egia, justizia eta erreparazioa eskatzea. Udalaren helburua herritarren interesak defenditzea da, eta kereila honen bitartez biktimei edo biktimen senitartekoei salaketak plazaratzeko aukera ematen zaie. Laburbilduz, bulegoaren helburua lekukotasunak jaso, txostena osatu eta erantzuleen aurka salaketa ipintzea da. **Zenbat izan daitezke Elgetan jaso daitezkeen lekukotasunak?**

Ditugun zerrendak frontean edo gerra ostean hildakoekin eta errepresaliatuekin osatuta daude. Dei berezia egiten diegu diktadurako 40 urteetan biktima izandako herritarrei. Gure datuen arabera, frontean eta gerra ostean 25etik gora izan ziren hildako herritarrak eta beste hogeitabat errepresaliatuak –atzerritatuak, espetxeratuak, isun ekonomikoak jasotakoak, lan behartuak jasandakoak...—. Herritarrei, etxean entzundako kontuak kontatzeko eskatzen diegu, armairuan dituzten paper zaharrak erakusteko... Dena da baliozkoa. **Zer esango zenieke euren historia oraindik kontatu ez dutenei?**

Gertatutakoaren egia osoa ezagutaraztea biktimen eta biktimen senitartekoen esku dago. Gure memoria historikoa guk eraikiko badugu, ezinbestekoa da gertatutakoaren lekukotasunak ematea. Badakigu gai oso sentikorra dela. Biktima askok ahaztu egin



Kultura eta Turismo teknikari Ainhoa Bernabe, Elgetako udaletxean. L.Z.

"BADAKIGU GAI OSO SENTIKORRA DELA (...) KONFIDENTZIALTASUN ETA SENTSIBILITATE OSOZ JOKATUKO DUGU"

nahi izaten dute. Ziurtatzen dugu konfidentzialtasun eta sentsibilitate osoz jokatu dugula. Kereilari gisa aurkezteko Udalak frogak behar ditu, eta, horretarako, 1936ko uztailetik 1977ko ekainera bitarteko erailketak, bortxaketak, torturak, bahiketak, desjabetzeak... jaso nahi ditugu. Eta dokumentazioa. Zenbat eta testigantza eta dokumentazio zehatzagoak, orduan eta zailagoa egingo zaie kereila errefusatzeko. **Bada jada kereilatzailerik Elgetan?** Bai, bada familia elgetar bat Argentinako kereilan: telleriatarrak.

Eta nola ematen da testigantza? Gertatutakoaren kontaketa argia eta zehatza behar dugu, norberak idatziz egindakoa edo guk hemen kamera batekin grabatutakoa. Gero, ahalik eta dokumentazio gehiago beharko genuke: atxiloteta datak eta tokiak,

egondako kartzelak, zigorrak, errepresaliak, egindako gose grebak...Epaiketak egon badira, haien berri, ahal dela, epailearen izenarekin, torturen edo irainen datak eta tokiak, ondasun konfiskatuen berri, errepresio politikoak eragindako kaleratze laboralen datak eta tokiak, sumarioak, sententziak, isunak, kartzelaratze komunikazioak, indultuen ezezkoak, kondena betetzearen agiriak... Eta nor-tasun agiria aurkeztu behar da. **Ordaindu egin behar da?**

Herritarrendako ez du inolako kostu ekonomikorik. Prozesu honek sortzen dituen gastuak ez dira handiak, eta Udalak hartuko ditu bere gain. Behin testigantza jasota, Udalarik dagokio txostenak prestatzea eta epaitegietan aurkezteak.

Beste udalerririk askok izan dute ekimen bera?

Iruñean eta Gasteizen martxan daude dagoeneko. Iruñean 300 testigantza baino gehiago jaso dituzte. Badakigu etorriko direla gehiago: Gernika, Durango, Otxandio, Errenteria, Eibar... Elgeta da horrelako bulego bat irekitzen duen lehenengo herri txikia.

Euskararen Ginkanan ari diren mintzalagun taldekoen ekintza

Hainbat herritarrekin batera koloreztatutako leloa zintzilikatu zuten eguaztenean kultura etxetik

L.Z. ELGETA

Bi probaren faltan, @GinkanaElgeta taldeko seikoteak gertu du urtarrilaren 28ko finalerako txartela. Abendu erdialdea ez-kero dihardute Euskararen Ginkanan, eta aste honetako proba izan da sei eguneko epean euskararen aldeko kale ekintza bat antolatzea eta bideoa aurkezteak. *Nork zainduko du euskara guk zaintzen ez badugu?* irakur zitezkeen eguaztenean kultura etxetik zintzilikatutako pankartan. Askotariko herritarrek lagundu dute mezu hori koloreztatzen.



L.Z.



ANTOLATZAILEAK

200 lagun, domekan, Intxortan

Gudariei urteroko omenaldia egiteko 200 bat lagun izan ziren domekan Intxortan. Hamaietakoak, ekitaldia eta talde argazkia egin zituzten. Horrez gain, Elgetatik autobusa antolatu dute Bilboko zapatuko manifestaziorako, eta 16:00etan aterako da. Antolatzaileek jakinarazi dute izen ematea zabalik dela Haizea tabernan, eserlekuak bete arte.

Irisgarritasuna hobetzeko hesia Anaietxe parean

Elgetako Udalak hainbat lan egin zituen iaz herrian irisgarritasuna hobetzeko. Lan garrantzitsuak egin zituzten Herri Eskolan; batez ere, eskaileretan. Egokitu zituzten baita ere frontoi zaharraren parean dauden eskailerak. Eibarrerako autobusa hartzeko gunean jaitsi egin zuten espaloien maila, gurgil aulkiekin edo haurtxoen aulkie-

kin arazo gutxiago izateko. Anaietxe parean, berriz, baranda berria ipini zuten. Hain zuzen ere, 2016ko azken irisgarritasun lanak Anaietxe parean egin zituen Udalak. Hesi berria ipini zuten abenduaren 23an. "Arriskutsu zegoen leku hori eta jarrita dago jadanik hesia", adierazi dute udal arduradunek.

Asmoa da 2017an irisgarritasun lanekin jarraitzea. Bost mila euro daude aurreikusita herrian irisgarritasun eta segurtasun lanak egiten jarraitzeko.

Gonbidatu bereziak berriz ere gaztelekuan

Elgetako artisauak eta kirolariak ezagutu gura dituzte gaztetxoek hiruhileko honetan, eta, oraingoz, Lorena Ibeas, Pili Arin eta Igor Herce gonbidatu dituzte. 'Berdinen arteko harremanak' izeneko tailer gidatua ere egingo dute gaztelekuan negu honetan

Larraitz Zeberio ELGETA

Gazteleku zerbitzuko gaztetxoek domekan adostu zuten hurrengo hiruhilekorako egitaraua. Hainbat proposamen zituzten mahai gainean eta aurrera egin dutenen artean daude mahai-futbol txapelketa, San Blas opilak, irabiatuak eta pizzak egiten ikasteko sukaldaritza tailerra, grafiti eta txotxongilo tailerra, zein *tatoo* arte mota ezagutzeko saioa. Horrekin batera hezkidetzatza eta tratu onak bultzatzeko tailer berezia egingo dute. *Berdinen arteko harremanak* izenburupean gidatutako hiru saio egingo dituzte gazteleku zerbitzuan urtarrilaren 22an eta 29an eta otsailaren 12an, 16:30ean. Saio horiek herriko gaztetxo guztiendako izango dira, eta ate irekiak egingo dituzte gaztelekuan. Hain zuzen ere, ekimen horrekin lotuta dago lehen hiruhilekoan kantuen letra sexistak identifikatzen ikasteko egindako tailerra. Emagin taldeko Rebeka Maestrok gidatu zuen saio hori, eta gaztetxoek etxetik eramandako diskoetako kantuen letrak aztertu zituzten.

Bisita bereziak

Ekitaldi berri horretan ere bisita bereziak izango dituzte gaztelekuan. Abenduan arrakasta polita izan zuten hainbat herritarrek beraien afizioak eta lanbideak aurkezteko egindako aurkezpenek; bereziki, Fernando Albeniz suhiltzaileak eta Daniel Gillegi basozainak egindakoak. Bigarren hiruhileko honetan herriko artisauak izango dituzte bisitan gaztelekuan, eta Lorena Ibeas, Pili Arin eta Igor

LAUGARREN MAILATIK GORAKOENAKO PELIKULA EMANGO DUTE ZAPATUAN, 16:30EAN

Herce gonbidatu dituzte. Herriko kirolariekin ere egin gura dituzte aurkezpen saioak.

Auzoak ezagutzeko irteerak ere prestatu dituzte, eta Goi-mendi zein Uriarte auzoak bisitatuko dituzte. Herriko gaztetxo guztiendako irteerak izango dira, zerbitzuko erabiltzaile izan edo ez. Pelikula emanaldiak ere irekiak izango dira, eta bi euroko sarrera ordaindu beharko dute erabiltzaile ez direnek.

Senda Vivara irteera

Gaztelekuko Senda Viva parkeera joan gura dute ekainean, eta dirua ateratzeko Gabonetako apaingarriak saldu dituzte abenduan. Eskerrak ematen dizkiete postura gerturatu diren guztiak. Aurrerantzean Ararusteetarako maskarak eta diademak, eskumuturrekoak eta lepokoak prestatutako dituzte. Asmoa da hiruhileko honetan ere salmentekin jarraitzea.



Gaztelekuko gazte taldea Gabonetako apaingarriak saltzen. L.Z.



Emagin taldeko Rebeka Maestro Elgetako gaztelekuko gazteekin. ELGETAKO GAZTELEKUA

Urte berriarekin batera itxi du arrandegia Amagoia Irazabalek

Sei urtez eman du zerbitzua eta azaldu du salmenta txikiak eraginda erabaki duela negozioa ixtea

L.Z. ELGETA

Arrandegirik gabe gelditu da Elgeta. 2010eko azaroaren 23an zabaldu zuen negozioa Salvador kalean Amagoia Irazabalek, baina erabaki du ixteko unea iritsi dela 2017an. "Salmentak oso txikiak ziren, eta dirua galtzen nengoen aspaldian. Bezeroak ere gutxi ziren. Kalkulatuta daukat ez zirela biztanle kopuruaren %7ra heltzen. Nire iritziz, herriak ez du lagundu, eta orain zerbitzu bat gutxiago dugu herrian", adierazi du orain arteko arrain saltzaileak.

Ez da lehen aldia Elgeta arrandegirik gabe gelditzen dela. Irazabalek negozioa zabaldu aurretik saltzaile ibiltari bat etortzen zen eguen goizetan hozkailu-fur-goneta batekin. Lerrook idazteko orduan, Irazabalek ez zekien antzerako zerbitzu bat izango duten, atzera ere, elgetarrek. Abisua pasata dagoela esan du.

Lanean jarraituko du Irazabalek; kasu honetan, taberna batean. "Lan erosoagoa da, eta oso gustura dihardut. Lan ordutegiari dagokionez, ez dago alderik".



ELGETAKO UDALA

Neska-mutikoak ere pilotan

Errege egunean jokatu zituzten Gabonetako umeen pilota txapelketako sei finalak. Ikuskizun polita eskaini zuten umeek. Azkenean, Unax Agirrek, Janitz Isasik, Jokin Zeziagak, Itsaso Askasibarrek eta Pablo Egizabalek jaso zuten domina. Parte hartzaile guztiak saritu eta zoriondu zituzten Kirol zinegotzi Mikel Elkorok eta Elgetako alkate Iraitz Lazkanok.

Bazkidetza eta federatu txartelak Kantsatzeke taldean

Urtero moduan, urte hasieran bazkidetza eta federatu txartelak ateratzeko aukera emango du Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak. Interesatuak jakinarazi die urtarrileko martitzen guztietan kultura etxeko bigarren solairuko gelan izango direla, 19:00etatik 20:00etara. Argibide gehiago behar dituenak bertan eska ditzake.

Domeka arratsaldean umeendako marrazki lehiaketa Spaloian

Hamabi urtera arteko umeendako lehiaketa da, eta 17:00etatik 19:00etara izango da. Irabazleak bozketa bidez aukeratu dute, eta sari banaketa urtarrilaren 21ean izango da, 19:00etan. Bestalde, Spaloitik jakinarazi dute Sarek zapaturako deituta duen manifestazioarekin bat eginik zapatuan itxita egongo dela aretoa 16:00etatik 19:00etara.



Abenduaren 22an egindako osoko bilkuran onartu zuten 2017ko aurrekontua. O.E.

Diru gutxiago aurten Udalak

Joan den urtekoa baino %7,53 euro txikiagoa izango da aurtengo aurrekontua; 18.386.811,75 euro guztira. Proiektu batzuek jarraipena izango dute, eta berriak ere egingo dira. Santa Ana antzokiko zerbitzua, adibidez, lehiaketa bidez esleituko dute

Oihana Elortza OÑATI

Etxaluze parkea eraberritzea (275.000 euro), Eltzia pareko parkean ur jolasen eremua eta helduendako gimnasia egiteko aparatuak egongo diren aisialdi parkea egitea (500.000 euro) eta San Lorentzo eta Ugarkalde lotuko dituen bidegorria egitea (240.000 euro) dira 2017ko aurrekontuan jasotzen diren inbertsio handietako batzuk. Eltzia pareko *Ur Uhinak* exekuzio egitasmoa, gainera, dagoeneko bukatzeaz dute eta urtarrilaren 23ko astean proiektua esku artean izango du Udalak.

Besteak beste, proiektu horiek jasotzen dituen 2017ko aurrekontua onartu zuen udalbatzak abenduaren 22an. Beste behin, urte zaharra bukatu aurretik onartu dute berriaren aurrekontua. 2016ko osoko bilkurarik luzeena izan zen, alde bateko

zein besteko zinegotziek banan-banan azaldu zituzten sail bakoitzerako zituzten asmoak eta eztabaidatu ere egin zuten. Azkenean, EH Bilduko ordezkarien aldeko eta EAJkoen kontrako botoekin onartu zuten. Joan den urtekoa baino %7,53 euro txikiagoa izango da aurtengo aurrekontua; 18.386.811,75 euro guztira. Ezagugarrien artean, inbertsioetan egongo den jaitziera da bat. "Aldiz, gastu soziala igo egingo da eta finantza ikuspegitik begiratuta orekatua da", zehaztu Mikel Biain alkateak.

TOPAGUNEKO KIDE BATEK HERRI CURRICULUMA GARATZEN LAGUNDUKO DU

Azterketak

Igoera nabarmena izango duen saila Berdintasunarena izango da; %25 igoko da. "Jabekuntza eskolaren kudeaketa Udalak hartu du. Eskolak emango dira, baina prozesu parte-hartzaile bat jarriko da martxan zer-nolako eskola gura dugun zehazteko. Emakumeen Kontseilua ere sortuko dugu, eta martxan jarri indarkeria kasuei arreta eskaintzen dieten erakundeen arteko protokoloa", azaldu zuen Berdintasun zinegotzi Leire Zumaldek aurrekontua onartu zen osoko bilkuran. Azterketa eta lan horiek egiteko 30.000 euro gorde dituzte. Aurten egingo diren beste azterketa batzuen artean, merkataritzari lotutako bat ere badago. "Belaunaldien arteko erreleboa landu gura dugu, eta, horretarako, diru laguntza jaso dugu", zehaztu

"Finantza egoera orekatua da, modu iraunkorrean, gainera"

MIKEL BIAIN ALKATEA

Aurrekontuarekin "pozik" dagoela dio Biainek eta "harritu" egin zituela EAJren ezetzak, "kontuan izanik inbertsio mailan proposamen esanguratsuen onartu egin genuela". Dio batzordeetako teknikariak hasita daudela kronogramak egiten proiektuak exekutatzeko.



GOIENA

Ze berezitasun ditu onartutako aurrekontuak?

Aurreko urtearekiko inbertsioetan jaitziera bat izan da, baina inbertsio mailak altua izaten jarraitzen du, eta horren erakusgarri dira onartu diren proiektu ezberdinak. Bestalde, gizarte politiken alorrean gastu soziala igo egin da, batez ere, emergentzietako diru laguntzen eta laguntza psikosozialen alorrean. Berdintasun departamenduaren indartzea ere aipagarria iruditzen zait. Azkenik, aipagarria da aurrekontuaren egituraren ere ageriko aldaketa bat badagoela, 491.000 euroko FCCren kontratua desagertzen delako gastu arrunt gisa, eta, aldiz, pertsonal kapituluan 330.000 euroko igoera bat ematen delako.

Zergatik jaitzi da inbertsioa %30,40?

Neurri handi baten, "ekipamendu sozialetarako" 950.000 euroko partida 2018ra atzeratzen delako izan da. Eskualde mailako gizarte zerbitzuen maparen azterketa egiten dihardu SIIS erakundeak.

Zein da finantza egoera?

Orekatua da, 2017an sarrera arruntak gastu arruntaren gainetik jartzea lortu dugu. Gainera, modu iraunkorrean. Honetan zerikusi zuzena dute katastroaren berriak eta zerga ordenantza berriak.

Aldiz, 2.500 euroko maileguaren beharra ere aipatu duzue inbertsioei aurre egiteko.

Aurrekontua koadratzeko mailegu beharra aurreikusi da, bai. Dena dela, erabilera zenbatekoa izango den 2017ko lehen hiruhilekoan ikusiko da, 2016ko aurrekontuaren exekuzioaren arabera. Gaurkoz, 2016ko aurrekontuaren exekuzio orokorra %79koa da, eta hemengo soberakinetik mailegu beharra murriztuko da.

zuen Ana Martinek, Sozioekonomia zinegotziak.

Herriko jarduera ezberdinekin duten eragin akustikoa neurtzeko azterketa, zarata mapa, egiteko ere gorde dute dirua, 25.000 euro. Eta beste 20.000 euro herriguneko eremu historikoko etxebizitzaren eta lokalen egoerak aztertzeko.

Horiekin batera, aurretik egingo azterketekin proiektua egin eta martxan jarriko dituzte aurten. Esaterako, 2017ko lehen hiruhilekoan jarri gura dute indarrean harrera protokoloa. Euskarari lotuta, kale-

rabileraren neurketa egin zuten iaz, eta herriko erradiografia eguneratua osatuko dute aurten. Plan estrategikoaren azken urtea ere izango da, eta baita horren balorazioa egiteko urtea ere.

Herriko auzoak eraberritzeko asmoa ere egongo da 2017an. Zubillagako bigarren fasea egiteko, adibidez, 160.000 euro gorde dituzte eta beste 262.000 euro Olakua auzorako. Azken lan horiek, gainera, auzotarrek adostutakoak eta koordinatutakoak izango dira, Etxaluzen moduan.

Santa Ana

Aurten bete gura diren beste egitasmoen artean, Santa Ana antzokiaren inguruko berritasunak daude. Joan den urtean teilatua konpondu zuten eta aurten barruan egingo dituzte lanak: komunak egokituko di-

KONPOSTATZE EREDU EZBERDINEN ARTEKO ALDERAKETA EGIN ETA ONDORIOAK ATERAKO DIRA

Kontra egotea arrazoitu du EAJk

"EAJ-PNVren udal taldeak aurrekontua hobetzeko 37 proposamen aurkeztu ditu, lan sakon eta eraikitzailea egin ondoren. Tamalgarria iruditu zaigu EH Bilduko gobernuak erakutsi duen elkarlanerako borondate falta. Gehienak atzera bota edo atzeratu egin ditu. Gobernuak ez ditu



Lourdes Idoiaga. O.E.

premiak hartu, esaterako: bizikleten zirkulaziorako ordenantza urgentziaz egitea, igerileku irekiaren eta atletismo pistaren azterketak egitea, San Martin parkean korrikarako bidea egitea, eskola kirolean begiraleei *bullying*-ari buruz formazio sakona ematea eta Kale Zahar inguruko zaraten mapa premiaz egitea. Eta ez ditu onartu: TAOa bi ordura zabaltzea, kulturaren eta euskararen urteko sariak sortzea, EIT(ITE)-aren aginduz egindako obrak aurtun diruz laguntzea edo berdintasun plana jartzea enpresetan. Sozioekonomia indartzea ere estrategikoa da guretzat eta langabe, merkatari, autonomo eta nekazaritza arlorako hainbat iniziatiba aurkeztu ditugu. Bai onartu dute San Lorentzoko 12-24 atari inguruko obrak egitea 2017an.

Uste dugu aurrekontuari ambizioa eta errealismoa falta zaiola. Ez dugu ulertzen, adibidez, egungo igerilekua handitzeko partidari ez jasotzea dauden arazoak ikusirik, eta ez dugu errealista ikusten 2016rako 3,6 milioi euroko inbertsioetatik bakarrik 1,6 milioi exekutatu (%44) eta 2017rako aurreikustea 3,5 milioi gehi 2 milioi atzeratutakoak. Herritarrei hitz emandakoa ez betetzea uste dugu ez dela kudeaketa eredu egokia. Oñatiarren alde lanean eta proposamenak egiten jarraituko dugu behin eta berriz".

tuzte eta kamerinoak txukundu, esaterako. 10.000 euro gorde dituzte lan horiek egiteko.

Baina Santa Ana antzokiaren kudeaketari lotuta ere berrikuntzak egongo dira. "Antzoki horrek ematen duen zerbitzua lehiaketa bidez esleituko dugu. Gaur egun, handia da Santa Anaren erabilera eta hori hobeto kudeatzeko esleituko da zerbitzua", azaldu zuen Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak, abenduko oso kulkura hartan. 31.000 euro daude horretarako. Udaleko musika ekipoaren kudeaketaz ere arduratuko da zerbitzua hartzen duena. Bestalde, taldeen jardunerako eta argitalpenetarako diru laguntzak ere izango dira aurtun ere eta kultura etxe-ko fatxada margotu egingo dute.

Kultura Sailaren kontrara, Kirolaren aurrekontua txikiagoa izango da aurtun. Borja Moiu Kirol zinegotziak azaldu zuen moduan, "inbertsioen atalean apenas dago ezer aipagarririk. Kiroldegiko gastu arrun-terako izango da diruaren zatirik handiena". Horrez gain, Moiuak aipatu zuen kirol has-tapenari "beste buelta" bat eman

gura diotela. Ikastetxeen artean elkarte bat sortu dela aipatu zuen eta eredu aldaketa aurtun, 2017an, gauzatu ahal izango dela. Bestalde, joan den urtean sortutako talde eragileak lanean jarraituko duela ere aipatu zuen, herriko kirol instalazioen analisi bat egin eta inbertsioen lehentasunak zehazteko.

'Guifinet'

Internet zerbitzua auzoetara heltzeko lanak ere egingo dira 2017an. "Arantzazu inguruan egin da proba pilotu bat eta zerbitzu hori beste toki batzuetara zabaltzeko gura genuke", azaldu zuen Auzoak eta Landa Garapeneko batzordeburuak, Mikel Biainek. Landa inguruari lotuta, herri onurako mendietan ekin-tza planak egitea ere aurreikus-ten da. "Aldundiaren Basoetako Sailak ez du aintzat hartzen 2015ean onartutako Artia mendiko ordenazio plana eta oso larria iruditzen zaigu. Udalak elkarlanean aritzeko borondatea agertu izan du beti eta horren erakusgarri da ordenazio plana bera. Udalak erabaki batzuk hartu beharko ditu", dio Biainek.

Egingo diren proiektuetako lau



Orduerdi dago herribus zerbitzua. O.E.

Herribusak jarraitu egingo du. Erabiltzaile kopurua igotzen doa poliki-poliki (urritik orain arte 5.500 bidaiari inguru). 150.000 euro.



Hamasei auzo ditu Oñatin. O.E.

Auzotasuna programa 2013tik dago martxan eta aurtun ere diru partida bera izango du, 100.000 euro. Auzo-taxi zerbitzuak ere jarraituko du.



Herriko komunikabideak daude egun dorrea. O.E.

Olakuako dorrean egokitzapen lanak egingo dituzte sormen eta ekintzailetasun gunea egiteko. Hasita daude azterketa egiten. 35.000 euro.



Ibilgailuak eta baloiak elkartzen dira Olaiturrin. O.E.

Olaiturri gunearen azterketa egingo da. Aurtun proiektua eta beharra ikusiz gero, inbertsioak hurrengo ekitaldietan. 25.000 euro.

Aurrekontua departamentuka

| Izena | 2016 | 2017 | DIF. % |
|--------------------------------|----------------------|----------------------|--------------|
| Komunikazioa eta parte-hartzea | 842.658,55 | 796.480,98 | -5,48 |
| Gizarte zerbitzuak | 2.642.701,81 | 1.759.969,82 | -33,40 |
| Kirola | 1.228.931,42 | 1.212.669,03 | -1,32 |
| Kultura | 1.075.184,55 | 1.099.162,55 | 2,23 |
| Barne antolaketa | 6.613.437,91 | 6.602.560,20 | -0,16 |
| Sozioekonomia | 524.249,42 | 571.210,44 | 8,96 |
| Lurralde antolaketa | 6.065.495,84 | 5.411.080,48 | -10,78 |
| Aisialdi hezitzailea | 893.149,88 | 933.678,25 | 4,54 |
| Guztira | 19.885.809,38 | 18.386.811,75 | -7,53 |

"Kilimanjaroko gailurra egin nuen, 66 urterekin"

JAXINTO LIZARRALDE MENDIZALEA

Aurten 86 urte beteko ditu mendizale oñatiarrak eta oraindik ere sasoi bikainean dagoela erakutsi du; izan ere, Gabonen aurretik Aizkorriko gailurra zapaldu zuen

Eneko Azurmendi OÑATI

Jaxinto Lizarralde (1931), urte askoan harakina izateaz gain, mendizale amorratua ere bada. Garai batean, egunero egiten zuen Aizkorritik buelta eta beste makina bat anekdota ere badu. Urte batzuk Aizkorriara joan gabe egon ostean, Gabonen aurretik igo zen, ETBko *Gailurra* programaren grabazioan.

Aizkorri makina bat aldiz igotakoa zara. Zer dela eta zaletasun hori?

Ardiekin ibiltzen nintzen gaztetan, artzain lanetan, eta gero, mendira joateko ohiturari jarraitu egin nion. Ondoren, harategian lan egiten nuenean, eguerdian lanetik irten eta Aizkorriara joaten nintzen. Arantzazuraino Land Rover zahar batean joaten nintzen. Gaztetan bizkor egoten da norbera ere, eta segidan egiten nuen Aizkorriara joan-etorria, berriro ere lanera itzultzeko.

Egun batean, bost aldiz igo zenuen Aizkorri.

Bai; urte batzuk pasa nituen hori prestatzen. Gaztetatik ondo ezagutzen nuen mendi hura eta asteburuetan bikoitzak sarri egiten nizekion, baita hirukoitzak ere. Bi urtez lau aldiz igo nuen eta bost igoera saiatzea erabaki nuen, aldiro lagun desberdin bat alboan nuela. Beste lagun bat 16 orduz egon zen Aizkorriko puntan, nire igoera guztiak kontrolatzen.

Ekinaldi berean sei gailur ere egin da dituzu.

Hala da. Kosta egin zitzaidan hori prestatzea, bi gau pasa behar nituen eta. Egubakoitz ilunkera batean irten nintzen, Murua izeneko herrixko batetik Gorbaiara. Handik Anbotora, eguna zabaltzear zela, eta ondoren Udaltzera. Jaitsi eta, Arantzazutik pasa ondoren, Aizkorriara igo nintzen. Gero, Otzaurterantz abiatu nintzen eta han bigarren gaua hasi zitzaidan. Ondoren, Etxegaraten barrena, Aralar igo



Jaxinto Lizarralde, etxean. ENEKO AZURMENDI

"ARTZAIN HASI NINTZEN GAZTETAN ETA GERORA MENDIRA JOATEKO OHITURA MANTENDU DUT"

nuen, eta, azkenik, Txindoki. Handik Larraitzera jaitsi eta etxera. Hamar lagun aritu ziren niri laguntzen, txandaka.

Zenbat aldiz etorri zara Iruñetik Oñatira oinez?

Hiru bat aldiz bai. Lehenengo aldiaren errepidez egiten saiatu nintzen, baina Altsasutik aurrerako bidea menditik egin nuen, errepidetik gogorra zelako. Bigarren aldiaren, bide guztia mendiz egin nuen. Hirugarrenean, gogorra izango zela banekien arren, guztia errepidez egin nuen. Sasoi ona ere bagenuen garai hartan eta halako gauzak egiten genituen.

Hemengo mendiez aparte, zein da igo duzun zailena?

Kilimanjaroko gailurra egin nuen (Tanzania), 66 urterekin. Erretiroa hartu nuenean, seme-alabek eta emazteak bi proposamen egin zizkidaten, eurek ordaindutako

bidaia bat egiteko: Machu Picchu edo Kilimanjaro. Nik bigarren hori aukeratu nuen. Donostiako espedizio batekin joan nintzen. Mendi gogorra da, sumendi bat. Hamaika lagun ginen eta guztiok lortu genuen gailurra egitea. Hala ere, momentu hartan ez geneukan aureskua egiteko gogorik, -15 gradu zeuden. Esperientzia ederra izan zen, gogorra izan zen arren.

Denboraldi luze baten ostean, berriz ere Aizkorriko gailurra zapaldu duzu. Zer sentitu zenuen momentu hartan?

Bai; ETBko *Gailurra* programa grabatzeko igo ginen. Andoni Aizpuruk berak deitu zidan esanez hara igo behar genuela. Nik udan igotzea nahiago nuela esan nion, baina hark neguan behar zuela esan zidan, Gabonen aurretik. Nik baiezkoa eman nion. Eguraldia eta elurra nahiko arriskutsu zeuden arren, goraino igo ginen, eta, gailurra zapaldu nuenean, hunkitu egin nintzen. Gurutzea besarkatu nuen eta han zegoen lagun batek esan zidan negar egin zuela ni horrela ikusita. Zera pentsatu zuela esan zidan: "Honek gurutzea etxera eramanez du!".



IMANOL SORIANO

Txantxak izan dira protagonista

Irazan antzerki-guneak antolatuta, Txantxakale gala egin zuten pasa den zapatuan Santa Ana antzokian, txantxak eta inprobisazioa ardatz hartuta.

Josu Zubia Irazaneko kidearen esanetan, "oso ondo" joan zen guztia. "Gustura gaude. Jendearen erantzuna ederra izan zen, espero ez genituen barre algarak ikusi genituen ikusleengan eta antzokia bete egin zen", dio.

Urtarrilean egingo diren bi antzezlanen sarrerak salgai

Alde batetik, *Frankoren biloba-ri gutuna* antzezlan urtarrilaren 22an egingo da, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da, Ander Lipus protagonista duena. Ximun Fuchs da obraren zuzendaria. Egileen esanetan, iraun beharrezko gaitzak jotako komunitate baten

hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da obra hori. Sarrerak *bibe.me* atarian daude salgai, 10 eurotan.

Bestetik, *Mari Kizkur eta hiru hartzak* haur antzerkia, urtarrilaren 29an Santa Ana antzokian eskainiko dena, 17:00etatik aurrera. Mari Kixkur neska bihurri eta alaiak hiru hartz ezagutuko ditu basoan, gurasoekin haserretu ondoren. Obra horretarako sarrerak 4 eurotan daude salgai, *bibe.me* atarian.

Aloña Mendi eta Tolosa aurrez aurre bihar, Zubikoan

Sailkapenean azkenengo postuan dagoen Tolosa taldearen aurka arituko da bihar Izarraitz-Muñoz Aloña Mendi, 16:30ean, Zubikoan. Partidu bakarra galduta, sekulako denboraldia osatzen ari dira Aitor Aranbururen mutilak, eta, Gabonetako atsedendialdiaren ondoren, bolada onari eutsi gura diote oñatiarrek.

Bestetik, bigarren taldeak, Muñoz-Izarraitz Aloña Mendik, Zarautzen jokatu du, liderraren aurka-sailkapenean bigarren daude oñatiarrek.

Azkenik, emakumezkoen taldeak Kukullaga hartuko du Zubikoan. Ixone Lizarraren neskek beheko postuetatik ateratzeko ahaleginetan dihardute.

Saskibaloian, Urdaneta hartuko du etxean Aloña Mendik

Bihar, zapatua, 18:00etan izango da Aloña Mendi eta Urdaneta taldeen arteko norgehiagoka, Zubikoa kiroldegian.

Gabonen aurretik partidu garrantzitsua irabazi zuten Aitor Ugarteren mutilek. Izan ere, sailkapeneko bigarren postuan dagoen Hernani Tecnun taldea menderatzea lortu zuten -10. dago Aloña Mendi-, etxetik kanpo (72-77). Arnasa eman zien garaipen horrek oñatiarrei eta biharko partiduan hirugarren garaipena jarraian lortzen saiatuko dira.

Biharko aurkaria, Urdaneta, sailkapeneko zortzigarren postuan dago, sei partidu irabazi eta lau galduta.

Amaia antzokia

Urtarrila-Martxoa
2017

10€
OPARI

15 euro ordainduta 25 euro
sarreretan gastatzeko aukera izango duzu



kultura
Bonua

Zuzeneko ikuskizunen kontsumoa
sustatzeko bitartekoa, Gipuzkoako
Foru Aldundiak sustatua

350 BONU DITUGU SALGAI

Urtarrilak 2tik aurrera Amaia antzokiko leihatilan
eros eta trukatu daitezke urtarrileko astelehen eta
asteartetan 18:00etatik 20:00etara

Bonuak erabili daitezke **apirilaren 14ra** arte.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON



HAUR ANTZERKIA

Urtarrilak 14 | 'GU' / Borobil teatroa. 5€



ANTZERKIA

Urtarrilak 29 | 'Francoren bilobari gutuna'. 10€



DANTZA

Otsailak 18 | 'Oskara' / Kukai dantza taldea. 15€



HAUR ANTZERKIA

Martxoak 4 | 'Marikixkur eta hiru hartzak'. 5€



OPERA

Martxoak 22 | 'El elixir de amor' / Arke - Ozenki. 30€*
*Kultura bonutik kanpo dago.

Laguntzailea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



MUSIKA

Urtarrilak 21 | SU TA GAR. 15€



HAUR ANTZERKIA

Otsailak 4 | 'Kaput' / Ganso&Cía. 5€



ANTZERKIA

Otsailak 26 | 'Idiot Txou' / Ados teatroa. 10€



MUSIKA

Martxoak 12 | Kepa Junkera & Sorginak. 15€



ANTZERKIA

Martxoak 26 | 'Jainko basatia' / Txalo. 10€

Sarrerak:
www.arrasate.eus



Markel Irizar, neguan Pirinioetan egin duen egonaldian.



Mikel Aristik etxean igaro ditu Gabonak, entrenatzen.



Eneko Lizarralde Benidormen dago egunotan entrenatzen.

Bost, eta denak hemengoak

TXIRRINDULARITZA Debagoienak bost ziklista izango ditu lehenengoz tropel profesionalaren barruan, nahiz eta Markel Irizar den World Tour barruko talde batean lehiatuko den bakarra; egunotan, denak daude denboraldi-aurreko azken prestaketa lanetan murgilduta, etxetik kanpora

Debagoieneko txirrindulari profesionalak

MARKEL IRIZAR
36 URTE

- **Egungo taldea:** Trek-Segafredo.
- **Zenbat urte profesional moduan:** 14. urtea egingo du.
- **Aurreko taldeak:** Lizarralde, Ulma, Ulma-Cegasa, Olarra, Orbea, Euskaltel Euskadi, Radioshack, Trek-Segafredo.
- **Non dabilen egunotan entrenatzen:** Mallorcan, talde kontzentrazioan.
- **Denboraldia hasiko du:** Dubain, urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra arte.

Aldaketak talde barruan

Fitxaketa asko egin ditu Trek-Segafredok, eta maila onekoak. Horrekin batera, Cancellarak ziklismoa utzi du, eta horrek ere eragina izango du Irizarren egutegian, Oñatikoak suitzarraren ondoan egiten zuen-eta urteko zati handi bat. Egoera berrira egokitu gura du, badaki-eta taldean ondo baloratutako ziklista dela.

MIKEL ARISTI
23 URTE

- **Egungo taldea:** Delko-Marseille Provence KTM.
- **Zenbat urte profesional moduan:** Laugarren urtea egingo du.
- **Aurreko taldeak:** Sumofic-Lokatza, Euskadi, Delko-Marseille Provence KTM.
- **Non dabilen egunotan entrenatzen:** Lloret de Marren, talde kontzentrazioan.
- **Denboraldia hasiko du:** Laigueglian (Italia). Otsailaren 12an.

Osasuna izatea, lehenetsun

Kirol arloan ahazteko moduko urtea izan du Mikel Aristik 2016an, mononukleosis izeneko birusak jota Bergarakoaren errendimendua ez da-eta izan nahiko lukeena modukoa, ezta gutxiago ere. Arazo horiek atzean utzi eta Marseillako taldean egingo duen bigarren urtea baliatu gura du benetan daukan maila erakusteko.

ENEKO LIZARRALDE
23 URTE

- **Egungo taldea:** Euskadi Basque Country Murias.
- **Zenbat urte profesional moduan:** Hirugarren urtea egingo du.
- **Aurreko taldeak:** Sumofic-Lokatza, Debarrena, Eki-Gipuzkoa.
- **Non dabilen egunotan entrenatzen:** Benidormen, talde kontzentrazioan.
- **Denboraldia hasiko du:** Mallorkako Challengean, urtarrilaren 26tik 29ra arte.

Aurrerapausoa ematera

Lizarralderendako hirugarren urtea izango da Odriozolaren ondoan. Lehen urtean taldeak asko zaindu zuen, gazteena zelako, eta iaz ez zuen nahi moduko urte ona izan, bronkitis batek denboraldiko zati handi bat baldintzatu ziolako. Taldean ardura gehiago hartzeko urtea izango du hau, eta prest dago horretarako.

JULEN IRIZAR
21 URTE

- **Egungo taldea:** Euskadi Basque Country Murias
- **Zenbat urte profesional moduan:** Lehenengo urtea izango da.
- **Aurreko taldeak:** Sumofic-Lokatza, Debarrena, Ampo.
- **Non dabilen egunotan entrenatzen:** Benidormen, talde kontzentrazioan.
- **Denboraldia hasiko du:** Mallorkako Challengean, urtarrilaren 26tik 29ra arte.

Maila duela erakutsi du

lazko udan taldean *stagiaire* moduan egindako lanak lagundu dio aurten berdez janzteko, eta baita amateur mailan egindako urte onak ere. Ikasteko urtea izango du, kategoria berriari neurria hartzeko urtea, baina badaki azkar moldatu beharko dela, taldeak 2018an koska bat gora egiten badu hor egon gura duelako.

JOKIN ETXABE
22 URTE

- **Egungo taldea:** Aevolo Cycling Team.
- **Zenbat urte profesional moduan:** Lehenengo urtea izango da.
- **Aurreko taldeak:** Sumofic-Lokatza, Debarrena, Seguros Bilbao.
- **Non dabilen egunotan entrenatzen:** Las Vegasen, talde kontzentrazioan.
- **Denboraldia hasiko du:** AEBetan izango ditu lasterketa gehienak; martxoan hasiko da.

Esperientzia bizitzera

Jokin Etxaberendako dena izango da berria: kategoria, ziklismo mota, lurraldea, hizkuntza... Denboraldia amaitu eta mahai gainean hainbat proposamen bazituen ere, gura baino gehiago atzeratu zen eskaintza formala. AEBetan puntako lasterketa batzuetan lehiatzeko aukera izango du; besteak beste, Kaliforniako Itzulian.

"Sendabide kultural kolektiboa da, gurea"

IGOR ELORTZA 'FRANCOREN BILOBARI GUTUNA' ANTZEZLANAREN GIDOILARIA
Artedramak, Dejabu Panpin Laborategiak eta Le Petit Theatre de Pain taldeen lana Oñatin eta Arrasaten ikusgai; *Bibe.me* eta *Arrasate.eus-en* eskura daitezke sarrerak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek idatzi dute *Francoren bilobari gutuna* antzezlana-
ren gidoia. *Errautsak* (2010) idazteko enkargatu zieten aurrez, eta, orduko oroitzapen onak gogoan, samur eman zioten baiezkoa egitasmo berriari. Oñatiko Santa Ana aretoan egingo dute urtarrilaren 22an eta Arrasateko Amaia antzokian 29an.

Zer moduz moldatu zarete?

Errautsak antzezlanean, gure lana, aktoreen inprobisazioetako bideoetan oinarrituta, dialogatzea izan zen, batez ere. Edonola ere, gaia oso landuta zegoen aurretik. Oraingoari dagokionez, antzezlana oinarritzko ideia eta pertsonaia eta eszena gutxi batzuk besterik ez zeudenean sartu ginen. Gehiago hartu dugu parte bai gaiaren bai tramaren osaran, eta urte eta erdian zehar aktoreen hainbat egonalditara joan izan gara, eta, batez ere, Ximun Fuchs zuzendariarekin, apurka-apurka joan gara obra osatzen talde-lanean. Oso aberasgarria izan da profesionalki eta ederra benetan lana zelan joan den eraikitzen bizitzea.

Antzezlana sortzeko hainbat gogoeta egin dituzue.

Kontakizunaren oinarritzko ideia hori zen: frankismoak euskal-



Igor Elortza bertsolari eta gidoilaria, bulegoan lanean. GOTZON GARAIZABAL

dunongan, gerra bizi izan zuten zein gaur egungo euskaldunongan, izan duen eta duen eragina komunitate moduan zelan bizi izan dugun; eta zelan sendatu dezakegun elkar, ez dira-eta auzi pertsonalak.

Dokumentazio lan handia dago.

Hainbat liburu irakurri ditugu: Günter Andersek Eichmannen semeari idatzitako gutuna jasotzen duen *Gu*, *Eichmannen seme-alabak*, horien artean. Eichmann izan zen juduen sarraskiaren arduradun nagusietako bat, eta Andersek haren ondo-

rengotzaz gogoeta proposatzen digu bai haren semeari, bai nazismoaren ondorengo munduan bizi garen Eichmannen seme guztioi. Nathalie Zadge etnosikiatraren *Bizirik iraun dutenak* ere irakurri eta aztertu dugu. Zadgek gertakari traumatikoak bizi izan dituzten gizataldeen eta trauma horien belaunaldiz belaunaldiko transmisioa aztertu izan ditu, eta horien sendabideaz gogoetatu, sendabide horrek kolektiboa eta kulturala izan behar duela ondorioztatuz. Pertsonaiak eraikitzeko, berriz,

Oliver Sacksen hainbat lan irakurri ditugu; eta hainbat pelikula, dokumental eta errepor-taje ere partekatu ditugu.

Ximun Fuchs zuzendariak dio Franco ez zaiola interesatzen, baizik eta haren arrastoak.

Horixe da, hain zuzen, antzezlana-
ren gaia. Trama, berriz, amaraun bat da, Espainiako gerrako zein gerraosteko hainbat gertaerak eta gertaera horiek gaur egun kokatutako ospitale batean batzen diren pertsonaien eragiten dituzten bizipenek osatua. Zinta-dantza bat da; ardatz berean korapilatzen doazen istorioak dira, elkarrekin askatu behar direnak.

Diozue ez dela atzera begiratzeko lana, oraindira baizik. Epaitegiek egin ez duten moduan, antzezlana- rekin justizia egitea da helburua?

Uf... epaitegiak... Alde horretatik, Andersengana baino gehiago, Zadgerengana joko dut. Frankismoak gudan duen eraginaren sendabide kultural kolektibo bat proposatzen dugu. Eta gauza bat atera dut garbi: gaur-gaurkoz, behintzat, artearen lengoia da eraginkorra horretarako gurean; ikusleen bizipenak eta gogoetek erakusten dute politikoki edo judizialki, are lekukotzen bitartez ere, adierazi ezin direnak indar handiz komunikatu ditugula.

Zergatik kokatu ospitale batean?

Ospitalea metafora bat da, neurri batean. Gaixorik dagoen jendarte baten metafora, baina baita gertaleku atemporal samar bat ere, orainalditik iraganera joan-etorriak egitea ahalbidetzen diguna. Eszenikoki, gainera, oso ondo landu dute hori dramaturgia aldetik, eta horrexek ematen dio egitura ikuskizunari: denbora, pertsona, bizipen eta goeten amaraun bat da.

Zein izan da jarraitu duzuen lan-prozesua?

Talde-lan handia izan da. Oinarritzko ideia horrek egitura zatikatua berarekin zekarrenez, Unairen eta bion artean pertsonaiak eta eszenak banatzen joan ginen hasieran. Ondoren, dena partekatzen genuen, eta egitura zatikatu horren loturak josten joan. Prozesu ezin aberasgarriago horren gidaritza Ximunek izan du beti, baina lasai eztabaidatu eta adostu dugu. Uztailean bidali genien azkeneko bertsioa aktoreei eta irailan egin genituen azken orraztuak. **Euskal Herriko hiru antzerki taldek elkarlanean egindakoa da. Ze garrantzi ematen diozu?**

Handia. Azken urteetan egiten dabilzan lana izugarria da: euskaraz sortu, euskaldunon auziez, gaurtik begira iraganari zein etorkizunari, eta hori guztia egitura profesional bat emanez prekariedade guztien gainetik, eta, gainera, aldiro jende berria formatuz lan artistikoan zein kudeaketan... Alde batetik, mina eta lotsa ematen dit, ze oraindik ere eskean eta baldintza eskasetan lan egin behar dugu halakoak atera ahal izateko. Bestetik, poza eta harrotasun handia, neu honen guztiaren zatitxo bat gehiago izateagatik.

Gustura emaitzarekin?

Oso. Esango nuke ikusle tripetatik harrapatzen duen lana dela, eta barre-algaratik negarrera oso tarte txikian pasatzen dela. Oso intentsua da.

"GAUR-GAURKOZ, ARTEAREN LENGOAIA DA TRESNARIK ERAGINKORRENA"

Arrasateko Ekon eta Des-kontrol taldeak taularen gainean berriz

Uztailaren 27tik 30era Lakuntzan egingo duten 20. Hatortxu Rock jaialdian kontzertua egingo dute

A. A. ARRASATE

Euskal preso politiko, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko musika jaialdia da Hatortxu Rock. Urteurrena aitzakia hartuta, ahalegin berezia egin dute egitarau mardula osatzeko.

Astean argitaratu dute parte hartuko duten behin-behineko taldeen zerrenda, eta oholtza utzita dituzten hainbat talderen itzulera iragarri dute; horien artean, Herrialde Katalanetako Inadaptats; Arrasateko Des-kon-

trol eta Ekon; Bizardunak; Kerobia eta Ehun Kilo. Antolatzaileek diote ez dela talde horiek zuzenean ikusteko beste aukerarik izango: "Zita honetarako elkartuko dira soilik". Era berean, lehen aldiz jaialdian izango direnak ere iragarri dituzte; Peru Altube arrasatearra kide den Huntza, horien artean.

Sarrerak salgai dagoeneko

Hatortxurock.eus atarian 50 eurotan eskura daitezke lau eguneko bonuak.



Des-kontrol taldea Arrasateko gaztetxean, 2009an. GOIENA

Bergarako country-rocka Arrasateko gaztetxean

Eskarmentudun musikariek osatzen duten What A Band laukoteak *Soft and Strong* diskoa aurkeztuko du 19an, Kooltur Ostegunen barruko kontzertuan, 22:00etan. Beasaingo Pottoko estudioan grabatu zuten, eta taldearen lehen bilduma da

Aitziber Aranburuzabala BERGARA 2015eko irailean elkartu ziren Txus Martinez (Fiachras), abeslaria eta gitarrista, Aitor Aldanondo (Fiachras, Bizardunak, Brigada Criminal), baxu-jotzaila eta ahotsak, Guille Sanz (Bostenbor, Belceblues), bateria-jolea eta Fernando Laskurain (Mahaster River, Shut up Trio), gitarrista eta ahotsak, What A Band taldean.

Martinez country musikazale amorratua dela diote taldekoek. "Haren autoko *pendrive*-an mila bat country-kantu izango ditu. Etxean egindako hainbat abesti zituela esan zidan, baina ez zuela oso garbi zer forma eman: akustiko, talde... Hainbat lagun elkartu eta taldea sortu genuen", kontatu du Aitor Aldanondok.

Musika dibertigarria

Kantuek oinarrian country-rocka badute ere, askotariko iturrietatik edaten duten musikariak direnez, folk eta bestelako estiloen kutsua ere sumatzen zaie. "Denon artean egin genituen kantuen konponketak; beraz, kide guztien eragina dute. Hitzak Txusenak dira eta ingelesez idatzi ditu; ingeles filologoa da eta horrela atera zitzaizkion. Istorio pertsonalak kontatzen dituzte; maitasunari eta beste-



Oñatiko Antixena gaztetxean, iazko abenduan. MIGUEL HERMOSO



SOFT AND STRONG
WHAT A BAND

- **Estiloa**
Country-rocka.
- **Argitaletxea**
Autoekoiztua.
- **Urtea** 2016.

lako bizipenei buruzkoak, diskoa argitaratzean sortu dizkion zantzak...".

Kantu berri gehiago sortzen

Kontzertu gutxi batzuk egiteko batu ziren arren, gustura daude izan duten harrerarekin; hori horrela, herrian eskaini dituzten emanaldiez gainera, beste hainbat ere lotzen ari dira. "Arrasatekoaren biharamunean, Azkoitiko Mataderoan izango gara. Oso gustura ari gara, oraindik ere zuzenekoetan errodajea egiten. Kantu berri pare bat ere baditugu dagoeneko".

Urte batzuetako geldialdiaren ostean, badator Sharon Stoner

Bost kontzertu egingo dituzte Gasteizko Tutan Come On taldearekin; horien artean, otsailaren 11n, Antixenan

A. A. OÑATI

2013an eskaini zuen, Oñatiko gaztelekuan, Iñigo Ibarrondok, Mikel Zarketak eta Egoitz Olalde osatzen duten taldeak azkenengo kontzertua. Harrezkero entsegu lokalean elkartzen ja-

rraitu dute, beste proiektu batzuetan -Zingira eta Lenao-, buru-belarri.

Sarritan aipatzen zuten, baina, Sharon Stonerren entseguekin hasteko gogoia, eta orain dela hilabete batzuk hasi ziren kan-

tu zaharrak erreparatzen. "Kandak (Tutan Come On) deitu zigun orduan, eurekin kontzertu batzuk egiteko proposatzen, eta guk hordagoari eutsi genion", kontatu du Ibarrondo abeslariak.

Jarraitzeko asmoarekin

Donostiako Le Bukowskin egingo dute urtarrilaren 29an lehenengoa, eta Oñatiko gaztetxean hurrengoa. "Bost kontzertu egingo ditugu, hasteko, eta ikusiko dugu gero; asmoa kantu berriak egin eta jarraitzea da".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarrileko zozketa!



ENERGY SYSTEM TS5
BOZGORAILU DORREA
Parte hartzeko sariaren izena: Bozgorailua



KORRONTZI BENEFIC

3 musika CD. Parte hartze izena: Korrontzi

SARRERAK

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartze izena: Arrikruz

OTARREA

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartze izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA *Jatetxea*

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalarri esker

Su Ta Gar taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.

Amaia antzokian. Arrasate. | Urtarrilaren 21ean, 20:00etan.

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Su Ta Gar" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



ONATI
Irati Jausoro
Urtarrilaren 14an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat!



ARETXABALETA
Gari Gastañaga Vicente
Urtarrilaren 14an, 4 urte. Zorionak, Gari! Ondo pasatu zure eguna, etxeko guztien partetik. Patxo potolo-potolo bat!



ARRASATE
Irati Zaitegi Manzanan
Urtarrilaren 13an, 10 urte. Zorionak, Irati! Jarraitu hain alai eta maitagarria izaten, asko maite zaitugu. Familia guztiaren partetik, musu handi bat.



BERGARA
Oier eta Elene Uzin
Elenek urtarrilaren 11n, 6 urte eta Oierrek 16an, 10 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunian familia eta lagun artean. Patxo pila bat biondako, familia guztiaren eta, batez be, zuen lehengusu Izarren, Ekaizen eta Ametsen partetik. Aupa Real!



ANTZUOLA
Izaro Irizar Fernandez
Urtarrilaren 10ean, 4 urte. Zorionak, *txikitina!* Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat danon partetik.



ARETXABALETA
Auritz Llodio Soraluze
Urtarrilaren 9an, 7 urte. Zorionak, potxolo! Jaso zazpi tirakada belarritik etxeko eta, bereziki, Oihanen eta Uxueren partetik! Patxo erraldoi bat!



ONATI
Naia Letamendi Narraspe
Urtarrilaren 8an, 4 urte. Zorionak, potxola! Jarraitu holako *xaladia* izaten. Ondo pasatu zure urtebetetzean, etxeko danon partetik. Muxu handi bat!



ARRASATE
Pili Seco Moreno
Urtarrilaren 6an, 49 urte. Zorionak, amatxo! Erregeek opari politena ekarri zotsien amamari! Asko maite zaitugu. Besarkada potolo bat etxeko danen eta, bereziki, Itxasoren, Anerren, Unaxen eta Laheren partetik.



ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
Urtarrilaren 5ean. Zorionak, Garazitxo! Mila kilo zorion, polit hori! 5 urte beteten dituzun honetan, jaso etxeko danon partetik laztanik beruena. Ederto ospatuko dogu!



ARRASATE
Ane Aranzabal Vitoria
Urtarrilaren 2an, 7 urte. Zorionak, *printze*. Oso ondo pasatu urtebetetze egunean. Muxu pila bat, familia guztiaren partetik.



ARAMAIO
Eider Vazquez Irizar
Abenduaren 30ean, 9 urte. Ondo pasatu zure bederatzigarren urtebetetze eguna. Zoriontsu izan. Muxu handi bat amamaren eta Joannesen partetik.

TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Azkena, Erniora

Erniora egindakoa izan zen 2016an Aloña Mendik antolatutako irteeretan azkena. Baina dagoeneko badute egutegi berria. Domekan, esaterako, Aretxabaleta, Muru, Untzilla, Asentziomendi eta Apotzaga zeharkatuko dituzte; Apotzagako elkartearen bazkaltzeko plana ere eginda dute, gainera. 2017ko lehen irteera izango da.

2. Zortedunak

Bergarako Kirol Elkarteak Urtezahar egunean egin zuen Gabonetako saskiaren zozketa, eta azkar azaldu ziren hiru irabazleak. Luis Mari Mujikak eraman zuen sari nagusia, saskia; bizikleta tolesgarria, berriz, Cristina Fernandezendako izan zen eta bi pertsonarendako asteburua, berriz, Asier Olabarrietarentzat.

#DIOTENEZ

ERRETZEARI UTZI

Erretzeari uzteko liburu bat idatzi du guraso oñatiarrak dituen **Amaia Otxoa** gazte gasteztarrak. Nola utzi azaltzen du, pintura ere aipatuz. **Nikitina eta koloreak** jartzen ditu aurrez aurre idazleak. Liburua gazteleraz idatzi du, baina dagoeneko **euskaratu** dute. **Edurne Arkauz** oñatiarrak egin ditu itzulpen lanak. **Laster** argitaratuko dute euskarazko bertsioa eta horren aurkezpena

Oñatin egingo dute. Urte berria hastearekin batera batek baino gehiagok egingo zuen, ziurrenik, erretzeari uzteko **promesa**. **Lagungarria** izango zaie liburu hori.

ILBELTZA

Patxi Larrion idazle bergararrak idatzitako **Feriatzailak** nobelak inauguratuko du astelehenean Baztango Euskal Nobela Beltzaren Astea. **Arizkungo** liburutegian da

ekitaldia, urtarrilaren 16an. **Baztan** genero beltzeko literaturaren hiriburu izango da urtarrilaren 16tik 22ra.

ALAVES

Alaves futbol taldeak **baimena** eskatu dio **UDAr**i datorren astean Aretxabaletako **Ibarra** futbol zelaian entrenatzeko. **Elurra** dago iragarrita datorren asterako, eta hori izan da eskaera egiteko **arrazoia**.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



IMANOL SORIANO

UDA-AMAIKAK BAT PARTIDUAREN IRUDIAK*'Harmailatik'* Astelehena, 22:00

GOIENA

BIDEOKLIP ONENAK AMAIA TXINTXURRETAREKIN*'Amaia DJ'* Egubakoitza, 22:00

ASTELEHENA, 16

**GIDABAIMENEO
AZTERKETA EGILEAK
GREBAN***'Debagoiena Zuzenean'*
Astelehena, 20:00

MARTITZENA, 17

**ARETXABALETAKO
ZIKLO-KROSA**

Martitzena, 22:00

GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
[goiena.eus/
telebista](http://goiena.eus/telebista)
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 18



MIREIA BIKUNA

**RODRIGO MERCADO DE
ZUAZOLARI BURUZKOAK***'Debagoiena Zuzenean'*
Eguaztena, 22:00

EGUENA, 19

**EGUNEKO ALBISTE
NAGUSIENAK***'Berriak'*
Eguena, 14:30

ESKER ONA

**Feli
Ugalde Iturrioz**

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen, 91 urte zituela.

Lerro hauen bidez Feliren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Beatriz
Otraduy Arregui**Angel Aguirreren alarguna
2017ko urtarrilaren 2an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Marina
Vega Galdos**

Jesus Unamuno Larrearen alarguna

2017ko urtarrilaren 4an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik beroenak, azken egunotan, ondoan izan zaituztegun guzti-guztioi, adierazi diguzuen babesagatik eta gertutasunagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Marinaren familiaren eta maite izan duten guztien izenean, bihotz-bihotzez, besarkada bero bana.

Haren aldeko meza urtarrilaren 29an, domeka, izango da, 11:00etan, Labegarietako San Jose Obrero elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Mari Paz
Gantxegi Ondarra**

2017ko urtarrilaren 1ean hil zen, 85 urte zituela

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran (Osintxu), 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Joseba
Rementeria Osa**

'Txoske'

2017ko urtarrilaren 4an hil zen, 81 urte zituela.

Lerro hauen bidez Josebaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Gure ondotik joan arren, beti gure bihotzean egongo zara.

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Enrike
Irusta Basauri**

2016ko abenduaren 28an hil zen, 64 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 14an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Juan
Erostarbe
Aranburu**

2017ko urtarrilaren 6an hil zen, 83 urte zituela.

Lerro hauen bidez Juan Erostarbe Aranbururen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 14an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Jesusa
Guridi Inza**

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 14an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko urtarrilaren 13an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus**► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona
Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko
bazkideendako 142 €► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € /
Goiena Klubeko bazkideendako 125 €**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

ESKER ONA

**Juan Luis Lage Guridi**

2017ko urtarrilaren 4an hil zen.

Beti egongo zara gurekin. Muxu bat, osaba.
Ama Nieves, arreba Lourdes, koinatua Juanjo eta ilobak Aitor, Maitane, Alazne, Ander eta Peru.

Ondra meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian. Eskerrik asko elkartzasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA

**Juan Luis Lage Guridi**

2017ko urtarrilaren 4an hil zen.

Zure irribarrea beti egongo da gurekin.

Lage familiakoak. Osaba-izebak: Estrella, Juan eta Ofelia, Teresa. Lehengusuak: Marini, Luis eta Sonia, Maite eta Alex, Juan Pedro eta Almudena, Virginia, Jokin, Nahia eta Markel, Anabel, Jose eta Julen.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA

**Antonio Errasti Onagoitia**

2017ko urtarrilaren 7an hil zen, 83 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Carlosen lankideak.
Elgetan, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Daniel Irizar Pardina

Francisca Prieto Manjonen alarguna

Bihotz zintzokua lagunen adiskide leiala ta zuzena, senarra, aitta, gizon ona. Zure senide eta lagunek, gogoan zaitugu.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiarren izenean.

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

Luis Maria Lombide Gisasola

2016ko urtarrilaren 27an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

**Maria De Blas Diez**


2016ko urtarrilaren 15ean hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Amatxo maitea, beti egongo zara gure oroimen eta bihotzetan. Eskerrik asko emandako guztiagatik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

**Calixta Ibabe Ochoa**

Pablo Madinagoitiaren alarguna

2016ko abenduaren 31n hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiarren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 14an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

**Maria Madariaga Ormazabal**

Pedro Aranbururen alarguna

2016ko urtarrilaren 7an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

**Bixente Errasti Villar**

2016ko urtarrilaren 17an hil zen, 61 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.

Zure irrifarra gogoan edukita, gutako bakoitzari bidea egiten laguntzen gaituzu. Maite zaitugu.

Zure familia.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 13an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

URTEURRENA

Ines Malbadi Olano

Doroteo Urrutiaren alarguna

2016ko urtarrilaren 4an hil zen, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 14an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan. Maite zaitugu.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2017ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

**Ricardo Ibabe Elorza**

2016ko urtarrilaren 14an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza Araozko parrokian izango da, 2017ko urtarrilaren 14an, 19:00etan. Aurrez, esker on, bertaratzen zareten guztioi.

Agerrenugarra itzungi zen, hontza isilik ilunpean; argia, berotasuna ta hitza faltan. Zu barik, zure beharrear. Gaur zure oroitzapenak kemena dakarkigu isilpean. Bihotzean leku berezia zuretzat aurrerantzean.

Oñatin, 2017ko urtarrilaren 13an.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



IMANOL SORIANO

BERGARA 'Mami Lebrun' helduendako antzezlana

Egoitz (Kepa Errasti) eta Miren (Ane Pikaza) amona Kontxa hil berriaren omenaldia prestatzen ari dira. Ganbaran topatuko dituzte amonak, gaztetan, Parisko kabaret batean erabilitakoak. Sarrerak, zortzi euro. *Bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan.*



TOPSY.ONE

ARRASATE 'Gu' umeendako antzezlana

Mundu koloretsua kolore barik uzten duten mutikoen istorioa kontatzen du Borobil Teatroa taldeak, euskaraz. Sarrerak, bost euro.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

EGUBAKOITZA 13

OÑATI Irratigintza ikastaroan izena emateko azken eguna

Gaur itxiko dute epea, kultura etxean edo irratia@onati.eus helbidean. 12 orduko ikastaroa izango da, 14 urtetik gorakoendako, egubakoitzetan, 17:00etan. *Izen-ematea, aipatutako lekuetan.*

OÑATI Sendabelarren ikastaroan izena emateko azken eguna

Gaur itxiko dute epea, kultura etxean edo irratia@onati.eus helbidean. *Izen-ematea, aipatutako lekuetan.*

OÑATI Gaztelekua itxita

Argiteria aldatzeko lanak egiteko itxita egongo da aste bukaeran. *Itxita egongo da.*

OÑATI Odol ateratzea

Urteko lehen deialdia. *Enpresagintza fakultatean, 17:00etan.*

ARRASATE 'Udazkena Euskal Herrian' erakusketa

II. argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai. Lanak salgai egongo dira 50 eurotan. Batutako dirua Aspanogirendako izango da. Irekiera ekitaldia gaur, egubakoitza, egingo dute, 17:30ean. *Kulturaten, hilaren 28ra arte.*

BERGARA Zeramika erakusketa

Bustinzale Zeramika Elkarteko kideek egindako lanak ikusgai.

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa, 18:00etan.

Martitzenetik domekara egongo da zabalik, hilaren 22ra arte. *Aroztegin.*

ANTZUOLA Mus txapelketako kanporaketa

Euskal Herriko txapelketako herri mailako lehen kanporaketa. Antzuolarrek edo herriarekin senidetza lotura dutenek bakarrik parte har dezakete. Bikoteak, 20 euro.

Mox tabernan, 22:30ean.

ZAPATUA 14

ESKORIATZA Fit bike eta zumba

Ordu eta erdiko saioak egingo dituzte, martxoaren 25ean, Oñatin egingo diren maratobietarako prestaketak egiteko. *Kiroldegian, 09:00etan.*

DEBAGOIENA Manifestaziorako autobusak

Euskal presoak, Euskal Herrira! Giza Eskubideak, Konponbidea, Bakea! leloarekin Bilbon egingo duten ekitaldira joateko autobusak irtengo dira bailarako herri guztietatik. Informazio gehiago herrietako orrietan. Manifestazioa 17:30ean hasiko da Kasillan. *Herri ezberdinetan.*

OÑATI Aratusteetako entseguak

Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entsegua. *Errekaldeko lokalean, 12:00etan.*

ESKORIATZA Ping-pong txapelketa

Gazteentzako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

ARETXABALETA Gu Hasiak Gara taldearen erakusketa

Euren lanak ikusgai gaurtik hilaren 30era arte; besteak beste, musika eskolarendako bederatzi gona, Kurtzebarrirendako 60 gona-gorri eta hamabi azpiko-gona, eta txotxongiloak. *Arkupen, hilaren 30era arte.*

DOMEKA 15

OÑATI Mendi irteera

Aretxabaleta-Muru-Asentsio-Apotzaga ibilaldia egingo dute Aloña Mendiko mendi taldekoek. *Postetxean, 08:00etan.*

ARETXABALETA Mandogainera mendi irteera

Guraso Foroaren eta Murruxio mendizale elkartearen eskutik. Ez da autorik eraman behar. Bazkaltzeko etxera itzuliko dira. *Herriko Plazan, 10:00etan.*

ELGETA Marrazki lehiaketa

12 urte arteko neska-mutikoendako. Marrazkia egunean bertan egin behar da, 17:00etatik 19:00etara. Margoak norberak eraman behar ditu. Bestalde, irabazlea boto bidez aukeratuko dute: astelehenetik egubakoitzera arte. Sari banaketa hilaren 21ean egingo dute. *Spaloian, aipatutako orduetan.*

ESKORIATZA Ping-pong txapelketa

Gazteentzako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

BERGARA 'Zinetxiki bira'

Hamaika film labor emango dituzte, umeendako. Sarrerak, hiru euro. *Zabalotegin 17:30ean.*

OÑATI Dominikar Errepublikar argazkietan

Tania Juanen erakusketan, azukre industriaren inguruan sorturiko Bateye izeneko landa komunitateetan biztanleek bizi duten errealitatea islatzen da hainbat argazkitan. *Kultura etxean.*

BERGARA 'Money monster'

Jodie Fosterrek zuzendutako azken pelikula, nagusiendako. Sarrerak, lau euro. *Zabalotegin 19:30ean.*

ASTELEHENA 16

OÑATI Gaztelekua itxita

Argiteria aldatzeko lanak egiteko itxita egongo da egubakoitzera arte. *Itxita egongo da.*

OÑATI Ostegun Kontalarietarako gonbidapenak

Hilaren 26an 6 eta 10 urte arteko neska-mutikoendako egingo den saiorako gonbidapenak banatuko dituzte. *Haur liburutegian, arratsaldean.*

MARTITZENA 17

OÑATI 'Nire seme-alabak ez du jostailurik uzten'

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetako gurasoendako. *Euskaldunberri gelan, 18:15ean.*

ELGETA Bazkidetza eta federatu txartelak

Kantsatzeke mendi taldeak 2017rako tramiteak egingo ditu urtarileko martitzenetan. *Kultura etxean, 19:00etan.*

BERGARA 'Euskara irabazteko bidean' liburua

Garikoitz Goikoetxea egileak aurkeztuko du liburua, Jardun Elkarteak gonbidatuta. *Jardunen egoitzan, 19:00etan.*

OÑATI 2017rako mendirako lizentziak

Aloña Mendiren mendi sailak tramitatuko ditu. Dokumentazioa eta ordainagiria eraman behar da, derrigorrez. Lizentziak berritu, eta berriak egingo dituzte. *Aloñaren egoitzan, 19:00etan.*

OÑATI Aratusteetako entseguak

Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entsegua. *Errekaldeko lokalean, 20:00etan.*

ARRASATE 'El faro de las orcas'

Gerardo Olivares zuzendariaren azken pelikula. *Amaia antzokian, 20:30ean.*



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Euskararen burtsa

Igo da euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua; igo, euskaraz hitz egin nahi dutenen kontzientzia; igo dira, halaber, esparru ezberdinetan euskaraz jarduteko aukerak. Igo da euskararen mapan periferiaren aktibazioa, mapa hori gero eta osatuago dago. Igo da, eta nabarmen igo, hizkuntzaren beraren adierazkortasuna komunikazioaren erregistro guztietan ondo funtzionatzeko. Azkenik, igo da erakunde, eragile, alderdi eta dinamika ezberdinen arteko harremanen temperatura; aspaldiko gozoena da gaur.

Jaitsi da euskararik gabe bizi direnen kopurua, eta haietako batzuen erosotasun maila; jaitsi dira euskararekin eszeptiko zirenen zalantza eta erritmo azkarragoa nahi zutenen espektatibak. Jaitsi da, pila bat, euskararekin liskarrean jarduteko joera, bestearen ukazioa, hizkuntzarena folklore hutsean kokatzeak izan ohi duen onarpena.

Inbertitu behar da etorkizuneko produktuetan: zoru komuna, diskurtso berritua, ulermen unibertsala, lankidetzaren egonkorra, berrikuntza etengabea... Inbertitu behar da anbiziotan, euskararen mozkinak askoz handiagoak izan daitezten. Eta inbertitu behar da akordio sozial eta politikoko indartsu batean.

BUKATZEKO



Jon Sanchez aretxabaletarra lanean, lantokian. J.S.

'Dynasty Feud', estatuko bideo joko onenen artean

Jon Sanchez aretxabaletarrak eta beste lau kidek osatzen duten Kaia Studios enpresak egindako bideo joko horrek PlayStation plataformen erabilera onenaren saria jaso du; gainera, AzPlay 2016 sariketan euskal bideo joko onena izendatu dute

Eneko Azurmendi ARETXABALETA "Hamabi finalista zeuden aukuratuta eta horietatik sei sari banatzen ziren. Finalista izanda pozik geunden, baina irabazita askoz hobeto, ongietorriak dira beti sariak", adierazi du Jon Sanchezek, Kaia Studios enpresako langileak. PlayStation plataformen erabilera onenaren saria da, hain zuzen, enpresa

horrek egindako *Dynasty Feud* bideo jokoak lortu duena.

Sari hori orain arte egindako lan guztiaren aitortpen bat dela gaineratu du Sanchezek. "Urte eta erdi daramatzagu bideo joko honekin lanean, eta, guretako, errekonozimendu bat da. Azken finean, atzean PlayStationen izena izateak ikusgaitasun bat ematen digu guri, gizartean gure

burua aurkezteko modu bat da", adierazi du.

Bestalde, mundu osoko proiektuak aurkezten diren Bilboko Azkuna Zentroko AzPlay 2016 sariketan, euskal bideo joko onenaren saria ere irabazi zuen.

Dinastien arteko borrokak

Bost dinastia ezberdinen arteko borrokak dira jokoaren muina.

"Garai ezberdinetako bost dinastia dira: bakeroak, bikingoak, piratak, eta abar. Beraz, dinastia hauen arteko borrokak dira jokoaren funtsa", dio Sanchezek. Hasiera batean, ordenagailuan jolastu ahal izateko eginda dagoen joko bat da. "Guk jokoaren ordenagailurako diseinatu dugu, baina, PlayStation enpresaren laguntzarekin, euskarri horretara ere moldatuko dugu", azpimarratu du Sanchezek.

Bost lankide

Zierbenako Kaia Studios enpresak egin du joko hori. Bertan, Sanchez eta beste lau kide dira. Bostetik, lauk ikasi dute DigiPen Institute Of Technology bideo jokoen unibertsitatean. Duela urte eta erdi ikasketak bukatuta, euren proiektuarekin has-tea erabaki zuten. Zereginak banatuta dituzte lan egiteko orduan: "Arte Ederrak ikasi zituen bat daukagu taldean eta hura arduratzen da marrazkiaz eta diseinuaz. Beste laurok zeregin desberdinak ditugu. Batek jokoaren diseinatzen du, hau da, nolakoa den deskribatzen du; beste bat negozio arloaz arduratzen da, kontuak eramaten ditu; eta beste biok programatzaileak gara", nabarmendu du Sanchezek.

Oraindik ez dago merkatuan

Saria jaso arren, bideo jokoaren oraindik ez dago erabat bukatuta. "Bideo jokoaren prototipoa aurkeztu genuen guk, oraindik amaitu gabe daukagu. Hala ere, 2017an zehar merkaturatzea espero dugu. Oraindik data zehatzik ez daukagu, baina, posible bada, lehenengo seihilekoan izatea gustatuko litzaiguke".

ARRASATEKO UDALARI ESKER

Su Ta Gar

taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.

Amaia antzokian. Arrasate. | Urtarrilaren 21ean, 20:00etan.

Animatu eta parte hartu!

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Su Ta Gar" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!